KARRIKAKO BAILARAREN PAISAIARAKO EKINTZA PLANA (OIARTZUN)

Oiartzungo Udala

2017ko ekaina

Aholkularitza teknikoa: Ekogarapen SL

Plan hau idatia izan da honako aginduaren testuinguruan: *Agindua 2016ko ekainaren 1ekoa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira Paisaiaren Ekintza Planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalentzako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia*.

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA METODOLOGIA 6
1.1 PAISAIARAKO EKINTZA PLAN BAT IZATEKO AUKERA 6
1.2 EDUKIA ETA METODOLOGIA 7

2. DIAGNOSIA 12
2.1 PLANAREN LAN-EREMUA 12
2.2 PAISAIAREN BILAKAERA 14
2.3 PAISAIAREN EGITURA FORMALA 20
2.3.1 Geologia 20
2.3.2 Erliebea eta maldak 23
2.3.3 Hidrografia eta hidrologia 23
2.3.4 Landaredia eta habitatak 29
2.3.5 Fauna 34
2.3.6 Naturagune babestuak 39
2.3.7 Bide publikoak, ibilbideak eta jende asko dabilen eremuak 42
2.3.8 Ondare historiko-arkitektonikoa 45
2.4 LURRALDE ETA SEKTORE PLANGINTZARAKO TRESNEN ERAGINA 59
2.4.1 Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPOan) zehaztutako esparrua, proiektuaren eremuan eragin zuzena duena 59
2.4.2 Lurzoru urbanizaezina 67
2.4.3 Egoera espezifikoak dituzten tokiak 70
2.4.4 Udalerriaz gaindiko beste plan eta tresna batzuk, planaren eremuan eragina dutenak 74
2.5 ARRO BISUALEN AZTERKETA 80
2.6 AZTERKETA BISUALA 82
2.6.1 Egitura eta esposizio bisuala 82
2.6.2 Behaketa guneak eta ibilbideak 82
2.6.3 Ikusgarritasuna 83
2.6.4 Hauskortasun bisual handiagoa duten eremuak 86

3. PAISAIAREN BALIABIDEEN IDENTIFIKAZIOA ETA AZTERKETA 88
3.1 INTERES NATURALEKO PAISAIAREN BALIABIDEAK 89
3.2 INTERES HISTORIKO-KULTURALEKO ETA ARKITEKTONIKOKO PAISAIAREN BALIABIDEAK 93
3.3 INTERES BISUALEKO PAISAIAREN BALIABIDEAK 99
3.4 PAISAIARA IRISTEKO BALIABIDEAK ETA AZPIEGITURA BERDERA 102

4. PAISAIAREN GATAZKEN IDENTIFIKAZIOA ETA AZTERKETA 106

4.1 ERAIKUNTZENGATIKO ERAGIN NEGATIBOA 107
4.2 AZPIEGITURAK EGOTEAGATIK SORTUTAKO NARRIADURA 110
4.3 IBAIKO ETA BASOKO HABITATAREN DEGRADAZIOAK SORTUTAKO INPAKTUAK 112
4.4 ONDARE ARKITEKTONIKOAN NARRIATUTAKO ELEMENTUAK..... 116
4.5 ETENAK PAISAIARA IRISTEKO BIDEETAN 118

5. PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEEN MUGAKETA 122
5.1 ALTZIBAR – PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEA 123
5.2 ALTAMIRALARRE-ARRASKUELARRE – PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEA..... 125
5.3 KARRIKA – PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEA 127

6. PAISAIAREN BALORAZIOA 130
6.1 PAISAIAREN KALITATEA ZEHAZTEA 130
6.2 BIZTANLEEK EMANDAKO BALIOA 132
6.3 PAISAIAREN BALIOA 135

7. PAISAIAREN KALITATEA-HELBURUAK 138
7.1 HELBURU OROKORRAK..... 138
7.2 PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEKO HELBURUAK 138

8. EKINTZA PLANA 142

9. ERANSKINAK 184

1. SARRERA Y METODOLOGIA

1. SARRERA ETA METODOLOGIA

1.1 PAISAIARAKO EKINTZA PLAN BAT IZATEKO AUKERA

Paisaiarako ekintza-plana tresna lagungarria izan daiteke jarduera-programa egituratu eta koherente bat garatzeko, Altzibar-Karrika eremuaren ezaugarriak, problematika eta aukerak kontuan izanda. Honela, Oiartzungo Udalak abina jarri dezake modu planifikatuan, eta hainbat hainbat eragile publiko eta pribaturekin elkarlanean.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Plangintza eta Etxebizitza Sailak paisaiarako ekintza-planak garatzeko ematen duen laguntza lortzeko irizpideekin bat dator azterketa eremuaren egoera. Zehazki, apagarriak dira ibai-eremua izatea, gune degradatuak egotea, hirigune eta landa gunearen arteko transizio kokaera izatea, azpiegituren eragina, paisaia esanguratsua izatea (biztanleentzat oso ikusgarria) eta elementu identitario aipagarriak izatea..

Irizpide horiez gain, aukera eta bideragarritasun elementuak daude plana Oiartzungo Udalarentzako baliagarria izango den tresna gisa egituratzeko, eta, horrela, lurraldean gauzatu nahi dituen jarduerak kokatu eta betetzen laguntzeko. Horien artea, honako elementu hauek aurkitu ditzakegu:

- Ubide inguruaren berreskurapena eta hobekuntza ahalbidetzen dutenak. Besteak beste, 2015eko maiatzaren 25ean udal-bilkuran onartutako Oiartzungo Hiria Antolatzeko Plan Orokorrean (HAPO), aurreikusitako Altzibar eta Karrikarako hirigintza jarduerak, eta "Recuperaciones Industriales Cadarso" enpresaren lekualdatzea.

- 2013an sinatutako hirigintzarako lankidetza hitzarmenaren bidez, "Recuperaciones Industriales Cadarso" enpresaren lekualdatzeko prozesua abian jarri da. Ondorioz, 2017 urtea amaitu baino lehen, Udalak 4.514 m^2-ko azalera baliatu ahal izango ditu, bertan dauden eraikinak barne. Ibai ingurua berreskuratzeko espazio eta jarduera garrantzitsua da; horretarako, lurren kutsadura kendu behar da, eraikin batzuk eraitsi, ingurua berreskuratu eta erabilgarriak suerta daitezkeen eraikinen ekipamendua bideratu behar dira.

- Esparru hauek Udal jabetzakoak izanik, etorkizunerako beste erabilera aukera batzuk baliatu daitezke. Orain arte ez da xede jakinik zehaztu, beraz, udalerriaren beharrak kontuan izanik eta paisaiarako ekintza planetik eratorritako proposamenak sozialki eztabaidatuz aztertu beharko dira.

- Karrika ubidearen ertzetan, Altzibarretik gora, antzeman daitekeen mailakako garapen urbanoak, gomendagarria egiten du ubidearen balioak eta paisaiaren hobekuntza barneratzeko jarraibideak izatea, bai dagoeneko existitzen diren eraikinak, bai eraikin berriak integratzeko.

- HAPOk aurreikusten duen oinezkoentzako eta txirrinduentzako bidea (bidegorria) Altzibar eta Karrika lotzeko. Bide hau Arditurriko bide berdetik hasi eta Zorrola eta Artikutzako trenbide zaharretik igaroko da, Karrika errekaren ondotik, hain zuzen.

- Karrika erreka eta ingurunea balio handiko azpiegitura berdea da, besteak beste, Oiartzun ibaiko ibilgu guztian zehar antzematen den ur-kalitatearen berreskuratzeagatik, fauna eta floraren aniztasunagatik eta Kontsebazio Bereziko Eremuarekiko (KBE) eta Aiako Harriko Parke Naturalarekiko komunikazio korridorea izateagatik.

Aipatutako ekintzez gain, Oiartzungo Udalak paisaiarako ekintza planetik eratorritako neurriak ezartzeko aukera izango du, Karrika erreka antolatzeko Plan berezi baten bidez. Izan ere, hori aurreikusten da aipatutako HAPOko Ingurumenaren Iraunkortasun Txostenean aurreikusten da plan berezi hori gauzatzea, partaidetza publikotik eratorritako proposamen gisa eta neurri konpentsatzaile moduan.

1.2 EDUKIA ETA METODOLOGIA

Paisaiarako ekintza plana honako atal hauetan egituratzen da:

- *Paisaiaren karakterizazioa.* Paisaiak jasandako aldaketak, lurralde eta natura substratua, lurralde eta sektore plangintzarako tresnak, nahiz ikusten diren arroak aztertzen ditu. Gatazkak eta paisaia baliabideak mugatzea eta paisaia kudeaketarako unitateak.
- *Paisaiaren balorazioa.* Biztanleriak esleitutako balio eta irizpideak ezarriz paisaiaren kalitatea zehaztea.
- *Paisaia kalitatearen helburu* orokorrak eta paisaia kudeatzeko unitateen araberakoak.
- *Ekintza plana.* Ekintzak zehaztea, eta helburuekin, baliabideekin eta gatazkekin duen harremana. Ekintza bakoitzaren edukia, justifikazioa, kokapena, garapena, gauzatzeko epea, lehentasuna, bideragarritasuna, inplikatutako eragileak eta jarraipenerako adierazleak zehaztuz.
- *Eranskinak.* Paisaiarako ekintza planaren emaitza gisa, izaera informatiboa duen gaikako kartografia atxikitzen da, baita argazki bilduma ere. Eranskinak formatu digitalean bakarrik aurkeztuko dira.

Plana gauzatzeko, partaidetza esanguratsua izan da fase guztietan, bereziki honako hauetan:

- Paisaiaren balorazioa eta pertzepzioa.
- Gizartearen eskakizunak zehaztea eta sortzen joan diren proposamenen eta horien edukien eztabaida.
- Planaren eta udalerriko eragile kulturalen artean sortzen ari diren proposamenak integratzea / partekatzea.
- Ekintzek Oiartzungo Udaleko hainbat sailetan duten integrazio maila, alderaketa eta inplikazioa.

Honakoak izan dira erabilitako tresnak:

- *Bertako eragileekin bilerak eta elkarrizketak.* Horretarako, kartografia-bilduma, eta aireko argazki historikoak eta eremuaren irudi zehatzak prestatu eta kontrastatu ditugu, zeinetan elementu aipagarriak jasotzen ziren. Saioak banaka egin dira eta elkarrizketa bakoitzak 2-3 orduko iraupena izan du. Irudiak erakusterakoan, elkarrizketatuari gustu estetikoak, paisaiaren balorazioa, eta erreferenteen, gatazken, baliabideen eta proposamenen zehaztapena adieraz ditzan eskatuko diogu. Elkarrizketak interaktiboak izan dira: eragileen nahiz erredakzio taldearen hainbat proposamen aztertu dira, integrazioa eta adostasuna lortzeko helburuarekin.

  6 topaketa egin dira, eta, gainera, telefonoz eta posta elektronikoz informazioa eta iritziak partekatzeko aukera izan da. Parte hartu duten eragileak bereziki ondare kulturalari eta ingurumenari lotutakoak dira; era berean, planaren inguruko jarduerarekiko edo bizitokiarekiko harremana izatea hobetsi da.

  Honako hauek direa elkarrizketatutako pertsonak:

- Suberri Matelo Mitxelena, historialaria, Karrikako bizilaguna.
- Anton Mendizabal, eskultorea, Pagoarte Kultur Elkartea.
- Arantza Lekuona eta Elena Zalakain, "Oiartzungo Ondarearen Zaleak" Kultura Elkartea.
- Kepa Olaiz, Ekologistak Martxan eta Mendi eta Ingurugiro zinegotzi-ohia.
- Ramón Gaztelumendi, lorezaintza teknikaria, Karrikako bizilaguna.

- *Udalerriko eragile tekniko eta politikoekiko integrazioa eta lankidetza.* Mendi eta Ingurumen Kultura eta Hirigintza sailetako arduradun teknikoekin bilerak egin dira, baita Mendi eta Ingurumen, Kultura zinegotziekin eta Alkatearekin ere. Arlo hauek informazioa eskaini eta emaitza gisa sortutako dokumentuaren berrikuspena eta planaren proposamenak egiaztatu dira.

- *Dokumentu-ekarpena.* Udaleko hainbat sailetatik jasotako informazio garrantzitsuen txostenez gain, elkarrizketatuak izan diren bertako eragileen ekarpena ere jaso da. Gainera, plana gauzatu bitartean, Artikutzako trenbideari buruzko argitalpen bat abian jarri du udalak, eta parada izan dugu elkarrizketetan informazioa eta iritziak partekatzeko argitalpenean parte hartu duten egileetako batzuekin. Dokumentu zehatz gisa, Aranburuolako burdinolako hondakinei buruzko txostena eta argazki zaharrak jaso dira.

- *Bizilagunen ekarpenak.* Aurrez aipatutako bertakoez gain, 2015 eta 2016an Udalak Karrikako eta Altzibarko auzoetako bizilagunekin izandako bileretako aktak erabili dira informazio adierazgarria lortzeko helburuz. Bilera hauetako iritzi eta proposamenak gehitu zaizkio planaren edukiari.

Landa-lanari dagokionez, dozena bat bisita baino gehiago egin dira planaren ingurura, datuak hartuz, baliabideak identifikatuz, eta paisaiaren gatazkak hautemanez; era berean, dokumentuetako informazioa alderatu da eta argazkiak egin dira. Emaitza material gisa, kartografia eta milaka argazkiko fitxategia sortzea lortu da.

Honako iturri dokumentalak erabili dira:

- *Garapena erakusten duten aireko irudi sorta.* Planaren inguruko garapena erakusten duten aireko irudi sorta prestatu da. Honako urte hauek izan dira kontuan: 1946, 1954, 1983, 1997, 2001 eta 2015 (irudiak, Eusko Jaurlaritzako GeoEuskadi egiturarenak dira).
- *Liburutegiaren dokumentazioa eta udal artxibategia kontsultatzea.*
- Hemen zehazten diren t*xostenak, artikuluak eta publikazioak begiratzea*:

  - Udalaz gaindiko lurralde planifikazioaren eta araudiaren markoa

    - Paisaiaren Europako Hitzarmena - *Convenio Europeo del Paisaje* (2000). Europako Kontseilua-*Consejo de Europa*.
    - 90/2014 Dekretua, 2014ko ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa - *Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco* (2014). Ingurumen eta Lurralde Politika saila. Eusko Jaurlaritza.
    - 2001eko uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, Uren Legearen testu bategina onartzen duena - *Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Aguas*.
    - EAEko ibaiak eta errekak Arautzeko Sektoreko Lurralde Planaren aldaketa-Kantaurialdeko eta Mediterraneoko isurialdea - *Modificación del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los ríos y arroyos de la CAPV-Vertiente Cantábrica y Mediterránea* (2013). Eusko Jaurlaritza.
    - Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala - *Plan Territorial Sectorial Agroforestal de la Comunidad Autónoma del País Vasco* (2014). Eusko Jaurlaritza.
    - Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana - *Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Gipuzkoa* (2013). Gipuzkoako Foru Aldundia.
    - Plan Hidrologikoa eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana 2015-2020 - *Plan Hidrológico y Plan de Gestión del Riesgo de Inundación 2015-2020* (2014). URA. Eusko Jaurlaritza.

- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioa - *Inventario de suelos potencialmente contaminados*. Ihobe (2008) Eusko Jaurlaritza.
- Plan de Gestión del Desmán del Pirineo (*Galemys pyrenaicus*) en el Territorio Histórico de Gipuzkoa (Orden Foral de 15-05-2004; BOG nº 100, 28-05-2004)
- Plan de Gestión del Visón europeo (*Mustela lutreola*) en el Territorio Histórico de Gipuzkoa (Orden Foral de 12-05-2004; BOG nº 100 de 28-05-2004).
- Aiako Harria aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana - *Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de Aiako Harria* (240/1995 Dekretua, apirilaren 11koa; EHAA 105 zk. 1995-06-05)
- Aiako Harriko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailea - *Plan Rector de Uso y Gestión del Parque Natural de Aiako Harria* (87/2002 Dekretua, apirilaren 16koa; EHAA 81 zk., 2002-05-02)
- Documento de objetivos y medidas de conservación para la declaración de la Zona Especial de Conservación Aiako Harria (ES2120016). Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco. Noviembre 2012.
- Red de Corredores ecológicos de la Comunidad Autónoma de Euskadi (2005). Eusko Jaurlaritza.
- Gipuzkoako Mendien Foru Araua-*Norma Foral de Montes de Gipuzkoa*. (2006). Gipuzkoako Foru Aldundia.

➢ EAEko paisaiaren kudeaketa eta babesa, eta kanpo-erreferentziak

- EAEko paisaia berezien eta esanguratsuen katalogo irekia-Aurreproiektua - *Catálogo abierto del paisajes singulares y sobresalientes de la CAPV-Anteproyecto.* IKT; PAISAIA (2005) Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Eusko Jaurlaritza.
- Guía metodológica. Estudios de paisaje (2012) Conselleria de Infraestructuras, Territorio y Medio Ambiente. Generalitat Valenciana.
- Oiartzun ibaiaren inguruneko paisaiaren ekintza plana - *Plan de acción del paisaje en el entorno del río Oiartzun*. (2015). Errenteriako Udala.

➢ Ingurumenaren eta ondarearen informazio-iturriak

- Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera biologikoaren jarraipen-sarea. 2015 Kanpaina - *Red de seguimiento del estado biológico de los ríos de la CAPV. Informe de resultados. Campaña 2015* (2016). URA
- EAEko ibaien egoera kimikoaren jarraipen-sarea. 2015eko kapaina - *Red de seguimiento del estado químico de los ríos de la CAPV. Informe de resultados. Campaña 2015* (2016). URA.
- EAEko erriberen birlandataze-ekintzetan ezarritako lehentasunak - *Establecimiento de prioridad de actuaciones de revegetación de riberas en la CAPV* (2011). URA.
- Gipuzkoako ibaietako ur-kalitatearen azterketa. 2015ko urtea - *Estudio de la Calidad del agua de los ríos de Gipuzkoa. Año 2015.* (2016). Gipuzkoako Foru Aldundia-*Diputación Foral de Gipuzkoa*. (Sin publicar).
- Cartografía de hábitats, vegetación actual y usos del suelo de la CAPV. IKT (2007) Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Gobierno Vasco.
- Inventario de Lugares de Interés Geológico en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Gobierno Vasco.
- Ibilbide homologatuak - Senderos homologados (http://www.gipuzkoamendizmendi.net)
- Tratado de molinología (Los molinos de Guipúzcoa) (1988). Aguirre Sorondo, A. Eusko Ikaskuntza.
- Guía Histórico-Monumental de Gipuzkoa. (1992). Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Catálogo de Puentes de Gipuzkoa anteriores a 1900- 1900 Urtea baino Lehenagoko Gipuzkoako Zubien Katalogoa. (1994). Centro de Patrimonio Cultural Vasco-Euskal Kultura Ondarearen Zentrua. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.
- Ferrerías en Guipúzcoa (Siglos XIV-XVI) (1983). Diez de Salazar, L.M. Haranburu-Editor, S.A.

- Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XV). (1997). Diez de Salazar, L.M. Instituto Dr. Camino de Historia Donostiarra-Historiako Dr. Camino Instituto Donostiarra.

➢ Hirigintza, ingurumena, Oiartzungo paisaia eta ondarea

- Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorra - *Plan General de Ordenación Urbana de Oiartzun* (2015). Oiartzungo Udala.
- Oiartzungo Arau Subsidiarioen berrikuspenak ingurumenean duen eraginaren ebaluazio bateratua - *Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental de la revisión de la Normas Subsidiarias de Oiartzun* (2005). Oiartzungo Udala.
- Oiartzun haranaren geologia - *Geología del valle de Oiartzun* (1998). José Ángel Torres, Luis Ignacio Viera. Mugarri 5. Oiartzungo Udala.
- Oiartzungo natura (2000). Carlos Aseginolaza. Mugarri 7. Oiartzungo Udala.
- Oiartzungo baserria (2004). Juan Cruz Alberdi, Mikel Cendoya, Ainhoa Amundarain. Mugarri 11. Oiartzungo Udala.
- Oiartzungo toponimia - *Toponimia de Oiartzun* (2007). Imanol Goikoetxea, Idurre Lekuona. Mugarri 14. Oiartzungo Udala.
- Isiltzen ez den isiltasuna. Lurpetik berreskuratutako memoria (2009). Kattin-Txiki taldea. Mugarri 16. Oiartzungo Udala.
- Los molinos de Oiartzun. Agirre, A y Arbelaitz, I. Revista Oiartzun 1982. Oiartzungo Udala.
- Errotak-Molinos en Oiartzun.Revista Oiartzun 1980. Oiartzungo Udala.
- Ferrerías en el valle de Oyarzun. Revista Oiartzun 1980. Oiartzungo Udala.
- El ferrocarril minero de Artikutza. Tren Correo, número 37. Asociación de Amigos del Ferrocarril de Gipuzkoa-Gipuzkoako Burnibidearen Lagunen Elkartea. 2016.
- Produkzio gune aurrekapitalisten arkeologia: Oiartzungo aranburuola burdinola, prospekzio arkeologiko baten adibidea (2013-2014). Suberri Matelo Mitxelena. Gradu amaierako lana.
- Herri Bideen Udal Inbentarioa (2004). Oiartzungo Udala
- Oiartzungo argazki zaharrak (CD). Oiartzungo Udala.
- Proyecto de la primera fase del bidegorri de Altzibar-Artikutza en Oiartzun (2004). Oiartzungo Udala.
- Oiartzungo mapa. 1/15.000 (1999). Oiartzungo Udala.

2. DIAGNOSIA

2. DIAGNOSIA

2.1 PLANAREN LAN-EREMUA

Paisaiarako ekintza planaren aztergai den arloa bat dator Karrika errekako haraneko beheko tartearekin. Ubidearen ibilbidea ardatz duela, Artikutzako trenbide zaharreko bidearekin bat egiten du, eta bi ertzetatik zabaltzen da inguruko eremu forestaletara eta inguruko landazabaletara.



Karrika erreka Oiartzun ibaiko ibaiadar nagusia da eta ezkerraldetik isurtzen ditu bere urak. Ibilbidean zehar, ur-lasterrak ikus daitezke eta ibai-habitatak kalitate altua du, nahiz eta behe-ibilguan gutxitzen joan. Bianditzeko mendietako arboladietan sortzen da, hau da, Aiako Harria Kontzerbazio Bereziko Eremuan (KBE). Behe-ibilguan landa-paisaiak nagusitzen dira, eta etxadi sakabanatuak eta Karrika auzoa, ubideko bi aldeetan garatzen den herrigune txikia, zeharkatzen ditu. Hondoko paisaia, kalitate eszeniko handikoa, Aiako Harriko granito-gailurrak hartzen ditu.

Behe-ibilguan, Altamiralarre eta Arraskularreko (Oiartzun haranetik ederki ikusten dira) arboladien artean mehartzen da erreka, eta degradazio handiko tartea zeharkatzen du: azpiegitura linealak (errepidea, tentsio altuko linea elektrikoa), erauzketa jarduerak (gerora garabi-dorreak eta herri-lanetako makinen biltegi gisa erabili den ofita-harrobi zaharra), eta jarduera industrialak hartzen dituen

inguruaren kutsatzaileak biltzen dira bertan. Are gehiago, eremu batzuetan errekaren ibilgua estalita agertzen da.

Tarte "ilun" horren ondoren, ubidea berriz ere inguru atseginago batera itzultzen da, oraingoan hirigunea, eta Altzibarko auzotik igaro eta Oiartzun ibaira iristen da. Hori da, hain zuzen ere, haranaren egiazko ingurumen-korridorea. Bertatik Arditurriko bide berdea ere igarotzen da, zeina Aiako Harriko muineraino barneratzen den. Izan ere, eremu honek paisaia, natura eta kultura aldetik potentzial handia du, eta Aiako Harria Parke Naturalarekin lotzen duen "korridore ekologikoa" ere bada. Horregatik, eta antolaketa, berritze eta balioztatze beharrak direla eta, aukeratu da lan-eremu hori.

Orotara, planaren espazioak gutxi gorabehera 330 hektareako azalera hartzen du, 2,3 kilometroko luzerako zerrenda eta 0,8 kilometroko zabalerako tartea betez. 2,7 kilometroko luzerako ibai-arroak Oiartzun ibaian du amaiera eta Aiako Harriko KBE eta Parke Naturalean jaiotzen da. Beraz, planaren mugak definitzen dute Oiartzun ibaiak iparraldean, Altamiralarreko isurialdee banalerroa mendebaldean eta GI-3631 errepideak, Parke Naturalaren mugak hegoaldean, eta Arraskularreko isurialdeen banalerroa eta Karrika-Oieleku landa-bideak ekialdean. Hala ere, inguruko ondare-elementuen inguruko informazioa ere barneratu da azterketa honetan.



2.2 PAISAIAREN BILAKAERA

Azken 70 urteetan paisaiak jasandako eraldaketak aireko argazkien bidez identifika daitezke. Hona hemen hautemandako garapenaren alderdi esanguratsuenak:

1946



Aipagarria da inguruaren landa-izaera. Altzibarren hiri-nukleo txiki bat eta Karrikan eraikin lerro bat besterik ez dago. Aldapa gutxieneko guneetako laborantzako lurren mosaikoak lurzoruaren nekazaritza erabilera adierazten du, bereziki, abereen elikadurarako lantzen dena.

Aldapa gehiagoko zenbait puntutan aipagarriak dira fruta-arbolek marraztutako ibilbideak, bereziki Bidasoro-Galbariomendin eta Aranburun. Arboladiak bereziki Arraskuelarre inguruan aurkitzen dira, gutxiago Altamiralarren, eta baita Galbariomendin eta Artikutzarako errepideko ibarrean ere.

Eragin negatiboari helduz, harrobia eta zamaketarako lekua aipagarriak dira.

1954



Gainerako elementuei gehiegi eragin gabe, eta landa-izaera mantenduz, aldaketa puntual esanguratsuak ikus daitezke. Altzibarko paper fabrika agertzen da (gaur egungo gune industrialean) eta Arraskularreko begetazioa desagertu dela ikus daiteke.

Trenbide zaharraren ibilbidea erraz antzeman daiteke, Altzibartik harrobirako eta Bidasorotik goi-ibilgurako tarteetan.

1983



Altzibarko hiri-hazkundea ikerketa-eremutik kanpo eta errepidetik gertu gertatu da gehienbat. Nahiz eta Karrika errekako ezker-hegalean eraikin ilara antzematen den (gaur egungo Done Petri Kalea), ibaiaren gainerako ingurua eraiki gabe dago. Karrikako auzoak duela 30 urte zuen osaera bera mantentzen du.

Paper fabrikaz gain, inguru horretan Errotaberri ondoko La Pitusako pabiloiak nabarmentzen dira, eta kontrako hegalean, enpresa industrial batek hartutako eraikin industrial handia (gaur egungo Cadarso). Jadanik izaera industriala zuen errekaren tarte zehatz horrek. Harrobian, naturalizazioari hasiera antzematen zaio, dagoeneko ez baitzen ustiatzen. Tentsio altuko bi linea elektrikoak antzematen dira begetaziorik gabeko kaleetan barrena (harrobiaren hegoaldean), baita dorreak ere (hegoaldetik igarotzen den lineetan bereziki).

Landa paisaian zelaiak gailentzen dira laborantzetako teselen kalterako. Basoetan, berriz, nabarmenak dira Arraskularrerako pisten ibilbideak eta Altamiralarren ikus daitezkeen pinudien orbanak.

1997



Garai honetan, zenbait tokitan zelaiak desagertu direla ikus daiteke, batez ere Karrika errekaren eta Oiartzun ibaiaren arteko loturan, eta Olaldeko eskuineko ibaiertzean. Horien ordez, eraikuntzarako materialen biltokia eta autoak desegiteko tokia agertu dira.

Cadarsoko inguruan, estalitako eremuak eta okupatutako zoruak handitu dira, eta gune berean ezarri den angula-haztegia antzeman daiteke. Paper-fabrika zaharreko pabiloiak eremu industrialak estali ditu Altzibarren. Eraikuntza horiek, jadanik erabileren eta behe-ibilguko paisaiaren degradaziorako joera erakusten dute.

Karrikan, alde bietara zabaltzen diren eraikuntza berriak agertzen dira, nukleo bat osatuz. Artaso ondoan angula-haztegi berri bat sortzen da. Arraskularreko landaketen eraginez zuhaiztiak handitzen dira. Zelaietako landaredia zakartzen ari da, sastrakadi bilakatuz. Horrek, laborantzaren eta sega-larreen gutxitzea adierazten du.

2001



Cadarso empresa hazten doa, ibaiertzetako eremua okupatuz. Harrobiak, aldiz, berreskurapen naturalaren zantzuak erakusten ditu. Karrikan, eskuin-hegala urbanizatu egin da, etxe elkarri atxikien eta Artasoko kirol-instalazioak (pilotalekua eta probalekua) direla eta.

2015



Altzibarren, Ugarteolako zubiaren ondoko eraikuntza-materialen biltegia desagertu da, eta aparkaleku batek eta zelaiak hartzen dute haren lekua. Auzo honetako eskuineko ibaiertza asko aldatu da, bereziki Olaldeko etxebizitzen eraginez (eraikinak, bideak eta eremu berdeak), eta zelaiak eta autoak desegiteko tokia ordezkatuz. Errotaberri inguruaren degradazioa antzematen da, baita harrobi zaharrarena ere; azken horretan, gainera, aurreko urteetan antzemandako berreskurapen naturala eten egin da, bertan garabiak eta eraikuntzarako materialak pilatzeko eremua agertzen baitira.

Karrikan dentsitate baxuko etxebizitza-gunea zabaldu da eta Bidasoroko inguruan etxebizitza-eraikin berria garatu da. Gainera, herrigunearen ondoan, baserri lanetarako pabiloi handia agertu da. Zuhaiztiak indartu dira, batez ere Arraskularren, Altamiralarren eta Artikutzarako errepide azpian dauden ibarretan. Aranburu inguruko fruta-arbolen garapena antzeman daiteke.

2.3 PAISAIAREN EGITURA FORMALA

2.3.1 Geologia

Oiartzun Bortzirietako Mendigune Paleozoikoan kokatzen da, eta bertan, bi egitura desberdintzen dira: Aiako Harria eta material metamorfikoen koroa. Aiako Harrian, Euskal Herriko arroka igneoen azaleratze bakarra eratzen da. Inguruan, gehiago ala gutxiago metamorfizatu diren material zerrenda ikus daiteke, kilometroko zabalerakoa eta Deboniar-Karbonifero aroetakoak diren mendiguneko material zaharrenez (arbel, harearri eta konglomeratuz) osatuta. Iparralderago, hareharriak eta Behe-Kretazeoko buztinak agertzen dira, material zaharragoen inguruan: hareharriak, limonitak eta konglomeratuak (Permotriak), igeltsuzko buztinak eta ofitak (Keuper-rak) eta kalizak (Jurasikokoak). Material modernoenak kuaternarioko metaketa detritikoak dira, Oiartzun ibaiari lotutako jalkinen metaketei lotutakoak.

Karrika erreka Aiako Harriko mendiguneko arroka igneoetan jaiotzen da, eta goi-ibilguan arroka metamorfikoak zeharkatzen ditu, erliebe zakar eta malkartsua eratuz. Arroka hauetan lur azidoak sortzen dira.

Kuaternarioko metaketen iragatean, hareharriak, konglomeratuak eta Behe Kretazikoko buztinak zeharkatzen ditu, erliebe lauena osatuz. Jatorri sedimentarioko arroka horiek lur azidoak eragiten dituzte.

Oiartzungo jatorri bolkanikoko arroka bakarrak ofitak dira eta Karrika inguruan daude: Altamiralarre azpian, hain zuzen ere. Bertako harrobian errepide eta bideetarako zoru gisa erabiltzeko esplotatu ziren. Arroka gogorrak dira eta aurreko kasuetan bezala, lur azidoak eragiten dituzte.



Ikerketa-eremua kokatzen da Ekialdeko erliebeak izeneko ingurune morfodinamikoan kokatzen da. Mendiko behe-erdialdeko erliebe zakarra gailentzen da bertan, ibai sarearen eta kostaren gertutasunaren eraginez.

Lau Unitate Geomorfologiko bereizten dira:

- Mendi-hegal sistema: ikerketa-eremuaren osotasuna hartzen du, eta hiru ataletan bana daiteke, aldaparen arabera:
    - Mendia: malda handiko hegalak (% >30)
    - Mendixka: malda ertaineko hegalak (% 10 <m<% 30)
    - Muinoa: malda leuneko hegalak (m<% 10)

- Ibai-sistema: gainazaleko uren mugimenduak eragindako prozesu dinamikoak ezaugarritzen du. Hainbat unitate bereizten dira:
    - Ibilgua: egoera arruntean ibaiko urak egiten duen bidea.
    - Uholde-lautada: kanalaren edo ibilguaren ondoko ibai-harana. Ibaiak metatutako sedimentuz osatua eta urak gainezka egiten duenetan estali egin daitekeena. Hemen kokatzen dira Oiartzungo hirigune gehienak.
    - Terrazak: haranaren hondoko lurraldea, nahiko laua eta hegal maldatsuak nahiz erliebea osatu aurretik metatutako ibai jatorriko sedimentuen ezpondak.



Interes geologikoa duten eremuak

Eusko Jaurlaritzak gauzatutako Interes Geologikoa duten EAEko Lurraldeen (LIG) inbentarioan, honakoak hautematen dira:

LIG 71 – Oiartzun ibaiko terrazak:

Ibai-terrazak Oiartzun ibaiaren Keuper pilaketetako metaketa bizkorrak sortutako sedimentuak dira. Gaur egungoarekin alderatuz, hainbat altueratako 4 terraza-maila mantentzen dira:

- 4. Terraza: 20-22 metro.
- 3. Terraza: 10-12 metro.
- 2. Terraza: 3-5 metro.
- Gaur egungo terraza: 0-2 metro.

Azaleratzeen zatirik gehiena Ugaldetxo eta Ergoien inguruetan agertzen da, eta Altzibar inguruan ere antzeman daiteke. Behaketa puntu egokienak Arditurriko bidegorrian zehar kokatzen dira. Inbentarioaren arabera, LIG-ak interes geomorfologiko handia eta interes estratigrafiko/sedimentario ertaina ditu.

Eremu honen ezaugarriak honakoak dira:

Aro estratigrafikoa	Plio-Kuaternarioa	*Irsigarritasuna*	Ona
Ezaugarr- mota	Geomorfologikoa	*Hauskortasuna*	Ertaina
Interes-mota	Zientifiko-Didaktikoa	*Balorazioa*	Ertaina
Interes-maila	Lokala		

Galbariomendiko koral-arrezifea

"Oiartzun haranaren geologia" (Torres, 1998) liburuan zehazten denez, Karrikako Bidasoro dorretxearen parean, eraikuntza-materialak sortzeko kolore arrosako arroka kalizen harrobia egon zen Erdi Arotik aurrera. 120 milioi urteko antzinatasuna duen aztarnategi hau, Kretazikoan zehar sortu zen, Oiartzun haraneko zatirik handiena oraindik itsaso epel eta tropikalaren azpian zegoen bitartean. Aipatutako aroan (Aptiar-Albieniarra) Gipuzkoan eta Bizkaian zehar koral-arrezife handiak sortu ziren, koral-hesiak eratuz. Galbariomendiko muinoa hesi horien parte izan zen, hau da, euskal koral hesien ekialdeko zatia osatzen zuen. Nabarmena da koralen, moluskuen eta kaltziozko algen hondar fosilen presentzia.

Arroka bolkanikoen meategiak (Ofitak)

Ofitak dira Oiartzungo arroka bolkaniko bakarrak eta Karrikako harrobiaren inguruan (Ofitako harrobia) daude, Artikutzara doan errepidearen ondoan. Nahiz eta arroka hauek jatorri bolkanikoak duten, ez ziren erupzioetatik sortu. Izan ere, duela 200 milioi urte lurzoruaren barnetik igo ziren, pitzaduretan eta lakolitoetan barrena, baina ez ziren iritsi harana guztiz estaltzen zuen ozeanoko zorura iritsi. Beste ofita-azaleratze puntu batzuk ere badaude, Altamiralarren eta Galbariomendin. Ofita batzuetan epidota deitzen den mineral berde eta distiratsu batez osatutako kristal txikiak agertzen dira



2.3.2 Erliebea eta maldak

Planaren eremua Karrikako bailararen behe-ibilguan kokatzen da; bertan, 25 eta 200 metro bitarteko terrazak eta alubioi-lautadak eratzen dira. Erliebea nagusiki laua da haranaren hondoan, ia % 5eko maldak ditu eta ibaiaren ibilgutik aldendu ahala, maldak handituz doaz, goi ibilguan muinoak eta mendixkak osatzeraino.

Paisaia horretan, aipagarriak dira Altamiralarre (178 m) eta Arraskuelarre (201 m). Horien eraginez, behe-ibilguan, Altzibarren Oiartzun ibaiarekin elkartu aurretik, harana estutu egiten da, arroila osatuz. Bi muino horiek mugarri dira paisaian, oso ikusgarriak, bai ikerketa-eremutik, bai eremuaren iparraldeko mugetatik. Era berean, Karrika auzoko Galbariomendi (116 m) ere aipagarria da.



2.3.3 Hidrografia eta hidrologia

a) Karrika erreka eta bere arroa

Karrika erreka Oiartzun ibaiaren arroan dago, eta Sarobe, Arditurri eta Bakarraiztegiko errekekin batera, bertako ibai-adar nagusia da. Oiartzun ibaiko arroak 72 km^2 ditu eta ia osorik Oiartzungo udalerrian dago kokatua; izan ere, arroaren zati txiki bat Errenterian kokatzen da.

Karrika edo Zorrola erreka Bunanagirre-Zaria mendietan jaiotzen da, hau da, 550-600 metroko altueran, eta Oiartzun ibaiarekin elkartzen da Karrika eta Altzibar auzoak igaro ondoren, itsasoaren mailarekiko 25 metroko altueran. Ibilbidearen zatirik handiena, hau da, 6 kilometro, granito eta arbelak bezalako material gogorren gainetik egiten du, Karrika auzorako bidean erliebe zakar eta maldatsua sortuz. Tarte horretan nagusiak dira baso-eremuak, bereziki pagadiak eta hariztiak, eta osoki Aiako Harria KBEren eta Parke Naturalaren barnean sartzen da. Behe ibilguan, maldak leundu egiten dira, material konglomeratuen, hareharrien eta ibai metaketen gainetik pasatzean. Hemen alubioi lautadak agertzen dira eta inguru industrial eta hiritarrak kokatzen dira; era berean, landazabaleko paisaia agertzen da. Tarte hori da, hain zuzen ere, Paisaiarako planaren ardatza.

958 hektareako azalera duen arro hori, honako mendi eta gailurrek mugatzen dute: Arraskuelarre, Gainzabal, Pagoagalarre, Arritxurieta, Basateko kaskoa, Agiñeko kaskoa, Munagirre, Kausorogaña, Zaria, Otraitz, Usategieta, Elorrieta, Oteitz eta Altamiralarre (ordulariaren orratzen norabidean).

b) Ibaiaren habitataren kalitatea

Uraren kalitateari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien egoera kimikoaren jarraipen-sareak argitaratutako datuek, orokorrean, baldintza fisiko-kimiko "onak" adierazten dituzte 2015eko Oiartzungo masari dagokionez, baita salmonidae eta cyprinidae espezieentzako baldintzen kasuan ere. Artsenikoa, kobrea, selenioa, zinka eta fluoruroak aurkitu dira, baina arauek zehaztutako mugen azpitik.

Hala ere, lagin gisa erabilitako hiru puntuak ezin dira Karrika errekaren isla orokor gisa hartu. Izan ere, hiru puntuak bertatik oso urrun daude eta puntuetako urek iturri kutsatzaileen eragina jasaten dute, besteak beste, Arditurriko meategiena.



Iturria: URA

Bestalde, egoera ekologikoari dagokionez, 2015an Oiartzun ibaiaren uren egoera "eskasa" zen, eta 2011-2015 bosturtekoan "neurrizkoa". Ondorioz, ez da betetzen Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoak (2015-2021) ezarritako helburu ekologikoa, Uraren Esparru Zuzentarauak (UEZ) ezarritakoa. Helburu horren arabera, 2021. urtean urek "Egoera ekologiko eta kimiko ona" lortu behar dute. Gainera, aurreko urteekiko egoera txartu dela antzematen da, izan ere, aurreko urteetan egoera ekologikoa "neurrizkoa" baizen. Gutxien baloratutako ezaugarriak fito-bentosa eta ornogabe handien komunitatea dira. Aldiz arrainek, kalitate ona dute, eta adierazle fisiko-kimikoek noizbehinka kalitate gorena lotzen dute, eta kalitate helburua betetzen dute.



Iturria: URA

Laginetarako erabilitako hiru estazioei dagokienez, Oiartzun ibaiko goi-ibilgukoak ditu emaitza onenak, eta Karrika ubidearen azpiko urek, aldiz, kaskarragoak. Uraren kalitatearekin gertatu bezala, laginek ez dute Karrika ubidea ordezkatzeko balio.

Masa	Estación	Indicador	2011	2012	2013	2014	2015
Oiartzun-A	OIA102	Macroinvertebrados	Bueno	Bueno	Moderado	Moderado	Moderado
		Fitobentos	Moderado	Moderado	Bueno	Bueno	Deficiente
		Fauna Piscícola	Bueno	Bueno	Bueno	Bueno	Bueno
		Estado biológico	Moderado	Moderado	Moderado	Moderado	Deficiente
		Fisicoquímica	Bueno	Bueno	Muy Bueno	Muy Bueno	Bueno
		Hidromorfología	<Muy Bueno	<Muy Bueno	<Muy Bueno	<Muy Bueno	<Muy Bueno
		Estado ecológico	Moderado	Moderado	Moderado	Moderado	Deficiente

Iturria: URA

Arrainen komunitatea nahikoa konplexua da ibilbide osoan zehar, migratzaile handiak, izokina (*Salmo salar*) eta ankilak (*Anguilla anguilla*), hiru estazioetan aurkitu dira. Ezkailuaren (*Phoxinus bigerri*) presentzia ere aipagarria da hiru estazioetan, baita amuarrainarena (*Salmo trutta fario*) ere. Baina ez da unitate hidrologiko guztian agertzen den espezie hidrologikorik hauteman.

Ibaiertzeko begetazioari dagokionez, 2011n [1] URAk QBR indizearen bidez gune natural eta urbanoan egindako ikerketan Karrika ubidea aztertu zen. Indize honetan tarte batean ibai-ibilbidearen lau alderdik dituzten balioak aztertzen dira: ibaiertz eremuko begetazioaren estalki-maila (estaldura eta lotura balioetsiz), landarediaren egitura (zuhaitz eta zuhaixken bataz besteko estaldura), estalduraren kalitatea (konplexutasuna eta sistemaren naturaltasuna), eta ibaiaren kanalaren naturaltasun-maila (presak, kanalizazioak, azpiegiturak, etab. egotea kontuan hartzen da). Ikerketaren helburua da zehaztea EAEko ibaien zein tarte birlandatu behar diren, erriberako arboladien kalitatea hobetze aldera. Era berean, Plan Hidrologikoko bi denbora mugetan (2015 eta 2021) lan horiek izango duten gutxi goraberako kostua estimatzea du helburu.

Karrika errekan aztertutako 5 tarteetan hurrengo hau ondorioztatze da: goi-ibilguan (ia orotara Aiako Harriko KBEaren barruan kokatuta) kalitate-indize "Ona" ezarri da; behe-ibilguko lau tarteetan

[1] EAEko erriberen birlandatze-ekintzetan ezarritako lehentasunak. 2011ko maiatza.
[2] Beste iturri batzuetan, 400 kV egozten zaizkio linea horri, eta, 132 kV beharrean, 220 kV egozten zaizkio gero aipatutakoari.
[3] Txosten hau amaitu den egunean (2017ko apirilean), enpresak oraindik ez ditu instalazioak guztiz utzi. Hala ere,

(Paisaiarako planaren eremuan kokatzen direnak), aldiz, indizea “Neurrizkoa”, “Eskasa” edo “Txarra” da. Orokorrean, emaitza kaskar horiek begetazio estalkiaren faltak eragiten ditu; izan ere, ibaiaren kanalak natura maila ertain edo altua du, Altzibarko tarte urbano edo industrialean izan ezik, non ubidea bideratua izan den. Emaitza horien arabera, eta kontuan hartuta desagertzeko arriskuan dauden animalia espezieentzako gune berezia dela (bisoi europarra, muturluze piriniarra, besteak beste), ikerketak adierazten du lehentasunezkoa dela errekaren 2,36 kilometroko tartean birlandaketak egitea, hain zuzen ere, Cadarsotik Aiako Harria KBEko sarreraraino. Horretarako, 57.941 euroko kostua aurreikusten da 2021 urterako. Era berean, garrantzitsua deritzo Altzibar auzoaren parean Oiartzun ibaiko erriberak birlandatzea (hau ere Paisaiaren planaren eremuan txertatua).



QBR Indizea (– Ona, – Neurrizkoa, – Eskasa, – Txarra)



Birlandaketarako lehentasuna (–1, –2, –3, –4)

c) Uholde-arriskua

Uholde-arriskuen mapak 10, 100 eta 500 urteetako uholdeen guneak zehazten ditu: arriskurik handiena Altzibar auzoak eta Karrika errekaren eta Oiartzun ibaiaren arteko lotura-guneak jasaten dute. Puntu horietan, 10 urteko tartean oraindik urbanizatu gabeko ibaiaren terrazak hartzen ditu, baina 100 urteko tartean eraikin batzuk dituzten guneei erasaten die.

Hain justu, *2015-2021 Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana*k Altzibarren Uholde Arrisku Handiko Eremua (UAHE) antzeman du. Eremu horretarako ikerketa zehatz bat egin da, aztertzeko zeintzuk diren arriskuaren zergatiak, arrisku potentzialak eta eremuaren problematika berezia. Kudeaketa Planaren azterketari jarraiki, uholdeen arrazoi nagusiak Oiartzun eta Karrika ibaietan kokatutako hiru egitura dira: Ugarte zubia (A), Artikutzako trenbide zaharraren oinezkoen bidea (B) eta Altzibarko gune industrialean dagoen zubia (C).

Orokorrean, alubioi-lautada hartzen duen tartea 100 urteko errepikatze-denborakoa da. Metrotik gorako ur pilatzeak eraikinen bat duten eremuetan gertatzen dira tarteka, baina ez T100ak erasandako eremu osoan. Hala ere, abiadurak segundoko metroa baino gutxiagokoak dira.



Kudeaketa planak UAHE III lehentasuneko taldean kokatzen du, hau da, arrisku esanguratsua dutenen taldean.



Iturria: URA

d) Ur-puntuak

Planaren eremuan 8 ur-puntu kartografiatu dira. Horietatik lau gainazaleko bilketak dira, hiru Karrika ubidean eta bat Oiartzun ibaian. Beste lauak ikerketa-eremuan zehar banatuta dauden iturburuak dira. Iturburuetako bat La Pitusa fabrika zaharrean dago eta mahaiko ura eta gaseosa ekoizteko erabiltzen zen; gaur egun ez da erabiltzen.

ID	MOTA	IZENDAPENA	ERABILERA	ERAKARTZEKO ERA	OHARRAK
1	Gainazaleko bilketa	Oiartzun	-	Bonba zuzena	
2	Iturburua	Pitusa/Santa Clara/ Errota-Berri	Jarduera industriala	Besterik	Santa Clara erabilera industriala (gaur egun ez du erabilerarik)
3	Gainazaleko bilketa	Karrika	-	Presa eta kanala	Eraitsia
4	Gainazaleko bilketa	Alzibar edo Karrika	-	Presa eta kanala	
5	Gainazaleko bilketa	Karrika	-	Presa eta kanala	
6	Iturburua	Zinkunegi	Herriko horniketa	-	
7	Iturburua	Gartxineko Erreka	Abeltzaintza	-	
8	Iturburua	Beartzana	Herriko horniketa	-	

Zerrenda honetan aipagarria da Bidasoro errotako behe-ibilguko iturburua, errekaren eskuineko ertzean, iturri gisa gaitua eta biztanleek asko erabiltzen dutena.



2.3.4 Landaredia eta habitatak

a) Landaredi potentziala

Landarediaren banaketa, orokorrean, erliebeak, litologiak eta sare-hidrografikoak zehazten dute. Giza eraginik gabe, haranaren hondoan tarteka uholdeak jasandako Kantauriko haltzadia zabalduko litzateke eta gainazalaren zatirik handiena hartuko lukeen harizti azidofiloa eta baso atlantiko mistoa, muinoak eta altuera gutxiko haranak estaliz. Altuera gehiagoko eremuetan, pagadi azidofiloa eta zenbait eremutan, ametza agertuko lirateke. Atxikitako planoan, GeoEuskadik bildutako landaredi potentziala zehazten da eta zehaztapen falta nabaria dago ibaiaren ibilbidearen eta irudien artean.



b) Gaur egungo landaredia eta zoruaren erabilera

Gaur egun, paisaiarako ekintza planaren ikergai den eremua landa-munduari lotutakoa da gehienbat. Erabilera nagusiak abeltzaintza eta nekazaritza (fruta-arbolak, baratzeak, larreak, etab.) nahiz baso-ustiapena dira, esparruaren % 77 hartzen baitute. Eremu urbanoak bi nukleo nagusien (Altzibar eta Karrika) inguruan ardazten dira eta komunikazio-azpiegiturekin batera, esparruaren % 17 hartzen dute.

LURZORUAREN ERABILERAK		GAINAZALA (HA)
KOD.	**Deskribapena**	
PR	Sasi-bazkalekuak	3,81
PS	Bazkaleku handiak	27,15
AG	Lurrazalak eta ur-korronteak	1,76
FY	Fruta-arbolak	6,54
CA	Bideak	0,55
PA	Arboladia duten larreak	0,37
IM	Eremu antzuak	8,09
TH	Baratzeak	0,17

ED	Eraikuntzak	0,07
ZU	Inguru urbanoak	8,53
FO	Arboladiak	38,88
TA	Landu daitezkeen lurrak	3,39
GUZTIRA		**99,30**

Iturria: SIGPAC 2016ren datuen arabera sortua

Giza erabilerek asko aldatu dute landarediaren banaketa. Bazkalekuak eta larre atlantikoak nagusi dira, lurrazal lauen zatirik gehiena hartzen dutenak, baita baso-eremuak ere, bai landatuak (gehienak *Quercus Rubra*) bai naturalak (*Quercus robur* harizti azidofiloa eta baso mistoa). Transiziozko landaredia ere agertzen da zenbait puntutan, esaterako otadiak eta txilardiak. EUNIS habitaten kartografiari jarraiki, Kantauriko haltzadia soilik Bidasoro (Artaso) zubiko goi-ibilguko zenbait tarteetan agertzen da. Eremu urbano eta industrialen inguruan, landaredia belarkara nitrofiloa eta parke eta lorategietako landaredia dira nagusi.



c) Naturarentzat eta paisaiarentzat interesa duten landaredia formazioak

Sail honetako landaredia formazioetan, hiru dira nagusi. 94/43/CEE Habitaten Zuzentarauen arabera, horietako bik Batasunaren Intereseko Habitatak dira, eta bestea, *Quercus robur* hariztia, eskualdeko mailan interesa duen formazioa, hain zuzen.

- *Alnus glutinosa* y *Fraxinus excelsior* ibarbasoak (91E0* Batasunaren Intereseko Habitata)

Haltza (*Alnus glutinosa*) nagusi den ibaiertzeko arboladietan, zuhaixkak eta landare belarkarak agertzen dira tarteka. Alubioi -autadako putzuetan garatzen diren habitatak dira.

Lehentasunezko habitata da, giza ekintzek ezabatutakoa edo aldatutakoa. Soilik EAEko lurrazaleko 4.530 hektarea hartzen ditu. Ikerketa-eremuan, 2 hektareako eremua kartografiatu da, Bidasoro zubiko goi-

ibilguko tartean, nahiz eta ezin den 91E0* habitatak gainazala guztiz estaltzen duenik esan, platano eta akaziaz osatutako guneak ere badaudelako. *Reynoutria japonica* bezalako espezie inbaditzaileak eremutik kanpo daude, goi ibilguan (Zorrola zubian) baina zabaltzeko arriskua dago. Nolanahi ere, beharrezkoak lirateke ibarbasoa berreskuratzeko lanak ikerketa-eremuan, habitat honen kontserbazio egoera hobetze aldera.

- Altitude baxuetako sega-belardi txiroak (6510 Batasunaren Intereseko Habitata)

Sega-belardiak urte osoan zehar berde mantentzen diren landare-fomrazioak dira eta landazabal atlantikoko paisaiaren bereizgarri dira. Kantauriko landazabaleko paisaiaren funtsezko osagaia da, baserri tradizionalaren bizimoduaren ondorioa, abeltzaintza eta nekazaritza elkartzen dituena, hain zuzen.

EAEko habitat zabalduena da (50.000 hektarea baino gehiago kartografiatu dira), nahiz eta Natura 2000 Sareko eremu osoaren % 3 besterik ez hartu. Ikerketa-eremuan, 36 hektarea baino gehiago hartzen ditu eta Karrikako bailararen adierazgarri da, muinoen zatirik handiena eta malda txikiko mendi-magalak (urbanizatutakoak salbu) hartzen dituela.

- Harizti azidofiloko basoak eta formazioak, eta baso mistoa



Quercus robur nagusitzen den harizti azidofiloko guneak ere interes handikoak dira, landaredia potentzialaren hondarrak direlako eta fauna mantentzen laguntzen dutelako. Sega zelaiekin eta bertako espezies osatutako heskaiekin batera, landazabal atlantikoko paisaia osatzen dute.

Bestalde, Oiartzungo Udalak gauzatutako Herria Antolatzeko Plan Orokorreko ingurugiroaren azterketaren arabera, harizti azidofiloa edo Karrikako baso-mistoa berreskuratze eta mantentze mailaren araberako aberastasun taxonomikoagatik **interes altuko baso** gisa identifikatu da. Baso hori 40 taxonek baino gehiagok osatzen dute, eta materia organiko baxuko nahiz konplexutasun handiko (taxon kopuruagatik berreskurapen gaitasun handia baitu) eremua da. Azterketa horren kartografian, Karrika auzoko goialdeko baso eremuetan kokatzen da interes altuko baso hori.

Batasunaren intereseko beste bi habitat eremu txiki ere badaude Paisaiarako planaren eremuan:

- Txilardi lehor azidofiloak (KOD. 4030): 1,6 hektarea hartzen dituzte.
- *Castanea sativa* basoak (KOD. 9260): 900 m^2-ko zabalera Arraskuelarreko eskuin-hegalean.

Gaztainadiak eta harizti amerikarrak Arraskuelarren.

Otadiak, iratzeak eta txilardiak Arraskuelarren.



d) Mehatxatutako landare-espezieak

Nahiz eta ikerketa-eremuan ez den landaredia mehatxaturik adierazi, agertzen diren landaredi-komunitateen arabera, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan agertutako zenbait landare egon daitezkela ondorioztatu daiteke:

- <u>Arraroak:</u>

  - *Soldanella Villosa*: landare belarkara hau endemismo bat da, Pirinioen mendebalde-hegalean, Gipuzkoan, Lapurdin eta Nafarroan nahiz Kantauriko mendien ekialde hegalean zehar bakarrik zabaltzen dena. Erreka mehartutako erreka ertzetan bizi da, oso leku heze eta ilunetan, 70 eta 700 metro arteko altueran. Era berean, Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean dago (Babesteko Eremu Bereziak izendatzea beharrezkoa da Batasunaren intereseko espezie hauek kontserbatzeko).

  - *Saxifraga clusii*: 5 eta 30 cm bitarteko belar bizikorra da. Gipuzkoako populazioak Berastegiko eta Oiartzungo udalerrietan kokatzen dira, hau da, espeziearen distribuzio-ereuaren mendebaldeko mugetan, eta altuera baxuetan daude kokatuak. Populazio txikiak dira, eta

erreken inguruan eta iturburuetan daude, sustratu silizeoetan eta hezetasun handiko giroetan, hain zuzen.

- Interes berezikoak:

  - *Ilex aquifolium* (gorostia): zuhaixka dioikoa da, eta 10 metroko altuera lor dezake. Pagadien, baso-mistoen, hariztien nahiz artadien oihanpean hazi daiteke eta Oiartzunen nahiko ugaria da.

  - *Narcissus bulbocodium*: belar bizikorra, lurrazpian erraboil txikia duena. Bizkaiko golkoko endemismo interesgarria da. Larreetan, erlaitzetan, ihitegietan eta hezetasun edafikoko txilardietan hazten da, eta itsas mailatik hasiz, 1.300 metroko altueraraino irits daiteke.

e) Flora exotiko eta inbaditzailea

Flora inbaditzaile espezieen artean, aipagarriak dira ibaiertzetan era espontaneoan bertako landaredia ordezkatuz agertzen den sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*) eta bide-ertzetan eta ibaiertzetan deliberatuki landatu den platanoa (*Platanus x hispánica*).



Robinia pseudoacacia Altzibarko Karrika ubideko ibaiertzak kolonizatzen ditu.



Platanus hispanica errekaren ibilbideko hainbat puntutan agertzen da ilara bat osatuz.

Budleja davidii eta *Fallopia japonica* espezieak ere hauteman da, nahiz eta bigarrena azterketa eremutik kanpo egon, goi-ibilguan, hain zuzen. Bi *Cortaderia selloana* ere hauteman dira, bat Olalde zubiaren ondoan, eta bestea, Karrika auzoan

Azken hiru espezieak eta sasiakazia A kategoriako Espezie aloktono eraldatzailetzat jo zituen Eusko Jaurlaritzak "EAEko flora aloktono inbaditzailearen diagnosia" 2008ko ikerketan; hau da, inbaditzen dituzten ekosistemetan aldaketak sortzen dituzten espezieak. Platanoa, aldiz, B kategoriako-Espezie aloktono inbaditzailea da.

Ibaiertzaren tarte batzuetan kanabera (*Phyllostachys sp.*) ugari ageri da, eta nahiz eta ez den espezie inbaditzailetzat hartzen, ibaiertzeko landaredi tarte askotan aurki daiteke.

Phyllostachys sp.

Karrikan *Cortaderia selloana*.

2.3.5 Fauna

a) Planaren eremuko fauna-komunitateak

Fauna-komunitateak inguru bateko habitaten arabera definitzen dira. Ikergai dugun eremuan dauden habitat eta landare-komunitate nagusiak oinarri harturik, fauna-komunitate hauek bereizi daitezke: hariztirekin eta baso mistoarekin lotutakoak (hariztiak), ibaiko habitatekoak (ibaia), larre-mosaiko, zelai, zuhaizti eta landaresikoak (landazabala), eta basoko-landaketetakoak.

Hurrengo taula honetan, espezie nagusiak biltzen dira fauna-taldeetan banatuta, eta habitatak zein Espezie Mehatxatuen EAEkol Katalogoaren (EMK) eta Habitat eta Espezieen Zuzendaritzaren eranskinen araberako babes-maila adieraziz. EMKann aipatutako espezieak azpimarratu dira bereziki.

Izen zientifikoa	Gaztelera	Euskara	Habitat-mota	EMK	Habitat/Hegazti Zuzentarau a
ARRAIAK					
Anguilla anguilla	Anguila	Ibai aingira	Ibaia		
Phoxinus phoxinus		Ezkailua	Ibaia		
Salmo trutta fario	Trucha común	Amuarraina	Ibaia		
ANFIBIOAK					
Alytes obstetricans	Sapo partero común	Txantxiku arrunta	Hariztia, ibaia		IV Eranskina
Bufo bufo	Sapo común	Apo arrunta	Hariztia, ibaia		
Rana perezi	Rana común	Ur-igela	Ibaia		V Eranskina
Rana temporaria	Rana bermeja	Igel gorria	Hariztia		V Eranskina
Salamandra salamandra	Salamandra	Arrabioa	Hariztia, ibaia, baso-landaketak		
Triturus helveticus	Tritón palmeado	Uhandre palmatua	Landazabala		
NARRASTIAK					
Anguis fragilis	Lución	Zirauna	Hariztia, baso-landaketak		
Zamenis longissimus	Culebra de Esculapio	Eskulapioren sugea	Hariztia	IB	IV Eranskina
Coluber viridiflavus	Culebra verdiamarilla	Suge berde-horia	Hariztia		
Coronella austriaca	Culebra lisa europea	Iparraldeko suge leuna	Landazabala		IV Eranskina
Lacerta viridis	Lagarto verde	Musker berdea	Hariztia		
Natrix maura	Culebra viperina	Suge biperakara	Ibaia		
Natrix natrix	Culebra de collar	Suge gorbataduna	Ibaia		
Podarcis muralis	Lagartija roquera	Horma-sugandila	Baso-landaketak		IV Eranskina
Vipera seoanei	Víbora de Seoane				IV Eranskina
UGAZTUNAK					
Apodemus sylvaticus	Ratón de campo	Basasagua	Hariztia, baso mistoa, baso-landaketak		
Capreolus capreolus	Corzo	Orkatza	Hariztia		
Clethrionomys glareolus	Topillo rojo	Lursagu gorria	Hariztia		
Crocidura russula	Musaraña gris	Satitsu arrunta	Baso-landaketak, landazabala		
Crocidura suaveolens	Musaraña de	Baratz-satitsua	Landazabala		

	campo				
Eptsicus serotinus	Murciélago hortelano	Baratz saguzarra	Landazabala	IB	IV Eranskina
Erinaceus europaeus	Erizo común	Triku arrunta	Landazabala		
Felis sylvestris	Gato montés	Basakatua	Hariztia	IB	IV Eranskina
Galemys pyrenaicus	Desmán ibérico	Muturluze piriniarra	Ibaia	GA	II/IV Eranskina
Genetta genetta	Gineta común	Katajineta	Hariztia		V Eranskina
Glis glis	Lirón gris	Muxar grisa	Hariztia		
Martes foina	Garduña	Lepazuria	Landazabala		
Meles meles	Tejón común	Azkonarra	Hariztia		
Micromys minutus	Ratón espiguero	Uzta-sagua	Landazabala		
Microtus agrestis	Ratilla agreste	Larre-lursagua	Landazabala		
Microtus lusitanicus	Topillo lusitano	Lursagu lusitaniarra	Landazabala		
Microtus pyrenaicus	Topillo pirenaico	Satain piriniarra	Landazabala		
Miniopterus schreibersii	Murciélago de cueva	Schreibers saguzarra	Landazabala	K	II/IV Eranskina
Mus musculus		Etxe-sagua	Landazabala		
Mustela lutreola	Visón europeo	Bisoi europarra	Ibaia	GA	II*/IV Eranskina
Mustela nivalis	Comadreja	Erbinudea	Landazabala		
Mustela putorius	Turón común	Ipurtatsa	Ibaia	IB	V Eranskina
Myotis daubentonii	Murciélago ribereño		Ibaia, hariztia, landazabala	IB	IV Eranskina
Myotis myotis	Murciélago ratonero grande	Arratoi belarri-handia	Hariztia, landazabala	K	II/IV Eranskina
Neomis fodiens	Musgaño patiblanco	Ur-satitsu hankazuria	Ibaia		
Nyctalus leisleri	Nóctulo menor	Gau saguzar txikia	Hariztia, landazabala, baso-landaketak	IB	IV Eranskina
Oryctolagus cuniculus	Conejo común	Untxia	Landazabala		
Rattus norvegicus	Rata común	Arratoi beltza	Landazabala		
Rattus rattus	Rata campestre	Arratoi arrunta	Landazabala		
Rhinolophus euryale	Murciélago mediterráneo de herradura	Ferra-saguzar mediterráneo	Landazabala	GA	II/IV Eranskina
Rhinolophus hipposideros	Murciélago pequeño de herradura	Ferra-saguzar txikia	Hariztia	K	II Eranskina
Sciurus vulgaris	Ardilla común	Katagorria	Baso-landaketak		
Sorex coronatus	Musaraña de Millet	Millet satitsua	Hariztia		
Sorex minutus	Musaraña enana	Satitxu txikia	Hariztia		
Sus scrofa	Jabalí	Basurdea	Baso-landaketak		
Talpa europaea	Topo europeo	Sator arrunta	Landazabala		
Vulpes vulpes	Zorro	Azeri arrunta	Hariztia, landazabala		
HEGAZTIAK					
Accipiter gentilis	Azor común		Hariztia	B	I Eranskina
Accipiter nisus	Gavilán común		Hariztia, baso-landaketak	IB	I Eranskina
Aeghitalos caudatus	Mito	Buztan luzea	Hariztia		
Alcedo athis	Martín pescador	Martin arrantzalea	Ibaia	IB	I Eranskina
Anthus trivialis	Bisbita arboreo	Uda-txirta	Landazabala		

Buteo buteo	Ratonero común	Zapelatza	Hariztia, landazabal		
Carduelis chloris	Verderón común	Txorru arrunta	Landazabala		
Caprimulgus europaeus	Chotacabras gris	Zata arrunta	Landazabala	IB	I Eranskina
Certhia brachydactyla	Agateador común	Gerri-txori arrunta	Baso-landaketak		
Cettia cetti	Ruiseñor bastardo	Erreka-txindorra	Ibaia		
Cinclus cinclus	Mirlo acuático	Ur-zozoa	Ibaia	IB	
Cuculus canorus	Cuco	Kukua	Landazabala		
Dendrocopos major	Pico mayo	Okil handia	Hariztia, baso-landaketak		
Dendrocopos minor	Pico menor	Okil txikia	Hariztia	IB	
Emberiza citrinella	Escribano cerillo	Berdantza-horia	Landazabala		
Erithacus rubecula	Petirrojo	Txantxangorria	Hariztia, baso-landaketak		
Falco peregrinus	Halcón peregrino	Belatz handia	Landazabala	B	I Eranskina
Falco tinunculus	Cernícalo vulgar	Zapelatz gorria	Landazabala		
Ficedula hypoleuca	Papamoscas cerrojillo	Eulitxori beltzarana	Landazabala	B	
Fringilla coelebs	Pinzón vulgar	Txonta arrunta	Baso-landaketak		
Garrulus glandarius	Arrendajo	Eskinosoa	Hariztia		
Hippolais poliglotta	Zarzero común	Sasi-txori arrunta	Landazabala		
Hirundo rustica	Golondrina común	Enara arrunta	Landazabala		
Jynx torquilla	Torcecuello	Lepitzulia	Landazabala	IB	
Lanius collurio	Alcaudón dorsirrojo	Antzandobi arrunta	Landazabala		I Eranskina
Milvus milvus	Milano real	Miru gorria	Landazabala, baso-landaketak	K	I Eranskina
Motacilla alba	Lavandera blanca	Buztanikara zuria	Ibaia		
Muscicapa striata	Papamoscas gris	Eulitxori grisa	Landazabala		
Motacilla cinerea	Lavandera cascadeña	Buztanikara horia	Ibaia		
Parus ater	Carbonero garrapinos	Pinu kaskabeltza	Baso-landaketak		
Parus caeruleus	Herrerillo común	Amilotx urdina	Robledal, campiña		
Parus cristatus	Herrerillo capuchino	Amilotx mottoduna	Baso-landaketak		
Parus palustris	Carbonero palustre	Kaskabeltz txikia	Hariztia		
Passer montanus	Gorrión molinero	Landa-txolarrea	Landazabala		
Pernis apivorus	Abejero europeo	Zapelatz listorjalea	Hariztia	B	I Eranskina
Phyrrhula phyrrhula		Gailupa	Hariztia		
Regulus ignicapillus	Reyezuelo sencillo	Erregetxo bekainzuria	Baso-landaketak	IB	
Serinus serinus	Camachuelo común	Txirriskil arrunta	Landazabala		
Sitta europaea	Trepador azul	Garrapoa	Hariztia		
Strix aluco	Cárabo común	Urubia	Hariztia		
Sturnus vulgaris	Estornino pinto	Arabazozo pikarta	Landazabala		
Sylvia atricapilla	Curruca capirotada	Txinbo kaskabeltza	Hariztia, baso-landaketak		
Sylvia borin	Curruca mosquitera	Baso-txinboa	Hariztia		
Troglodytes troglodytes	Chochín	Txepetxa	Hariztia,		

			baso-landaketak		
Turdus iliacus	Zorzal alirrojo	Birigarro txikia	Landazabala		
Turdus merula	Mirlo común	Zozoa	Baso-landaketak, lanazabala		
Turdus philomelos	Zorzal común	Birigarro arrunta	Baso-landaketak, landazabala		
Tyto alba	Lechuza	Ontza zuria	Landazabala		

***EMK**: IB- Interes Berezia; B- Bakanak; K- Kalteberak; GA- Galtzeko arriskuan daudenak.*
***Habitat Zuzentaraua:** I. Eranskina- Babesteko gordetze eremu bereziak izendatzea beharrezkoa den interes komunitarioko landare eta animalia espezieak; IV. Eranskina- Babes zorrotza behar duten interes komunitarioko landare eta animalia espezieak; V. Eranskina- Esplotazioa eta naturan biltzea kudeaketa neurrien helburu izan daitezkeen interes komunitarioko landare eta animalia espezieak.*
***Hegaztien Zuzentaraua:** I. Eranskina. Habitataren arabera, banaketa eremuan biziraupena eta ugalketa ziurtatuko duten babes-neurri bereziak behar dituzten espezieak.*

b) Fauna inbaditzaileko espezieak

Vespa velutina (liztor asiatikoa) aipatu behar da, Gipuzkoan gero eta ugariagoa baita.

c) Fauna-espezieentzako intereseko eremuak

Karrika errekaren ingurunea ibaiko habitataren kalitateagatik da nabarmengarria, baita bailaran mantentzen den landazabal atlantikoagatik ere. Horregatik, ibaietara lotutako espezieentzat esanguratsua da, adibidez muturluze pirinioarrarentzat edo bisoi europarrarentzat, baita zenbait kiropterontzat ere (nagusiki ferra-saguzar mediterraneoarentzat). Gainera, eremuak iparraldeko mugan hegazti nekrofagoen intereserako eta linea elektrikoen kontrako hegazti-faunaren babeserako gunea den Aiako Harria KBEarekin bat egiten du.

- Muturluze pirinioarraren (*Galemys pyrenaicus*) Kudeaketa Plana Gipuzkoako Lurralde Historikoan (2004-05-15 Foru Agindua; 2004-05-28, GAO 100. zk.)

Karrika erreka, Oiartzun ibaiko loturara arte, muturluzearentzat interes bereziko eremua da, zehazki ubidearen ertz bakoitzean zabaltzen den 100 metroko zerrendan. Horrek esan nahi du, ugalketarako edo babeserako erabilitako habitataren ezaugarriak aldatzea eragingo duen ekintza orok Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena jaso beharko duela. Era berean, espeziea gordetzeari eragingo dioten planak eta proiektuak, espeziearen babeserako helburuen inguruko eraginak egoki ebaluatzen direla ziurtatzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren pertzepzio-txostena pasa beharko du. Bestalde, ugalketarako aro kritiko gisa ezartzen da otsailaren 15a eta uztailaren 31a bitarteko tartea.

Planaren helburuak dira muturluzearen habitateko aldaketa geratzea eta sakabanatutako populuazioen arteko kontaktua erraztea, ibai-tarteen arteko lotura-ekologikoa bermatuz. Horretarako, besteak beste honako neurriak proposatzen dira Interes Bereziko Eremuetan:

- Sare hidrografikoaren mugarritzea osatzea.
- Dagokion organismoari ur-hondakinen isurtze baimenak eta uraren kontzesio-baldintzak bete daitezen eskatzea, edo espeziearentzat mehatxagarriak direnean aldatzea. Era berean, egoera legalak baimentzen duenean, baimenak eta kontzesioak deuseztatzea edo ezeztatzea.
- Ibai eta erreka ertzetan, 10 metroko zabalerako zerrendako nekazaritza-ingurumen konpromisoak eta ezarpen neurriak bultzatzea.

Gainera, orokorrean, kudeatze planak habitata eta bereziki, hazte lekuak, suntsitzea debekatzen du.

- Bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) Kudeaketa Plana Gipuzkoako Lurralde Historikoan (2004-05-12 Foru Agindua; 2004-05-28, GAO 100. zk.)

Planaren aplikazioari jarraiki, Karrika ubidea, bere osotasunean, bisoi europarraren Interes Bereziko Eremutzat hartzen da. Horren ondorioz, muturluzearen Kudeaketa Planean bezalaxe, babeserako edo ugalketarako erabilitako habitataren ezaugarriak aldatzea ekarriko duen esku-hartze orok, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena beharko du, eta baldintza berdinak ezarriko zaizkio proiektuen eta aro kritikoen tramitazioari.

Habitatari dagokionez, planaren helburuak babesa eta mantentzea dira, baita espeziearen banaketa-eremuan berrezartzera bideratutako ekintzak garatzea ere; horretarako, muturluzearentzat aipatutako antzeko neurriak proposatzen dira.

- Ferra-saguzar mediterraneoaren Interes Bereziko Eremua (*Rhinolophus euryale*)

Ikergai den eremu guztia hartzen da ferra-saguzar mediterraneoaren Interes Bereziko Eremu gisa; izan ere, Maidazulo haitzuloko (Txatola baserriaren alboan, Ugaldetxon) 5 kilometroko erradioa duen eremuan baitan dago kokatuta, hau da, espezie honetarako Kudeaketa Planaren zirriborroan zehaztutako lehentasunezko berreskurapen-aterpean. Dokumentuak habitata eta nekazaritza-abeltzaintza eremuak hobetzeko neurriak proposatzen ditu:

- Hosto erorkorreko sasiek inguratutako nekazaritza lursilak bultzatzea, egitura eta espezie-banaketa anitzak izango dituztenak (zuhaixkak, sasiak eta espezie askotariko zuhaitzak).
- Kanpoko espezieak bertako espezieekin ordezkatzea.

- EAEko interes komunitarioko hegazti nekrofagoen Kudeaketa Plan Bateratua

Planak bereziki ugatza (*Gypaetus barbatus*), sai zuria (*Neophron percnopterus*) eta sai arrea (*Gyps fulvus*) ditu kontuan, eta helburu nagusia mehatxatutako espezie horien biztanleria-dinamikari eragin dioten kontrako faktoreak ezabatzea da.



Aiako Harria KBE eremuak ikerketa-eremuarekin muga egiten du eta plan honetan bi izendapen ditu. Alde batetik, Interes Bereziko Eremu da, hau da, aipatutako hegazti-taldeen epe luzeko mantenurako beharrezkotzat jotzen diren aniztasuna eta ugaritasuna dituzten kartografikoki mugatutako eremua da.

Beste aldetik, Interes komunitarioko espezie nekrofagoen elikadurarako babes eremu ere bada, hain zuzen, giza kontsumora bideratzen ez diren animalien azpi-produktuen bidez fauna basatiko zenbait espezieren elikadura arautzen duen 1632/2011 Errege Dekretuan ezartzen den plan honetarako zehazki mugatutako eremua.

2.3.6 Naturagune babestuak

a) Aiako Harria Parke Naturala

1995ean Parke Naturala izendatua, 6.105 hektareako zabalera du, eta Oiartzun, Donostia, Errenteria, Irun eta Hernani artean banatzen da. Funtsean, haren gailur harritsuen eta pagadi eta hariztiak nagusi diren baso eremu zabalen natura eta paisaia mailako balioagatik izendatu zuten hala. Oiartzungo udalerrian, ia altitude handieneko baso eremua hartzen du barnean. Karrika erreka Parke Naturalean sortzen da, eta eremu babestuan barrena igarotzen da lehen kilometroetan; izan ere, faunarekin lotutako interes handiko eremutzat jotzen da.

Paisaiarako planak gehienbat Parke Naturalaren kanpoaldean eragina badu ere, haren mugetatik hurbil dihardu, eta Parkeko azaleraren zati bat Inguruko Eremu Babestutzat hartzen du.

Paisaiarako planaren eremua *Abeltzaintza eta Basogintza Sustatzeko Eremuen* mugakidea da. Horietan, abeltzaintza estentsiboaren eta basogintzaren erabilerak dira nagusi, helburua bi erabilera horien sustatze eta antolamendurako ekonomia eta azpiegitura mailako neurriak hartzea izanik.

Babes-eremu periferikoa Parke Naturalaren kanpoko mugaren inguruko 200 metroko zerrenda batek osatzen du, eta haren helburua da Parkeko natura baliabideen babesa erabat bermatzea, ekologiaren eta paisaiaren aurkako balizko kanpo erasoak ekidinez. Eremu horretan, Parkearen kudeaketaren arduen duen organoak baimendu beharko du Parke Naturala izendapenari dagozkion helburuak betetzea saihetsi edo zaildu dezakeen ekintza oro. Era berean, izendapenaren oinarrian dauden arrazoiak aintzat hartuta, organo horrek Parkearen errealitate fisiko edo biologikoa kaltetu edo eralda dezakeen edozein jarduera mugatu edo debeka dezake.



b) Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE)

2013ko ekainaren 3an, Aiako Harria Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2120016) izendatua izan zen, eta orduan ezarri ziren hura kudeatzeko neurriak, Habitaten Zuzentarauak agindutakoaren arabera (92/43/EEE). 6.806 hektareako azalera du, eta Aiako Harria Parke Naturalaren mugekin bat dator gutxi gorabehera, eremu batzuetan izan ezik. Funtsean, komunitaterako interesa duten harkaitzei, basoei eta ibaiei lotutako espezieen habitatak kontserbatzeko interesagatik izendatu zuten hala.



Paisaiarako planaren eremua eta Kontserbazio Bereziko Eremua mugakideak dira, eta kategoria hauen arabera sailkatutako zenbait eremu hartzen ditu barne:

- Eboluzio naturaleko eremuak: Ahalik eta esku-hartze txikiena eskatzen duten balio ekologiko handiko eremuak. Kategoria honek Masburu inguruko baso txiki bat hartzen du barne.

- Babes hertsiko eremuak: Tamaina txikiko eremuak, balio nabarmena edo ezohikoa duten natura edo kultura elementuak dituztenak. Babes zorrotza eta inguru horietan burutzen diren jardueren kontrola behar dute. Kategoria honek Kontserbazio Eremu Berezien parte den Karrika erreka barne hartzen du.

- Errestaurazio ekologikoa: Eremu andeatuak, non balio ekologikoek, natura-habitatek eta bertako espezieek ageriko aldaketak edo kalteak jasaten dituzten. Horietan, hainbat esku hartze proposatzen dira haien funtzionalitatea berreskuratzeko, bertako balioen iraupena bermatzeko eta haien kontserbazio-egoera hobetzeko. Zenbait espezie exotikoren landaketak barne hartzen ditu.

- Abereen ustiapen estentsiboko eremua: Abeltzaintza estentsiborako larreak eta sasiak. Haien mantentze-lanak ezinbestekoak dira lekuaren izendapena justifikatzen duten flora eta faunaren kontserbazio egoera ona bermatzeko. Paisaia Planak lursail txiki bat hartzen du barne bere eremuaren barruan, 6510. habitatari dagokiona.

- Basogintzako ustiapen estentsiborako eremua: Bertako baso pribatuak, intentsitate txikiko baso-ustiapenera zuzendutakoak, lekuaren izendapenaren oinarrian dauden arrazoiak, hots, habitat eta espezieen iraupena, arriskuan jartzen ez dutenak. Paisaiarako planaren mugan kokatutako hostozabalen basoaren zati bat hartzen du barne.

c) EAEko Korrikore Ekologikoen Sarea

Planaren eremua ia bere osotasunean txertatzen da R21 Eskualdeko Korridore Ekologikoaren Indargetze Eremuak, Aiako Harria (Natura parkea eta Kontserbazio Eremu Berezia) eta Jaizkibel (Kontserbazio Eremu Berezia) eremuak Gaintxurizketa inguruaren bidez lotzen dituenak.

Loturazko igarobideak zein indargetze-eremuak nekazaritzako eta abeltzaintzako paisaiek eta, neurri txikiago batean, naturako landaretza-teselek osatuak dira. Honako hauek dira kudeaketa-helburuak eremu horietan: inpaktuen prebentzioa, kontserbazioa —eta, hala badagokio, natura landaretzako osagaien birlandatzea—, eta nekazaritza, basogintza, abeltzaintza eta ehiza aprobetxamenduen ustiapen iraunkorra.



d) Onura Publikoko Mendiak

Planaren eremuan Onura Publikokoa den Kausua mendiaren zati bat dago (2.063.2), Oiartzungo udalerriari dagokiona eta, guztira, 578,40 hektareako zabalera duena. Onura Publikoko Mendiak kategoriari dagozkio, Arraskuelarre mendiko 7 hektarea inguruko sektore bat eta Karrika ubidearen parterik altuenaren inguruko herri-jabegoko lursailak. Gehienbat, baso naturalak, hariztiak eta hostogalkorren landaketak (*Quercus rubra*) aurki daitezke bertan.

Onura Publikoko Mendiak Gipuzkoako Mendien 7/2006 Foru Arauak, Mendien 43/2003 Legeak eta aurrekoa moldatzen duen 2006/10 Legeak erregulatzen dituzte. Mendi horiek helburu hauek lortzen laguntzen dute:

- Lurra higaduraren aurrean babestea
- Erregimen hidrologikoa erregulazioa
- Azpiegiturak babestea
- Klimaren aldaketaren aurka borrokatzea
- Aniztasun biologikoa kontserbatzea
- Basoan suteak izateko arriskua murriztea
- Paisaia kontserbatzea
- Hiritarren aisialdirako lekuak izatea
- Landa eremuetako biztanleek bertan irautea



Mendiak Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi eta Naturaguneen Zuzendaritzak kudeatzen ditu, horien titulartasunaren jabe diren udalerrietako erakundeekin elkarlanean (Oiartzungo Udalarekin, kasu honetan).

Bestalde, Mendien 43/2003 Legeak Basoetako Baliabideen Antolamendu Planak dakartza, legea garatzeko tresna gisa. Legeak barne hartzen dituen gaietan, haren edukia derrigorrezkoa eta betearazlea da beste edozein esku hartze, plan edo sektore egitasmoren aurrean.

Onura Publikoko Arraskuelarre Mendiaren mugarria eta ikuspegi orokorra

2.3.7 Bide publikoak, ibilbideak eta jende asko dabilen eremuak

a) Bide publikoak

Bide publikoen inguruko udal arauaren arabera, horiek jabetza eta erabilera publiko librekoak dira, eta edozein pertsona igaro daiteke haietatik. Mugakide diren lursailen jabeei dagokie haien garbiketa (landaretza, areka, etab.). Ertz-neurri hauek ezarrita daude:

- 3 metro bidearen ardatzetik alde banatara, lursailak ixteko.
- 4,5 metro bidearen ardatzetik alde banatara, zuhaitzak landatzeko.
- 3,5 metro bidearen ardatzetik alde banatara, zuhaixka eta hesi bizidunentzat.

Planak barne hartzen duen eremuan, bide publiko hauen ageri dira:

- Karrikako bidegorria
- Olako zubia bidea
- Zoko bidea
- Olaldeberri bidea
- Aranburu bidea
- Aranburu-Arraskue bidea
- Otsakane bidea
- Karrika kalea
- Petriene bidea
- Oieleku bidea
- Galtzaraberri bidea
- Lekunea bidea
- Gartziene-Lekunea bidea
- Lekungarai-Zontzorroitz bidea

Paisaiarako planaren eremuko bide publikoen sarea

b) Bidezidor homologatuak

- GRT 2 Comete Sarea: Mugaz gaindiko ibilbide luzea da. Ibilibide homologatua Altzibar auzotik abiatzen da, Ergoien auzora daraman azken zatian errekarekiko paraleloan aurrera eginez. 11,5 kilometroko luzera du guztira, eta Erlaitzen (Irun) amaitzen da. II. Mundu Gerran lurralde okupatuan hiltzen zirenen omenezko ibilbide luzeago baten zatia da (Donibane-Lohitzunetik Errenteriara bitartekoa).

- PR-GI 1007 Artikutzako trenbide zaharra: Ibilbide labur eta zuzeneko bidezidorra, Karrika auzoan hasi eta Exkasen (Artikutza) amaitzen dena, meategiko tren zaharraren ibilbideari jarraikiz. 14 kilometroko luzera du, eta ibilbidean zehar, meatze jardueraren arrastoez gain, paisaiaren aldetik interes handiko ibaiertz eta baserri eremuak ikus daitezke inguruan. 2,5 kilometroan PR-GI 1006 Aiako Harriaren Bihotza ibilbidearekin bat egiten du.



c) Jende asko dabilen eremuak

Bide publiko eta bidezidor homologatuez gain, Planaren eremuan aurki daitezke aisialdirako edo biztanleek oinezko mugikortasunerako erabiltzen dituzten ibilbideak.

- Bailararen hondotik igarotzen den ibilbidea: Altzibar eta Karrika auzoak lotzen dituen ibilbidea da, eta bi herrigune horietako biztanleek asko erabiltzen dute egunerokoan. Horrez gain, Aiako Harria Parke Naturalerako sarbide gisa ere erabiltzen da. Ibilbidea Altzibarko bidegorritik abiatzen da, eta, ondoren, Artikutzako trenbide zaharrari eta PR-GI-1007 bideari jarraitzen dio.
- GI-3631 errepidetik Karrikarako sarbide adarra: Gehienbat, Karrikako herritarrek erabiltzen dute Altzibarrera joateko.
- GI-3631 errepidea: Aiako Harria Parke Naturalerako sarbiderik ohikoena da; jendea autoz zein, maiz, bizikletan igarotzen da handik asteburuetan. Haren ezaugarririk erakargarrienak mendikate gogorra (11 kilometro luze), eta landa eta baso eremuen eta Aiako Harriako gailurren ikuspegiak dira.
- Arditurriko Bide Berdea: Gipuzkoako ibilbiderik erabilienetakoa da, Leitzarangoarekin batera. Arditurriko meategietarako sarbidea da, eta Altzibar auzotik igarotzen da. Handik, besteak beste, Arraskularre eta Altamiralarreko muinoak argi ikus daitezke.

Herritarrentzako eremu ikusgarrienak eta, hortaz, hauskortasun bisuala balioesteko garrantzitsuak dira zonalde eta ibilbide horiek; izan ere, hauskortasun bisuala txosten honen 1.6 Azterketa bisuala atalean aztertuko da.

2.3.8 Ondare historiko-arkitektonikoa

Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) arabera —berezko prebentzio-neurriez gain, beste tresna batzuetatik eratorritakoak ere jasotzen dituena—, hauek dira proiektuak barne hartzen dituen elementuak eta haien kokapena:

a) Ustezko Eremu Arkeologiko izendatutako eremuak

Honako hauek dira planaren eremuaren barne dauden EAEk Ustezko Eremu Arkeologiko izendatutako eremuak (1997ko irailaren 11ko ebazpena – Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 208. zenbakia, 1977ko urriaren 30ekoa):

- ✓ Aranburu baserria (A) (EJko zerrendetako zenbakia: 27).
- ✓ Aranburuola burdinola (E) (EJko zerrendetako zenbakia: 28).
- ✓ Arraskue baserria (A) (EJko zerrendetako zenbakia: 29).
- ✓ Bidasoro baserria (A) (EJko zerrendetako zenbakia: 30).
- ✓ Ugarteola burdinola (D) (EJko zerrendetako zenbakia: 31).

Babesak barne hartzen ditu eraikinaren barrualdeko eremua (A), eraikinaren eremua eta hari atxikitako instalazioak, eta kokatua dagoen eremua (E).

b) EAEko monumentu edo monumentu-multzo izendatuak izateko proposatutako ondasun higiezinak

- ✓ Bidasoro baserria eta errota (EJko zerrendetako zenbakia: 48). Gipuzkoako Historiaren eta Monumentuen Gidan aipatua.
- ✓ Artikutzako trenbidea.
- ✓ Mikelete kaleko etxea 17 (EJko zerrendetako zenbakia: 29).

c) Udalak babes ditzan proposatutako ondasun higiezinak

- ✓ Ugarteola – Txokorrene zubia.
- ✓ Ugarte errota.
- ✓ Mikelete kaleko etxea 14.
- ✓ Iragorri baserria.
- ✓ Artaso probalekua.
- ✓ Artaso frontoia.
- ✓ Aranburu baserria.
- ✓ Arraskue baserria eta errota.

Hurrengo fitxetan, Paisaiarako Ekintza Planak barne hartzen dituen elementu nabarmenen ezaugarriak aurkezten dira.

Elementua: Arraskue baserria eta errota

Kokapena: Karrika, herrigunetik hurbil, ubidearen eskuinaldean. Baserria altuago dago, mendi-hegalean, 200 metro ingurura.

Babesa:

- Ustezko eremu arkeologikoa (baserria).
- Udalak babes dezan proposatutako ondasun higiezina (errota eta baserria).

Ezaugarriak: Arraskue baserria eta oinetxea aipatzen dituen lehen agiriak 1585. urtekoak dira. Gaur egun itxuraldatuta dagoen arren, garai hartako arku formako ate bat eta Erdi Arokoak diruditen arku zorrotzak ditu. Errotak hiru harri pare ditu, eta burdinazko hiru burute. 135 metroko luzera duen kanal bat du, ura Karrika errekan isurtzen duena, eta, neurri batean, inguruaren urbanizazioa dela eta, aldatu edo hodiekin bideratua ageri da. Badu, ordea, 20 metro luze eta 6,6 metro zabaleko andel bat, dagokion ur sakonera mantentzen duena. 3,6 metroko jauzia baliatzen du, eta jatorrian 150 litro segundoko ur-lasterra eta 3,10 metroko altuera duen presa bat zituen. Baina ezaugarri horiek aldatu egin dira eta, horien ordez, harri lubeta baten arrapala jarri dute eta hartutako eta bideratutako ur kopurua murriztu egin da, haren funtzionamendurako andela apurka-apurka betetzea beharrezkoa izanik.

Eremua errotaren eraikinak eta atxikitako eraikuntzek (siloa, biltegiak) osatzen dute. 19 m x 9 m tamaina duen eraikin nagusian aurki daiteke makineria, eta haren azpian estolda dago, ubidearen ondoan kokatutako hustubide-kanal labur batekin luzatutako arku bat duena.

Gaur egun, harri pareetako batekin funtzionatzen jarraitzen du, berezko kontsumorako. Berriki eraikina bizileku gisa zaharberritzeko egin diren lanek haren banaketa aldatu dute, baina eraikinaren izaera eta errotaren funtzioa mantentzeko helburuari eutsi diote. Elementu honen ondare mailako interesa Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik jaso duen euskal ondarea eta kultura-intereseko ondasunak babesteko eta zabaltzeko diru-laguntzak bermatzen du (GAO, 2014-07-10). Nabarmentzekoa da, egungo jabeak 1920an errotara bizitzera etorritakoen ondorengoak direla eta, geroago, 1942an, Ignacio Asteasuinzarra Gipuzkoako errota ia guztietan konponketak burutzeagatik egin zela ezagun.

Elementua: Bidasoro baserria eta errota

Kokapena: Karrika, elkarren artean 450 metrora, ura herrigunetik gorantz eta beherantz igarotzen da, ubidearen ezkerraldean.

Babesa:

- EAEko monumentu edo monumentu multzo izendatua izateko proposatutako ondasun higiezina. (baserria eta errota).
- Ustezko eremu arkeologikoa (baserria).
- Gipuzkoako Historiaren eta Monumentuen Gidan (Gipuzkoako Foru Aldundia) aipatutako elementua (baserria eta berriki eraitsitako zubia).

Ezaugarriak: Erdi Arokoa izanik, oinetxea aipatzen diren lehen agiriak 1625. urtekoak dira. Ubidea baino apur bat altuago kokaturik, izen bereko zubia defendatzen zuen.

Errotaren lehen aipamen historikoa 1699. urtekoa da, eraikina ordezkatua izan zenean. 1900. urte inguruan eten zuen jarduera; ordura arte, Karrika errekako 120 litro erabiltzen zituen segundoko, eta 1,6 metroko jauzia baliatu. Gaur egun, hainbat eraikuntza atxiki ditu, ez dago kanalaren arrastorik eta presaren zati bat mantendu da errekan gora. Ur goraldiek presa hondatu dutenez neurri handi batean, eskuz egindako metalezko pasabide bat jarri behar izan dute haren gainean.

Elementua: Aranburu baserria eta burdinola

Kokapena: Sakabanatuak eta bata bestearekiko oso hurbil. Arraskularre eta Altamiralarre muinoen arteko bailararen estugunean, baserria erreka baino 30 metro altuago dago; ubidean bertan daude, aldiz, burdinolaren hondakinak.

Babesa:

- Ustezko eremu arkeologikoa (baserria eta burdinola).
- Udalak babes dezan proposatutako ondasun higiezina (baserria).
- Gipuzkoako Historiaren eta Monumentuen Gidan (Gipuzkoako Foru Aldundia) aipatutako elementua (baserria).

Ezaugarriak: XVI. mendean birmoldatutako dorretxea, olagizonaren etxea zena. Burdinolaren inguruko lehen aipamena 1549. urtekoa da. 1567an 960 kintal ekoizten zituen; 1574-1578 artean, 500etik 1.200era bitartean; eta 1579-1588 artean, 1.000tik 1.500era bitartean. 1630eko erroldan gabi gisa ageri da. 1752an 1.000 kintaleko ekoizpena izan zuela adierazten da. 1850. urtearen inguruan, burdinolen gainbeherarekin, jarduera eten zuen. Landaretzaren artean tamaina handiko presaren hondakinak ikus daitezke, ubidearen goraldiek hura eraitsi badute ere. Era berean, kanalaren lehen zatiaren hondakinak ageri dira, tamaina handikoak horiek ere, eta industrializazioaren aurreko instalazio ezberdinekin bat etor daitezkeen errekaren ondoko harrizko hormak ere ikus daitezke.

Elementua: Ugarte burdinola, errota eta zubia

Kokapena: Altzibarko herrigunetik eta Oiartzun ibaitik hurbil. Burdinola eta errota eremu berean eta zubitik hurbil gerora ezarritako erabilera ezberdinak dira.

Babesa:

- Ustezko eremu arkeologikoa (burdinola).
- Udalak babes dezan proposatutako ondasun higiezina (errota eta zubia).

Ezaugarriak:

Ugarteko multzoak XV. mendean du jatorria, eta burdinola eta haren jabearen etxea osatzen zuten hainbat eraikin ditu, gaur egun etxebizitzak direnak. Eraikin nagusia oso aldatua dago egun; lau isuriko estalpea du eta angeluetan harlanduzko lana hauteman daiteke. Jatorrian jauregi itxura zuen, armarri bikoitza agerian, baina denboran zehar asko aldatu da. Oiartzungo burdinolarik zaharrena zen, eta Ugartetarrena Gipuzkoako etxerik zaharrena zela uste zuten, oinaztar bandokideen jatorrikoa eta, beraz, Oiartzunen bakarra.

Burdinola aipatzen den agiririk zaharrena 1495. urtekoa da. Udalerriaren jabetza izan zen 1620 eta 1665 artean. Haren ekoizpena 600 kintalekoa izan zen 1574-1578 artean, 1.000 kintalekoa 1579-1983 artean, eta 1.900 kintalekoa 1584-1588 artean. Saldu egin zuten eta, geroago, 1784an, errota gisa ageri da; izan ere, 1931n irin errota gisa inskribatu zen, 1965era arte. Errotak 3,30 metroko jauzia baliatzen zuen Oiartzun ibaian, eta 480 litro ur erabiltzen zituen segundoko, 500 metro luzeko kanal batek bideratuak.

Gaur egun, bizileku-erabilera dute bertan dauden hiru eraikinek, baina zenbait elementu mantentzen dira: tamaina nabarmeneko ubide bat (72 metroko luzera eta 10 metroko gehienezko zabalera), lurrez estalia dirudien bilketarako kanala, hustubidea eta estolda (duela 15 urte errotaren eraikuntzan egindako berriztatze-lanetan luzatu zena). Ez dago presaren hondarrik.

Ondoko zubia, Ugarteola-Txokorrene deritzona, nabarmentzeko moduko beste elementu bat da. 1727ko agiri batean aipatzen da lehen aldiz, konponketa-lanen inguruko dokumentu batean, eta handik hurbil burdinola bat zegoela adierazten da. Zubiaren arkitekturan obra horiek eta askoz obra berriagoak hauteman daitezke, batez ere brankari eta tinpanoei eragin dietenak. Halere, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak argitaratutako *1900. urtea baino lehenagoko Gipuzkoako zubien katalogoan* aipatzen denez, “arkuei dagokienez, tresneriaren homogeneotasunak eta kalitate onak oraindik haren jatorrizko fabrika ikustea ahalbidetzen digute”. Arkuak bizkar okertu baten itxurako profila du eta, 2,93 metroko zabalera, argiak zeharkatzen duen 11,10 metroko zuloa eta 3,80 metroko gezia ditu.

Elementua: Artikutzako trenbidea
Kokapena: Errenteria eta Elama (Artikutza) arteko 28,5 kilometroko ibilbidea du, eta 2.850 metroko tartean Paisaiarako planaren eremua luzetara zeharkatzen du Karrika errekaren ingurutik gertu, eta bi herriguneak zeharkatzen ditu (Altzibar eta Karrika).
Babesa: • EAEko monumentu edo monumentu multzo izendatuak izateko proposatutako ondasun higiezinak.
Ezaugarriak: Artikutzako trenak 600 mm zabaleko burdinbidea zuen eta, neurri horretako trenen artean, hura zen penintsulako ibilbiderik luzeena egiten zuena. Artikutza eta Karrikako bailaretako meategiak, harrobiak eta baso esplotazioak Errenteriako Iparraldeko Konpainiaren geltokiarekin lotzen zituen. Lehen zatiak Zorrola (Karrikan, Paisaiarako Planaren eremutik kanpo errekan gora) eta Errenteria lotzen zituen, eta 1898an jarri zen abian. Jarduera horiek etetean, bi hamarkada beranduago, tren zerbitzua bertan behera geratu zen. 1919an, Donostiako Udalak Artikutza osorik erosi zuen, baita trenbidearen ibilbidea ere. Trenbide horren berezitasun bat zoruaren maila ezberdinak berdintzea ahalbidetzen zituzten hiru plano inklinatuak ziren (8 metroko altuera Errenterian, eta 675 metro Bianditzen tunelean); haietako batek uraren kontrapisuari esker funtzionatzen zuen. Hala, lau sekzio zituen ibilbideak, lau plano horiek eteten zituztenak, lau tren makina erabiltzera eta maniobra konplexuak egitera behartuz. Haren itxieraren garaian, trenbideak 48 tona garraiatzen zituen egunean, 12 bidaia bakoitzeko, lurrun makinak baliatuz. Artikutzatik ateratako kaolinaz gain, Altzibar eta Karrikan kokatutako harrobitik ateratako ofita ere garraiatu beharra zegoen. Harrobi horrek zamatzeko toki bat zeukan, eta bertatik garraiatzen zen Gipuzkoako Foru Aldundiko errepideen zorua egitera zuzendutako materiala. Errenteriako Gabierrota auzoan esku bidezko birrinketa instalazio bat zegoen. 1923tik 1947ra bitartean funtzionatu zuen zerbitzu hori eskaintzen zuen trenak; izan ere, horretarako eraiki zen Oiartzun ibaiaren gaineko Altzibarko zubia. Geroago, bildutako informazioaren arabera, beste garraiobide batzuk erabili ziren: grabitate eta bultzada bidezko bagoneten Altzibarrerainoko jaitsiera eta animalien tiratzearen bidezko itzulera, adibidez.

Paisaiarako ekintza-planak barne hartzen duen eremuari dagokionez, hainbat elementu nabarmendu daitezke: Altzibarko zubia (gaur egun oinezkoentzako zubi bihurtua), zerbitzu osagarriekin lotutako Altzibarko eraikina (dokumentu honen beste atal batzuetan lantzen dena), etab. Ibilbidea gune horretatik hurbil igarotzen da, eta Altzibarretik Karrikara doa, ubidean gora, handik urrundu gabe. Eremu batzuetan, trenbidea urbanizazioek edo bideek estaltzen dute; besteetan, trenbidea hura estaltzen duen landaretzaren artean hauteman daiteke. 1954an airetik ateratako argazki batean ibilbidea ikus daiteke. Eremu horretatik kanpo, tunelak eta plano inklinatuen, balazten, ur harguneen eta hainbat eraikuntzaren hondakinak daude.

Elementua: Artaso pilotalekua eta probalekua

Kokapena: Karrikako herrigunean eta ubidearen ondoan, Artaso aisialdiko elkartearen ondoko aisialdirako gune bat eratuz.

Babesa:

- Udalak babes dezan proposatutako ondasun higiezina (pilotalekua eta probalekua).

Ezaugarriak:

1998an eraiki ziren, eta erabilera libre eta doanekoa dute. Frontoia estali gabe dago eta 27 x 8 metroko tamaina du, haren eraikuntzan egindako inausketa lanari esker. Probalekua atxikita dago eta, 27 x 6 metroko neurria eta harrizko zola izanik, idi probetarako erabiltzen da. Bertan eta ondoko eremuan tamaina ezberdineko hainbat harri daude.

d) Ondare historiko-kulturalaren beste elementu batzuk

Egindako katalogazioa alde batera utzita, Planaren eremuko zenbait elementu garrantzitsu aipa daitezke:

- Altzibarko gurutzadurak

Altzibarko erdigunean mugako bi gurutze edo bidegurutze markatzen duten gurutzadurak daude. Lehena, Altzibar Bekoan kokatutakoa, Ugarteola-Txokorrene zubiaren ondoan dago, zuhaitzez beteriko plaza txiki batean; bigarrena, Altzibar Goikoan kokatutakoa, Mikelete kaleako hiruki forma duen plaza batean dago. Zilindro formako fuste baten gainean, Kristo gurutzean irudikatzen dute, nahiz eta irudiek kalte handiak jasan dituzten.

Biak agertzen dira Santiago Bidearekin (barnealdeko bidea) lotutako intereseko elementuen zerrendan, hau da, 1993ko ekainaren 15eko Kultura Sailburuaren aginduan, zeinean hasiera ematen zaion Santiago Bidearen Euskal Autonomia Erkidegoan zeharreko ibilbidea eta ingurua identifikatu eta mugatzeko espedienteari (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1993ko abuztuaren 19an). Halere, ibilbidea aldatu zenez, elementu horiek Santiago Bidea, Monumentu Multzo kategoriaren barruan, Kultura Ondare izendatu zuen urtarrilaren 10eko 2/2012 dekretutik kanpo geratu ziren (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2012ko urtarrilaren 12an).

Era berean, 2007ko plangintzako Arau Subsidiarioetan “Muga markatzen duen Altzibar auzoko Gurutzea” interes historiko-artistikoko hiri- eta arkitektura-ondarearen elementu katalogatu gisa aipatzen da, Arau Subsidiario horiek beraiek babestua.

- <u>Karobiak</u>

Karobiak XVIII. mendean eraikitzen hasi ziren Euskal Herrian, eta XX. mendeko 30eko hamarkada arte iraun zuten. Landa-eremuari lotutako esparru etnografikoan berebiziko garrantzia izan zuten, karea eraikuntzarako morteroa prestatzeko, zuritzeko eta garbiketa- eta desinfektatze-lanetarako ere erabiltzen zelako.

Kareharritik abiatuta, karea fabrikatzeko prozedura halako instalazioetan burutzen zen. Barrualdean, aldez aurretik zatitutako kareharriak tamainaren arabera ipintzen ziren, kanpoko ganga eraiki arte. Espazioaren erdigunea hutsik uzten zuten, geroago harria erretzeko sua piztuko zuen egurra bertan utzi ahal izateko. Labearen oinarrian zegoen hutsune baten bidez, karegilea sua suspertzen zihoan, tenperatura 900 gradu ingurura ere igoz, erreketa-prozesuan zehar itzal zedin ekidinez.

Proiektuaren eremuan bost karobi identifikatu dira: Gartzienea, Retegi, Artaso eta Oiantzabal inguruko beste bi.

Gartzienea da baldintza hobeagotan dagoena eta tamaina handiagoa duena. Izen bereko baserriaren eta Karrika errekatik 150 metrora kokatuta dago (Latxarraerreka eta Eskimotzerreka ubideek bat egiten duten tokian). Estalpe bat duenez, abereak babesteko erabili izan da. Elementu horri esker mantendu dira haren barrualdea, arkua eta goiko ahoa hain baldintza bikainetan. Nabarmentzekoak dira kontrahorma sendoak eta arkuaren gainean kokatutako bi bloke handiak. Handik hurbil igarotzen den bide publikotik du sarbidea.

Handik hurbil, Karrikako pilotalekaren ondoan, Artasoko karobia dago. Mendi-magalean txertatuta dago, eta arkua eta goiko ahoa agerian ditu, lurrez beterik badago ere.



Retegi karobia Erretegibizarrene baserriaren ondo-ondoan dago, Egileor inguruan, Altamiralarretik hurbil. Haren aurrealdea harrizko horma landu gabe bat da, eta barrualdea erabat beterik dauka. 2007ko plangintzaren Arau Subsidiarioetan Retegi karobia elementu katalogatu gisa ageri da, arauek beraiek babestua.

Oiantzabal baserritik ibaian gora, kartografiaren arabera, bi karobi daude, nahiz eta haietako baten hondakinak soilik aurkitu diren.

2015eko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean, katalogatutako elementuak espresuki aipatzen ez badira ere, elementu horien eta lur urbanizaezinean dauden beste batzuen inbentarioa egiteko proposamena jasotzen da, baina orain arte ez zaio zeregin horri ekin.

- Karrikako harrobiko ofita zamatzeko tokia

Trenbideari eskainitako atalean adierazi den bezala, bazen harrobitik erauzitako arrokak zamatzeko toki bat, 1923tik 1947ra bitartean erabili zena. Arrokak handik Gabierrotara garraiatzen ziren, eskuz birrintzeko instalazio bat baitzegoen bertan. Harrobia eta trenbidearen arteko aldea baliaturik, zamatzeko toki hura eraiki zen, eta ofita biltzeaz gain, grabitatearen laguntzaz hura bagonetetan jartzea ahalbidetzen zuen.

Harrizko hormez osatutako instalazioak ubidearen gaineko tunel bat du. Gaur egun, tunelaz gain, hormak landaretzak estalirik daude, eta zuhaitzek betetzen dute eraikuntzaren barrualdea. Beheko aldean, bagoiak kargatzen ziren tokian, Recuperaciones Cadarso enpresaren lehengaia diren grafitoko zilindroak atari zabalean pilatzen dira.

1954an airetik hartutako argazkian, eremu osoa ikusten da. Ondoko argazkian, aldiz, beste leku bateko zamatzeko tokia ageri da, instalazioaren tipologiaren erreferentzia gisa baliagarria izan daitekeelakoan.



- <u>Errotaberri errota</u>

Altzibarren, egungo industria-pabiloien artean kokatuta, haren inguruko lehen aipamena 1877koa da. Agorraldian, ubidetik 154 litro baliatzen zituen segundoko, eta 4,5 metroko jauzia zuen. Errota gisa jarduteaz gain, energia elektrikoa ekoizten zuen. 1939an haren lizentzia fiskala bajan emana izan zen, nahiz eta, dokumentuen arabera, 1956an ur-erregistroan inskribatu eta erabilera jasotzen zen. 1954an airetik ateratako argazkian kanalaren ibilbidea ikus daiteke.

Industria-eraikinen eraikuntzak errotaren kanala eta eraikina desagertzea eragin zuen, baina haren oinean Karrika errekako presa mantendu zen, 1982ko agirietan aipatzen ziren kanalari zegozkion zenbait hondakinekin batera. Agirietan adierazten denaren aurka, 1980an errotaren eraikinaren "irteera-ahoa" zutik zirauela aipatzen zen, nahiz eta eraikinaren gaur egungo behaketak ez duen erabilera horren zantzurik eskaintzen. Erroldaren arabera, eraikina 1923koa da, beraz, eraikin nagusia izan zitekeen, eta errota gaur egun pabiloiak dauden tokian kokatuta egon zitekeen.

Presak zutik dirau, nahiz eta aldatuta dagoen eta, 2009an Gipuzkoako Foru Aldundiak arrainak igotzeko arrapala baten eraikuntza dela-eta, haren parte bat estali zuen. Kanalaren hondakinak ikus daitezke eraikinaren alboan, landaretza itxiaren azpian, une honetan hutsik eta materialak eta hondakinak pilatzen diren eremu eraldatu batek inguratzen duena. HAPOak aurreikusitako ALT-3 Altzibar Hegoaldea esku-hartzea burutzean, elementu horiek desagertuko dira, presa eta pabiloien barrualdean dagoen iturria izan ezik; izan ere, iturria nabarmendu eta urbanizazioan txertatuko da berdegune gisa.

e) Oroimen historikoarekin lotutako elementuak

- Iragorri hilerria

Eremuaren barruan *Oroimenaren Basoa-Iragorri hilerria* izenekoa dago, non Gerra Zibilaren garaiko hilobiak bisita daitezken. Artikutzako errepidetik hurbil eta haritz altuko baso batean kokaturik, belardi-eremu batean altzairuzko horma-hobiekin adierazi dira 1959 eta 2007 artean aurkitu eta, ondoren, Oiartzungo hilerrira eraman ziren 13 pertsonen gorpuak zeuden tokiak. 1960an atera ziren lehen gorpuak lurpetik, Gerra Zibilean fusilatutako apaiz baten gorpuaren bilaketaren ondorioz; horri esker, 1936ko azaroan fusilatutako beste 8 pertsonen gorpuak aurkitu ziren, eta lurpetik atera ahal izan ziren. 2007an, gorpu gehiago aurkitu eta lurpetik atera ziren, adierazitako kopurua osatu arte.

Kattin Txiki elkartea eta Oiartzungo udala arduratu dira zeregin horiez eta eremua txukuntzeaz, eta egun Euskadiko Hilobien Mapan ageri da. Ondorioz, oroimen historikoarekin lotutako sarrera libreko toki bihurtu da.

1942ko argazkia, Jesus Eloseguirena (http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/fosas_franquismo_backup/es_fosas2/index.shtml)

Indusketa-zuloa (http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/fosas_franquismo_backup/es_fosas2/index.shtml)

- <u>Harri lehorrezko hormak</u>

Harri lehorrezko hormen hondarren hainbat lerro ikus daitezke Arraskularren. Lursailen mugekin bat datozenez —Onura Publikoko Mendian txertatutako eremuari dagokionarekin, hain zuzen—, horiek mugatzeko funtzioa izan zutela dirudi. Horma mota hau, inguruko harri landugabeekin eraikia, abeltzaintzarako lursailetan ere erabili izan da (saroiak, abereak gordetzeko eraikuntza itxiak eraikitzeko), hesolekin eta alanbre arantzadunarekin egindako egungo hesiak baliatu aurretik. Berriki basotua izan den Arraskularre mendia, iraganean, abeltzaintzaren jarduerarako aproposak izan zitezkeen belardiz eta sasiz osaturik zegoen.

2.4 LURRALDE ETA SEKTORE PLANGINTZARAKO TRESNEN ERAGINA

2.4.1 Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPOan) zehaztutako esparrua, proiektuaren eremuan eragin zuzena duena

a) Hirigintzako garapen berriengatiko aldaketak

Proiektuaren eremuaren barruan osorik edo zati batean dauden bi hiriguneetan (Altzibarren eta Karrikan), **oraindik garatu ez diren esku hartzeko lau eremu** jasotzen ditu Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak, 2015eko martxoaren 25ean Oiartzungo Udalak onartutakoak. Bada, etorkizunean, lurralde horretan aldaketak egingo direla aurreikusten da. Hauek dira lau eremu horiek: Altzibar Zaharra (ALT-1A), Altzibar Erdialdea (ALT-2), Altzibar Hegoaldea (ALT-3) eta Karrika (KAR-1).

Oiartzun ibaiak eta Karrika errekak bat egiten duten tokian dago ALT-1A Altzibar Zaharra eremua. Eremu horri dagokionez, hau adieraz daiteke:

- HAPOko dokumentuetan, hasiera batean, 42.931 m^2 zeuden, 76 etxebizitza berri eta 22.420 m^2-ko berdegune bat (hiri parkea) barne hartuta.
- Uraren Euskal Agentziak egindako txostenean oinarrituta, aurkako txostena jaso zuen antolamendu horrek, eta 4.961 m^2-ra murriztu da eremua; hau da, bi ubideen arteko hirigune historikoaren eremura. Azalera horretan, jada badauden etxebizitzak (36) egonkortzea eta Birgaitze Integralerako Plan Berezia ezartzea proposatzen da. Plan horrek doiketa txikiak egin ahalko ditu bolumetrian eta merkataritza horniduran, eta lokalak etxebizitza bihurtu ahalko ditu.
- HAPOak jasotzen duenez, hiri-paisaia zehazten dute bi ubideek; paisaia eta natura balio interesgarriak dituen hiri paisaia da, babestu egin behar dena: sega-belardiak eta *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieak dituzten baso alubialak daude hor. Fauna kudeatzeko planetan eta Oiartzun Ibaiko Terrazak - Interes Geologiko-Geomorfologikoko Gunean daude sartuta toki horiek.
- Era berean, araudi espezifikoarekin bat eginez, kontuan hartu behar dira uholde arriskuaren inguruko neurriak, baita ingurumen inpaktua murrizteko neurriak ere.

Azalera horretan izan ezik, eremuaren gainerako zatian indarrean jarraitzen du aurreko egoerak; hots, Plangintzarako Arau Subsidiarioen 2007ko Berrikuspenari dagokionak. Horren arabera, honako hau aurreikusten zen ALT-1 Altzibar Zaharra multzorako:

- 62 etxebizitza berri eraikitzea.
- Kanpoaldean pasealeku perimetrala eraikitzea, lezoi altu batekin, Altzibarren erdigunea uholdeen aurrean babesteko.
- Modu osagarrian, Oiartzun ibaiaren eskuinaldean berdegune publikoa sortzea pentsatu da, 19.400 m^2-koa, Altzibarko hiri parke berria izan dadin.

Alabaina, garapen horrek ez du bat egiten Uraren Euskal Agentziaren irizpideekin eta uholdeei aurre egiteko plangintzarekin (uholde arriskua duen eremua da); hortaz, ez dirudi burutu ahal izango denik, eraikitzeko behar den Plan Berezia onartzea zehaztu baita.

Eremu horretako eta Altzibarko beste toki batzuetako uholde arriskuari aurre egiteko aztertu diren jarduerek Oiartzun ibaiaren ubidea eskuinaldean zabaltzea, Ugarte zubia luzatzea eta Artikutzako trenbideko zubia eraistea dakarte. Oraindik ez da aurreikusi noiz egingo diren jarduera horiek.

PLANIFIKATUTAKO HIRIGINTZA GARAPENAK HAPO. ALTZIBAR ETA KARRIKA

EREMUA	Azalera (M2)	Dauden etxebizitzak	Etxebizitza berriak
ALT-1A Altzibar zaharra	4.961	36	-
ALT-1 Altzibar zaharra (NNSS 2007)	36.300	39	62
ALT-2 Altzibar erdialdea	40.038	449	32
Alt-3 Altzibar hegoaldea	10.889	-	56
KAR-1A Karrika	1.176	-	2

Iturria: Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, 2015, eta Plangintzarako Arau Subsidiarioak, 2007.

Bigarrenak, ALT-2 Altzibar Erdialdea deritzonak eta 49.038 m^2 dituenak, auzoaren erdigunearekin egiten du bat, Karrika errekaren eta Oiartzun ibaiaren ondoko eraikinak (bi ibaiertzetan daudenak) barne hartuta. Hirigintzari aldetik gainezka dagoen eremua denez, hauek dira HAPOaren proposamen nagusiak:

- Mikelete kalea eta hirigune historikoa oinezkoentzat jartzea.
- GI-3661 errepidearen zeharbidea hiri kale bihurtzea, aparkaleku bat eta plaza bat jarriz.
- Arditurriko bidegorria eta Karrika lotzea.
- 32 etxebizitza berri jartzea, egungo 449en gainean.
- Karrika errekarekin muga egiten duenez, ALT-28 azpieremua nabarmentzea

(Matxillendane, 826 m^2), eta 9 etxebizitza eraikitzea; bat behe solairuan eta hiru goi solairuetan, dauden eraikinak eta horren ingurunea ordezkatuz. Plaza eta eremuaren ingurua lekualdatu beharko dira, errekaren ubidetik gutxieneko 5 metroko distantzia errespetatuz, eta ibaiertzean igarobide publikoa jarri beharko da (onartutako xehetasunen ikerketan jasoa, 2009ko otsailaren 9ko GAOn).

- Uholdeak prebenitzeko ikerketa hidraulikoa egitea, fauna kudeatzeko planei eta ibaiaren berreskurapenari dagokienez.

Hirugarrenak, ALT-3 Altzibar Hegoaldea deritzonak eta 10.889 m^2 dituenak, bat egiten du hirigunearen hegoaldeko zatiarekin, Artikutzako errepidearen (GI-3661) bi aldeetan. Aurretik, industria erabilera eduki zuen toki horrek. Errekarekin harreman handiena duten proposamenen inguruan, hauek dira nagusiak:

- Industria pabilioiak bizitegi eraikuntza bihurtzea.
- Bidea eta biribilgunea eraikitzea (gutxienez, 36 m-ko diametrokoa).
- 56 etxebizitza berri egitea. Etxebizitza horiek sotoa edo erdisotoa, behe solairua (etxebizitza erabilera duena) eta hiru solairu edukiko dituzte, errepidearen ondoan, eta beste solairu bat gehiago eduki ahalko dute errekaren ondoan, kota jaistean.
- Karrika errekaren ezkerraldea berrantolatzea eta hobetzea pabilioiekin muga egiten duen 120 m-ko tartean. Eraikinak, gutxienez, errekaren ertzetik 12 metrora egongo dira. Paisaia babesteko eta integratzeko neurriak, eta fauna espezieen kudeaketa planekiko errespetua.
- Errotaberri iturburua tokiko espazio libreen sisteman sartzea. Industria pabilioien azpian dago iturburua.
- Xehetasunezko proiektu baten mende egongo da antolamendua. Proiektu horrek ikerketa hidraulikoa eta ingurumen ikerketa jaso beharko ditu, eta onar daitezkeen neurri zuzentzaileak zehaztuko eta justifikatuko ditu. Neurri horiek ezingo dute inguruko uholde arriskua larriagotu.
- Hirigintza garapenerako prozesua abiaraztea eta horren xehetasunak sakontzea, Hiri Antolamendurako Plan Berezi (HIPB) baten, Jarduera Programa Urbanizatzaile baten eta Hirigintza Proiektu baten bidez.



KAR-1A Karrika eremuak 1.176 m^2 dauzka, eta hau proposatzen da bertarako:

- Bi etxebizitza berri (ibaiertzaren eskuinaldean dagoen angula haztegia birmoldatuz), plana (KAR-1 B) onartu ondoren eraikitako 10 etxebizitzez gain. Erdisotoan, 100 m^2-ko azalera duen hornidurarako lokal bat utziko da.

Dagoeneko garatua dagoen zatia (KAR-1B) barne hartuta, 27.807 m^2-ko azalera du eremuak bere osotasunean, eta, horretarako, honako hau eskatzen du plangintzak:

- Oinezkoentzako eta bizikletentzako bidea jartzea hirigunean, Altzibarretik abiatuta, Artikutzako trenbide zaharraren lur berdinketa baliatuz.
- Berdegune publikoa eratzea Bidasoroko meandroan, 2.604 m^2-koa, Karrika errekaren ondoan (ezkerraldean). Bertako kota murriztuta, eragin positiboa edukiko du auzoko uholdeen aurrean.
- Flora eraketei eta horiei lotutako fauna habitatei begiratuta, kontserbaziorako interesekoa den baso atlantiko misto txikia dagoela ikus daiteke, edota eremuko goi uretan haltzadiak daudela, Karrika errekaren ibaiertzean. Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbidearen trazadurak intereseko flora eraketa hori errespetatu beharko du.
- Fauna kudeatzeko planak errespetatu beharko ditu, baita EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen indargetze-eremua ere. Bestetik, ibaiak antolatzearekin zerikusia duen araudia errespetatu beharko du.

Hirigintza jardueren eremu horiez gain, **Karrika errekari dagokionez garrantzia duten unitateak daude, jada garatuta daudenak.**

ALT-5 Olalde eremuak 21.891 m^2 dauzka, eta Karrika errekaren eskuinaldean dago, Oiartzun ibaiarekin bat egiten duen azken zatian. 132 etxebizitza garatu dira, BOEak gehienak (90). HAPOan islatutakoarekin, Jarduera Programa Urbanizatzailearekin (GAO, 2010eko martxoaren 26koa) eta Hirigintza Proiektuarekin (GAO, 2011ko martxoaren 21ekoa) bat eginez, errekaren ingurumena berreskuratzeari ekin zaio. Horretarako, hustuketa gaitasuna handitu zaio (ubidea

zabaldu da, eta zubiak ordezkatu dira), eta oinezkoentzako zein bizikletentzako ibilbidea sortu da ibaiaren ertzean. 4.019 m^2-ko eta 2.025 m^2-ko berdegune publikoak eratu dira.

Altzibarreko hegoaldean dagoen pabilioi zonaldean dago ALT-6 Altzibar industrigunea eremua, Karrika errekaren eta Artikutzarako bidean dagoen GI-3631 errepidearen artean. 7.572 m^2 dauzka, eta HAPOak gainezka dagoen eremutzat hartzen du. Berariaz agindu da egon daitezkeen mantentze lanen edo eraikuntza aldaketen aurrean, bolumetria ez aldatzea. Errekaren ondoan dagoenez, ingurumen baldintzak aipatzen ditu HAPOak; hala nola, fauna kudeatzeko planak, plan sektorialak eta uholde arriskua errespetatu behar direla dio. Hala ere, ez da aurreikusi urbanizazioan aldaketarik egitea. Kutsatutako lur bat dagoela adierazi da (Bianditz CB automobilen tailer zaharra), lur horretan birmoldaketak egiteko xedez.

KAR-1B Karrika azpieremuak 10 etxebizitza dauzka, kooperatiba araubidean eraikitakoak eta dentsitate txikia dutenak, aurreko plangintzarekin bat eginez. Paisaiarako Ekintza Planari dagokionean, azpieremu horrek garrantzia dauka; izan ere, Karrika errekaren eskuinaldeko ertzaren ondoan dago, eta oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbidearen zati bat eta berdegune bat hartzen ditu beste ertzean, jada eginda daudenak.

b) Hiri-eremu libreak eta ekipamendu kolektiboak

Hiri-espazio libreei dagokienez, sistema orokorrari atxikitako hiri-espazio libre bat dago proiektuaren eremuaren barruan. Zehazki, Karrikan dago, Bidasororen ondoan. Ibai meandro bat da, non kota murriztu den. Egun, belardi bat da.

Tokiko sistemei dagokienez, Altzibarren lau eremu jasotzen dira udalerriko espazio nagusien artean (bina Karrika errekaren ertz bakoitzean). Duten zabalera dela-eta, Olaldekoak nabarmentzen dira, berdegune berriak horiek. Karrikan, errekaren ondoko plaza da zonalde nagusia.

HIRI ESPAZIO LIBREAK (ESPAZIO NAGUSIAK)

EREMUA	ESPAZIOA	AZALERA (M2)	SISTEMA OROKORRA	SISTEMA LOKALA
ALT-2	Kaleberri atzeko berdegunea	2.336		X
	Mikelete kaleko berdegunea	318		X
ALT-4	Olaldeko ibaiondoko berdegunea	4.019		X
	Olaldeko berdegunea	2.025		X
KAR-1	Errota aurreko plaza	2.021		X
	Bidasoro	2.604	X	

Iturria: Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, 2015.

Sistema orokorren sareko ekipamendu kolektiboei dagokienez, ez da bat bera ere sartzen Altzibar eta Karrika hiriguneetan. Hala ere, lur urbanizaezinaren barruan, Cadarso pabilioia aipatzen da. Tokiko sistemei dagokienez, erabilera asistentzialeko eraikinak eta tokiko eraikinak sartzen dira batez ere. Altzibarren giza-harremanetarako gune berria behar dela adierazi da (estalitakoa), baina ez da adierazi auzoan non jar daitekeen.

HIRIKO EKIPAMENDUAK

AUZOA	EKIPAMENDUA	SISTEMA OROKORRA	SISTEMA LOKALA
Altzibar	Cadarso pabilioia	X	
	Eskola zaharrak (soziokulturala)		X
	Eguneko zentroa (pribatua)		X
	Lokalak (esleitu gabe)		X
	Lokalak (gaztelekua)		X
	Lokalak (UEMAren bulegoak)		X
Karrika	Iturburu baserria (haurtzaindegia)		X
	Pilotalekua		X

Iturria: Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, 2015.

Hirigune bakoitzaren planoetan, parke eta berdegune publikoak daude, baita ekipamenduak ere. Errekarekin duen loturarengatik, ALT-3 Altzibar Hegoaldea eremuan dauden berdegunea eta ekipamendua nabarmentzen dira, jada badaudenez gain. (Elizalde-Altzibarreko 1. PLANOA eta Karrikako 1. PLANOA)

X-1.1 Elizalde-Altzibar-Iturriotz planoaren xehetasunak. Kalifikazio xehatua. Hiri egitura.



Iturria: Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, 2015.

X-1.5 Gurutze-Ergoien-Karrika planoaren xehetasunak. Kalifikazio xehatua. Hiri egitura.



Iturria: Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, 2015.

c) Linea elektrikoak eta saneamendua

Paisaiarako Ekintza Planaren gaiarekin harreman handiagoa duenez (eragin bisuala eta uren kalitatea), eremuaren egoera islatzen da, linea elektrikoei eta saneamendurako azpiegitura nagusiei dagokienez.

Linea elektrikoei dagokienean, tentsio oso altuko bi lineak zeharkatzen dute eremua. Hegoalderago dagoena 380 kV-koa da, HAPOak[2] jasotzen duenez. Mugaz bestaldearekin konektatzeko balio du, eta bailararen hondoa zeharkatzen du, zeharka, Oiantzabal baserriaren inguruan. Oso ikusgarriak dira ekialdeko mendixkan (Matxillanda baserritik hurbil) eta Karrika errekarantz doan mendi hegalean (Bordalekuren eremua, Lekungarai eta Oiantzabalen artean) dauden dorreak.

Beste alde batetik, 132 kV-ko linea bat dago. Horrek, hasiera batean, aurreko linearekiko paraleloan dihardu, iparralderago, eta, ondoren, Egileorreko eremutik sartzen da; gero, Erretegibizarrene baserritik hurbil bailarari begiratzen dion dorre batekin jarraitzen du, eta, azkenik, Aranburuolatik gurutzatzen du hondoa, Arraskularretik Altzibarrerako mendi adarretan oso ikusgarria den beste dorre batekin.

Linea horri buruz, HAPOak adierazten du Pasaiako portuan dagoen zentral termikoari zerbitzu eman ondoren (dagoeneko itxita eta eraitsita dago), hariteriek eraitsi gabe jarraitzen dutela. Hori dela-eta, eta Oiartzungo udalerriari dagokionean, zerbitzurik ematen ez duten linea guztiak kentzearen alde egiten da Plan Orokorrean.

Eremua zeharkatzen duten linea txikiagoei dagokienez, Altzibarretik datorrena nabarmenduko dugu, paisaian duen eragina dela-eta. Errekaren ondotik igarotzen da Aranburuola eta Cadarso eremuetan, eta Karrikarantz egiten du aurrera. Hor, bitan banatzen da, zonalde ezberdinei arreta emateko. Linea hori tentsio ertainekoa da (13,2 kV), eta, ubidearen ondotik igarotzen denez, ibaiertzeko landaredia (haltzadiak) eta haritzak kimatu behar dira. Gainera, hartzen dituen zortasun eremuetan, horiek garatzea galarazten du.

Saneamenduari dagokionez, eta duen kokalekua dela-eta, Karrikatik Altzibarrera iristen den hondakin uren kolektorea dagoela aipa daiteke. Antzinako trenbidearen ibilbidearen azpitik igarotzen da kolektore hori, Bidasoro errotako presaren hondarrak dauden tokitik abiatuta. Erantsitako planoan, horren trazadura ikus daiteke, baita etxebizitzetatik eta hoditerietatik ubidera zuzenean doazenak ere.

[2] Beste iturri batzuetan, 400 kV egozten zaizkio linea horri, eta, 132 kV beharrean, 220 kV egozten zaizkio gero aipatutakoari.

X-3.5 Gurutze-Ergoien-Karrika planoaren xehetasunak. Tokiko sistemen zuzkidura sarearen azpiegiturak.



Iturria: Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, 2015.

2.4.2 Lurzoru urbanizaezina

a) Antolamendu kategoriak

HAPOak antolamendu kategoria hauek ezartzen ditu, Paisaiarako Planaren eremuan daudenak:

- Babes berezia

Balio natural eta zientifiko handiko eremuak dira, hauskortasun handia dutenak, flora, fauna edota kultura adierazpenak baitaude horietan. Kategoria horren barruan sartzen dira interes handiko landare eraketak; besteak beste, baso masa autoktonokoak eta lehentasunezkoak diren batasunaren intereseko habitatak.

Planaren eremuan, kategoria horretan sartzen dira *Quercus robur* harizti azidofiloak eta Karrika errekaren tarte batzuetan kontserbatzen diren haltzadiak.

- Ingurumen-hobekuntza

  - *Ingurumen hobekuntza orokorra:* narriadura prozesuen ondorioz, ahalmen ekologikoa galdu duten eta ingurumena lehengoratzeko lanak jaso behar dituzten eremuak. Karrikako harrobia kategoria honetan dago sartuta.

- *Okupazio antropikoa Lurzoru urbanizaezinean:* presio antropikoarengatik aurreko antolamendu kategorien ezaugarriak ez dituzten eremuak. Cadarsoko industria instalazioaren zati bat sartzen da kategoria honetan.

- Mendia

  - *Basoa:* zuhaitzez hornitutako estalkia edukitzeko joera argia duten eta baso ekoizpenaren irizpideek zehaztutako unitateekin bat egiten duten eremuak; hau da, Aiako Harria Parke Naturalaren barruan eta mendi publikoetan ez dauden baso landaketak.

  - *Birsorkuntza:* abeltzaintza murriztu ondoren, landarediaren bilakaerak ekarri dituen sasi eremuak, bai eta natura parkearen barruan eta mendi publikoetan dauden baso landaketak ere. Arraskuelarre EPMa kategoria honetan dago sartuta.

- Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala

  - *Nekazaritzako erabilera estrategikoa:* nekazaritza sektorerako estrategikotzat hartzen diren eremuak. Lehentasunezkotzat jotzen da horiek zaintzea eta horietan mantentze-lanak egitea. Basozaintzako LAPeko kategoria homonimoarekin bat egiten du, erabat.

  - *Trantsizioko landa-paisaia:* aurreko azpieremuak baino ekoizpen gaitasun txikiagoa duten eremu landuak edo larreez zein baso unada txikiz (mosaiko forman) estalitako eremu landazabalak.

- Azaleko uren babesa

Oiartzungo ibaiak eta arroak, eta horiei dagokien babes eremua, EAEko Ibaien eta Arroen Ordenamendurako LPSan ezarritakoa. Hauek sartzen dira kategoria honetan: planaren eremuan dauden ibaien ibilguak (Oiartzun ibaia eta Karrika erreka) eta 10 metroko zerrenda ibaiertz bakoitzean. Zerrenda horietan, landare eraketen gaineko ekintzak mugatzen dira (debekatuta dago horiek kimatzea, eta garatu daitezela sustatzen da).



b) Baldintza gainjarriak

- Akuiferoen eta azaleko arroen zaurgarritasuna: lurzorua kutsa dezaketen jarduerak toki horietan kokatzea saihestu behar da, eta kontuz ibili behar da nekazaritza eta basogintzako lanetan. Ikerketaren eremuan, iragazkortasun ertaina-altua duten materialak sartzen dira kategoria honetan.

- Eremu higagarriak: higatzeko arrisku handia duten eremuak. Horietan, zuhaitzez eta zuhaixkez hornitutako estalkiari eutsiko zaio, edo horiek egotea bultzatuko da, fenomeno higakorren aurrean babestu behar den funtsezko elementu gisara. Lurzoruaren egonkortasunari eragin diezaioketen jarduerak saihestuko dira, eta arreta berezia jarriko da nekazaritza eta basogintzako beharrezko lanetan. Arraskuelarreko eta Altamiralarreko muinoak planaren eremu honetan sartzen dira, bai eta Karrika bailarako zonalde altuetako masa basotsuak eta % 30etik gorako malda duten eremuak ere.

E-2.2. planoaren xehetasunak. Baldintza gainjarriak.



Iturria: Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, 2015.

- Uholde arriskua duten eremuak: Uholdeak Prebenitzeko Plan Osoan ezarritako eremuak dira. Horietan, ura modu librean ibiltzea bermatu behar da, ubideak eta gainezkabideak etetea eta itsutzea saihestu behar da, eta kalteak prebenitu behar dira. Besteak beste, ekipamendu komunitarioak eta intereseko zerbitzu publikoak jartzea saihestu beharko da.

- Erabilera Publikoko Mendiak: kasu honetan, Arraskuelarre mendiaren sektore bat hartzen du, baso masaren egonkortasun ahalik eta handiena lortzeko xedez kudeatu behar dena.

- Korridore Ekologikoen Sarea: Aiako Harria-Jaizkibel korridore ekologikoa. Planaren eremuari dagokionean, Aiako Harria Parke Naturalarekiko mugetatik Altzibar auzoraino hedatzen da, eta baldintzatzaile hauek ezartzen zaizkio:
    - Baso gaietan eskumena duen sailaren baimena beharko da hesi, ezponda, baso eta ibaiertzetako landareen gaineko jardueraren bat egiteko, baldin eta basa faunaren babesguneak gutxitzen baditu.
    - Ingurumena hobetzeko erabilera erraztuko da.
    - Zuhaiztiak, hesiak, ezkaiak, orla-landareak eta erreka ertzetako landareak, nekazaritza lursaileko mugen landareak eta belardiak jarri eta mantenduko dira, eta zuhaitz eta sastraka espezieen konbinaketa sustatuko da.
    - Basa faunaren joan-etorria bultzatuko da. Hala, hezeguneak eraberrituko eta zainduko dira, eta, ehiza motako itxituren ordez, igarobidea ahalbidetzen duten itxiturak jarriko dira.

- Paisaia intereseko eremuak: oso eremu zaurgarriak dira, ikusiak izateko aukera handiagoa baitaukate. Beraz, edozein jarduerak zuzenean eragiten dio kalitateari. Planaren eremuan, landazabaleko paisaiaren zati diren larreak kategoria honetan daude sartuta.

2.4.3 Egoera espezifikoak dituzten tokiak

a) Recuperaciones Industriales Cadarso eta Angulas Mayoz enpresen instalazioak

Paisaiaren Ekintza Planaren eremuan, toki giltzarriak dira horiek, bai Karrika errekaren ardatzean duten kokapenagatik, bai egun duen narriadura egoerarengatik eta enpresa nagusia laster lekualdatzeak ekarriko dituen aukerengatik.



- Recuperaciones Industriales Cadarsoren instalazioak

220 metroko luzeran eta errekaren eskuinaldeko korridore estuan, eraikin sail bat, toberak eta material biltegiak (grafitoa) daude. Artikutzako trenbide zaharraren trazadura hartzen duen bide publikoak zeharkatzen du. Aire zabalean, ehotutako grafito zakuak, erabilitako granito zilindroak (ehotu egiten dira, gero erabil daitezen), makineria eta birrintzeko zuloak (pabilioiz estalitako tokiak edo aterpeak) daude. Zanpatzeko, ehotzeko, pneumatikoak garraiatzeko, trinkotzeko eta zakuratzeko instalazioak dauzka, baita mahukadun iragazkien instalazioak, tailer mekanikoa eta bulegoak ere.

Atmosferaren eta ibaien kutsadura zela-eta, edota bide publikoa hartzeagatik, auzo-aldarrikapenak egon dira Altzibarren. Horren ondorioz, hitzarmen bat egin zuen Recuperaciones Cadarso enpresak Oiartzungo Udalarekin, 2013ko uztailaren 24an (GAO, abuztuaren 9koa). Horren bidez:

> Udalak Oiartzungo Landabarren Berri poligonoan dagoen lurzoru industrial egin berri batekin trukatu dizkio enpresari bere eraikinak eta lursailak. Egungo instalazioak uzteko epea ezarri da, poligono berrian egiten diren aurrerapenen mende dagoena. Epea 2016an amaituko da, eta behin betiko data 2017ko martxoa dela adostu da enpresarekin.[3]
>
> Udalak egungo egoeran jaso du, eta deskontaminazioari ekin dio gero. Horri buruz, aurretik lurzoruen laginak hartu eta aztertu ditu udalak. Olioak egon diren tokietan, kutsadura hauteman da, baina ez da arazo larritzat jo, berreskuratzeari begira. Edonola ere, jarduera eteten denean aztertuko da berriro alderdi hori, eta lursail horiek nahiz ingurukoak aztertuko dira.

Instalazio hauek igaroko dira udalaren titulartasunekoak izatera:

- 3.926 m^2-ko partzela. 603 m^2-ko pabilioi batek eta 573 m^2-ko beste pabilioi batek eratutako eraikina dago bertan. 60 metroko luzera duen gorputza osatzen dute bi pabilioiek. Oro har, solairu batekoa da, baina bulegoen zonaldea hiru solairukoa da. Metalezko teilatuen bidez, errekaren ubideraino hedatu da eraikina (guztira, 1.880 m^2 egiten dituzte, katastroko planoaren neurketaren arabera), eta, kanpoaldean, aire zabaleko biltegia eta aparkalekua izateko balio duen plataforma bat eraiki da. Horrela, partzela osoa erabiltzen da.

- Ondoko partzelei dagokienez, 461 m^2-koa da bata, eta 127 m^2-koa bestea. Lehenengoan, toberak eta ehoketa dorrea daude. Bestetik, ehotutako materialak biltzeko teilapea dago. Material horiek maneiatu ere egiten dira, hondeamakinen bidez. Bigarrena, berriz, zelaingunea zabaltzeko erabiltzen den lur zerrenda da.

Enpresak erabiltzen dituen espazioak, egun, errekan gora dagoen partzela hurbil bateraino hedatzen dira. Garai batean harrobiak erabiltzen zuen zamatzeko tokiaren oinarriaren gainean (trenbidean) dago partzela hori. Estalitako gunea eta aire zabaleko grafito gordailuak dauzka partzela horrek. Bide publikotik banatua dago, tuia hesi baten eta egurrezko horma baten bidez. Era berean, errekatik bereizita daude, zuzenean ibilguaren gainean kokatzen den horma baten bidez. Recuperaciones Cadarsok alokatuta dauzka lursail horiek, eta, beraz, ez dira lehen aipatutako hitzarmenaren xede.

[3] Txosten hau amaitu den egunean (2017ko apirilean), enpresak oraindik ez ditu instalazioak guztiz utzi. Hala ere, uzten hasi da, eta elementu eta eraikin batzuk zati batean eraitsi dira.

- Angulas Mayoz haztegiaren instalazioak

Lehen aipatutako pabilioien jarraiepn moduan, katastroaren arabera 259 m^2 dituen beste pabilioi bat dago (alabaina, katastro planoan neurtuta, 690 m^2 -koa da). Horren hormak ere errekaren ibilguaren gainean kokatzen dira zuzenean. Irekitako ur tanga batekin osatzen da. Angulen haztegia hornitzeko erabiltzen du ur hori. Eraikinaren kanpoaldeko egoerari eta mugimenduari erreparatuta, ezin daiteke ziurtatu jarduerak bere horretan irauten duenik.

Instalaziorako ur hargunea 400 metro gorago dagoen presa txiki batean dago. Bidasoro errotaren ondoan dago hori, eta lurpeko kanalizazio batetik igarotzen da. 19,5 l/s-ko emakida dauka akuikultura erabilerarako, eta Angulas y Mariscos Hnos. Mayoz SL enpresaren izenean dago.

- Bi instalazioen egoera, udalaren plangintzari dagokionean

HAPOaren memorian, Cadarso pabilioia zein angula haztegiaren pabilioia ageri dira Sistema Orokorren Sarearen ekipamendu kolektiboen sarean. Hirigintza araudiarekin bat eginez, egun titulartasun pribatukoak diren sistema orokorrek eragindako lursailak udalari transmititu behar zaizkio, eta bere jabarira sartuko ditu horrek, ezar daitekeen hirigintza legedian zehaztutako moduen bitartez.

Plan hau idazteko unean, ez dago Recuperaciones Industriales Cadarsoren instalazioei eman beharreko erabileraren gaineko zehaztapen zehatzik, eta, era berean, ez da adierazi zein egoeratan geratzen diren angula-haztegiaren pabilioia eta horren ondoko lursaila; izan ere, grafitoa biltegiratzeko erabiltzen da, baina ez dago hitzarmenean sartuta. Cadarsoren instalazioetarako sustatu diren aukeren artean, udaleko obra zerbitzuetarako biltegi erabilera dago. Proiektu honetan zehaztu behar da zeintzuk izan daitezkeen erabilera posibleak.

X-1.1 Elizalde-Altzibar-Iturriotz planoaren xehetasunak. Kalifikazio xehatua. Hiri egitura.



Iturria: Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, 2015.

b) Antzinako ofita harrobia

Altamilarre mendi hegalean dago, Artikutzako errepidearen ondoan. Ofita ateratzeko ustiatu zen harrobi hori, eta, ofita horrekin, errepideak eraikitzen ziren. Trenez garraiatzen zen Errenteriaraino, lehen aipatu dugun zamatzeko tokia erabiliz. Horma altuak dauzka, hein batean landarediz estalita daudenak. Oinean, azken urteotan garabiak eta eraikuntzarako ekipoak biltegiratzeko erabili den zabaldegia dago.

Egun, barrualdeko zabaldegia hutsik dago, eta horma baten bidez eta zuzenean errepidera ematen duen ate baten bidez dago itxita. Errepidetik, oso ongi ikus daiteke. Gutxi gorabehera, 5.000 m^2-ko azalera dauka, eta 15.600 m^2-koa izatera irits daiteke, induskatu gabeko ondoko eremuak ere sartzen baditugu, katastroko datuen arabera.

Udalaren plangintzan adierazten denez, ingurumena hobetzeko tokitzat hartzen da espazio hori; beraz, berori birsortzea bultzatzen da, nahiz eta beste erabilera batzuetarako erabiltzea baimentzen den, modu mugatuan.

2.4.4 Udalerriaz gaindiko beste plan eta tresna batzuk, planaren eremuan eragina dutenak

a) EAEko Ibaien eta Erreken ertzak antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala

Lurralde Plan Sektorial horrek hiru osagairen araberako antolamendua ezartzen du:

- Ertzen antolamendua, ingurumen osagaien arabera

  - *Lehentasunezko interes naturalistikoa duten eremuetako ertzak.* Karrika errekaren ertzak sartzen dira, Aiako Harria Park Naturalean eta KBEn daudenak. Babesteko irizpide orokorra zera da, ubidea babesteko zonaldea ezartzea, non ezingo den ingurunea asaldatzen duen jarduerarik egin. Dagozkien antolamendu dokumentuetan ezarritakoak izango dira erabilera eta jarduera baimenduak, onargarriak eta debekatuak.

  - *Ondo kontserbatutako landaredia duten ertzak.* Eremu hauek sartzen dira Paisaiarako ekintza-planaren zonaldean:

    - Bi ertzak, Cadarsotik gora eginda 165 metroko tartean, Arraskularre eta Altamiralarre mendien artean.
    - Eskuinaldea, Artasotik gora eginez, 260 metroko tartean gutxi gorabehera.
    - Ezkerraldea, Oiantzabaletik Aiako Harria Parke Naturalera sartzen den arte, 600 bat metroko tartean, paisaiarako ekintza-planaren eremuaren barruan.

    Ertz horietan dagoen landaredia babestu nahi da, ekosistema egoera klimazikotik hurbil dagoenean; bestela, klimaxerantz aurrera egin dezala bilatzen da, jarduera birsortzaile bigunen bidez, landaredi baliotsua egon dadin.

    Lurralde Plan Sektorialaren araudiaren arabera, ondo kontserbatutako landaredia duten eta landa eremuan dauden ertzetan, beti errespetatuko da 10 metroko gutxieneko distantzia, ibaiertzeko landaredi orlaren kanpoko ertzari dagokionez, eta lursail naturala asaldatzen duen edozein esku hartzeri ezar dakioke hori, obra publikoetan eta azpiegituren instalazioetan edo kultura ondarea babesteko ekintzetan salbu. Gainera, ibaiertzeko landarediko zuhaitzak eta zuhaixkak mozteko, araudi sektorial espezifikoak aurreikusitako araubidea jarraitu beharko da.



- <u>Arro hidraulikoetako ur-ibilguen tramifikazioa</u>

  Kategorizazio honen arabera, Karrika erreka 0 kategoriakoa da (1 eta 10 km^2 arteko arroa), eta Oiartzun ibaia 1 kategoriakoa (1 eta 50 km^2 arteko arroa).



- <u>Ertzen antolamendua, hirigintza osagaien arabera</u>

  Ikerketaren eremuan, osagai horren araberako bi ertz mota daude:

- *Eremu garatuetako ertzak:*
    - Ezkerraldea: Altzibar auzoa Martinmotzenearaino, eta Karrika auzoa Larraldapatik Bidasororaino.
    - Ezkerraldea: Altzibar auzoa Olalderaino, eta Karrika auzoa Arraskuetik Bidasororaino.

  Ertz mota horietarako, gutxieneko distantzia hauek ezartzen dira:
    - Muga lerroa edo zehaztutako bideratzea daukatenentzat: 10 metroko distantzia
    - Muga lerrorik edo zehaztutako bideratzerik ez daukatenentzat: 12 metroko distantzia

- *Landa-eremuko ertzak:* gainerako ertzak, Oiartzun ibaiaren eskuinaldea barne hartuta, Karrika errekarekin bat egiten duen tokitik behera. Gutxieneko distantzia hauek ezartzen dira:
    - Karrika errekaren ertzak (0 kategoria, osagai hidraulikoaren arabera): 15 metroko distantzia
    - Oiartzun ibaiaren ertzak (1 kategoria, osagai hidraulikoaren arabera): 30 metroko distantzia

  Oro har, lursail naturala asaldatzen duen edozein jarduerari ezartzen zaizkio distantzia horiek (eraikuntzak, instalazioak, lur mugimenduak eta abar), nekazaritza eta basogintzako lanei, obra publikoei eta erabilera publikoko edo interes sozialeko azpiegituren obra publikoei eta instalazioei edo kultura ondarea babesteko ekintzei izan ezik.

  Bestalde, ubideen albo bakoitzean, 100 metroko zabalera duen zerrendan, Lurzoru Urbanizaezinek berezkoak dituzten eraikuntzak, jarduerak eta lur erabilerak bakarrik baimenduko dira.

  Ingurumen osagaiaren arabera lehentasunezko interes naturalistikoa duten edo ondo kontserbatutako landaredia duten zonaldeetan dauden landa eremuetako ertzetan, Altamiralarre eta Arraskuelarre muinoen arteko tartean edota Karrika auzoan goiko uretako tarte batzuetan gertatzen den bezalaxe, egungo natura egoerak asalda ditzakeen edozein jarduerak bermatu beharko du ingurune fisikoaren ezaugarriak kontserbatuko direla. Nolanahi ere, natura ingurunearekiko errespetu gorena eskatu beharko da, eta, hala badagokio, baita interes kulturaleko ondarearekikoa ere. Bestalde, egin ahal izan diren kalteak zuzentzeko neurriak hartzea eskatuko da.



b) EAEko Nekazaritzako eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala

Lurralde Plan Sektorial hori irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko, eta nekazaritza lurrak zehazteko eta babesteko xede orokorra dauka; batez ere, nekazaritzarako balio handia duen lurra babestekoa. Gainera, ingurumen babesarekin bateragarriak diren landa irizpideetatik abiatuta sustatu nahi du lurralde antolamendua, eta lurzoru urbanizaezina zonakatzeko irizpideak gomendatu.

Lurralde Plan Sektorial horretan jasotako kategorietatik, hauek daude jasota planaren eremuan:

- Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko kategoria:

    - *Balio estrategiko altua*: gaitasun agrologiko handiagoa duten lurzoruak eta sektorerako estrategikotzat jotzen diren nekazaritza ustiapenetarako lursailak. Lehentasunezkotzat jotzen da horiek mantentzea eta babestea. Lurralde Plan Sektorialaren araudiarekin bat eginez, nekazaritza jarduerekin zerikusia daukaten erabilerak bakarrik sustatzen dira lurzoru horietan. Hala ere, beste batzuk ere onartzen dira; esaterako, hauek: ingurumen hobekuntza, aisialdi estentsiboa, ehiza eta arrantza, abeltzaintza eta azpiegitura zein eraikuntza erabilerekin zerikusia duten beste batzuk. Dena dela, debekatuta daude hondakindegiak eta hondakin solidoen zabortegiak, aurretik baziren nukleoetan bermatu ez diren hazkuntzak edo ustiapenari lotuta ez dauden bizitegi erabilera isolatuak.

      Kategoria honetan sartzen dira Karrika auzoaren inguruko bailararen hondoko lurzoruak, baita Altzibarko Olalde zonaldearen inguruko nekazaritza partzela batzuk ere.

      Zonalde horietan, lurzoruen, nekazaritza eta abelazkuntzako jardueren eta, bateragarriak izanik, nekazaritza ekosistemak eta paisaiak babestea ziurtatzen duten beste jarduera batzuen gaitasun agrologikoari eustea da irizpide orokorra. Nekazaritza azalera erabilgarriari eutsiko zaio.

    - *Trantsizioko landa paisaia:* ekoizpen gaitasun txikiagoa duten eremu landuak edo larreez zein baso unada txikiz (mosaiko forman) estalitako eremu landazabalak. Kategoria honetan, aurreko kategorian ez dauden gainerako landazabalak sartzen dira.

- Baso kategoria: egungo erabilera edo erabilera joera (arriskuak, arroen babesa eta abar) dela-eta, zuhaitzez hornitutako estalkia edukitzeko joaera argia daukaten lursailak. Kategoria honetan sartzen dira planeko eremuan baso erabilera duten lurzoru gehienak; adibidez, Arraskuelarre, Galbaiomendi edo Karrikako mendi-bizkar basotsuak.

Lurralde Plan Sektorialak, gainera, gainjarritako baldintzatzaileak dituzten hainbat kategoria hartzen ditu; esate baterako, paisaia oso asaldatuta ez duten zonaldeak. Kategoria horiek zehazteko, paisaia aztertzeko behar diren irizpide eta jarraibideak ematen ditu Planak, zaurgarritasun bisual handiena duten paisaiak azpimarratuz; hau da, paisaia ikusgarrienak edo eragin negatibo handia duten elementuetatik babestutako paisaia kalitate handiena duten zonaldeak edota hiri inguruko edo trantsizioko paisaiak azpimarratuz. Alabaina, "gutxi asaldatutako" paisaiak bakarrik jasotzen ditu gainjarritako baldintzatzaileen artean, eta oraindik zehaztu gabe daude horiek.



c) Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioa

Planaren eremuan, kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak jasaten dituzten edo jasan dituzten lurzoruen inbentarioan sartuta dauden hiru partzela daude. Irailaren 30eko 165/2008 Dekretuak erregulatzen du inbentario hori. Partzela horiek Olalden, Altzibarko industrigunean eta Cadarson daude.

Cadarson, lagin batzuk hartu dira, eta, industria jarduera utzi ondoren, lurzorua ebaluatuko da. Olalden, urbanizazio obrak egitean, deskontaminatzeko obrak egin ziren.



d) Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013ko ekainean onartu zuen plan hori, eta hiri arteko mugikortasuna garatzeko azpiegituren sarea antolatzen eta planifikatzen du. Ikerketa eremuan, bide honetatik igarotzen da zati bat:

- I-1.3 Errenteria-Oiartzun: Arditurri bide berdea izenaz ezagutzen da, eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarearen zatia da. 1. ibilbideko adartzat hartzen da honako hau: Donostia-Irun, Errenteria eta Oiartzun (Arditurri) lotzen dituena, Fanderia auzotik abiatuta. 9,3 kilometroko luzera dauka guztira. Lurralde Plan Sektorialak Tokiko Oinarrizko Sareari egozten dio ibilbide hori, eta, beraz, udal erakundeei (Oiartzungo eta Errenteriako Udalei) dagozkie bai horren titulartasuna, bai horren kudeaketa.

2.5 ARRO BISUALEN AZTERKETA

Paisaia ikertzeko eta kudeatzeko tresna erabilgarria da arro bisualen sailkapena; izan ere, horrekin, hainbat gunetatik ikus daitezkeen azalerak mugatu daitezke lursailaren gainean. Erliebearen, inguruaren, gehieneko eta gutxieneko altitudearen, lurzoruaren erabileren eta abarren arabera ezaugarritu daitezke azalera horiek.

EAEko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoaren aurreproiektuaren arabera (2005), Altamiralarre eta Arraskuelarre muinoek markatzen duten gailur-lerroarekin bat eginez banantzen diren bi arro bisual hartzen ditu planaren eremuak. Bi arro bisual horiek, argi eta garbi, eremuko bi ibai ibilguri lotuta daude (Karrika errekari eta Oiartzun ibaiari):

a) 022-Altzibar arro bisuala

Arro bisual horrek, gutxi gorabehera, bat egiten du Karrika errekaren arroarekin. 880 hektareako azalera du, eta 762 metroko gehieneko altitudea. Oiartzun udalerrian dago ia oso-osorik.

Paisaia batez ere naturala duen arroa da; izan ere, arroaren % 60 baino gehiago dago Aiako Harria Parke Naturalaren barruan. Baso erabilera (% 55,7) eta landa erabilera (% 15,1) dira nagusienak. Hiri erabilera gutxienekoa da (% 0,2), eta Karrika auzoan pilatzen da. Beste erabilera batzuek (larreek eta sastrakek) % 29 hartzen dute, eta arro horren bereizgarria den landazabaleko paisaiaren funtsezko osagaiak dira. Azpiegitura linealek garrantzi handia dute arro horretan, 380 kV-ko linea elektrikoak 2,1 kilometro hatzen baititu, eta 220 kV-ko linea elektrikoak 0,6, iturri horrek emandako datuen arabera.

Ikerketa eremuaren ia % 87 (85 hektarea) arro bisual horretan dago, zeina Altamiralarre eta Arraskuelarre muinoek markatzen duten lerro banatzailetik eremuko goiko uretako mugaraino hedatzen den.

b) 417-Oiartzun arro bisuala

1.304 hektareako azalera dauka, eta 412 metroko gehieneko altitudea. Azaleraren % 100 dago Oiartzungo udalerrian.

Arro horrek bat egiten du Oiartzun ibaiaren bailararekin, eta Ugaldetxotik Ergoienera hedatzen da. Udalerriko landa, bizitegi eta industria eremu osoa hartzen du. Beraz, landa erabilera da nagusiena (% 51); baso erabilera dator gero (% 14,4), eta hiri erabilera ondoren (% 9,9). Beste erabilera batzuek (mendiko larrek eta sastrakek, adibidez) azaleraren % 23,7 hartzen dute. Azpiegitura lineal asko dago; linea elektrikoak, adibidez: 380 kV-ko linea elektrikoa 1,5 kilometrokoa da, 220 kV-koak 7,8 kilometro dauzka, eta 132 kV-koak 6,3, iturri horrek emandako datuen arabera.

Planaren eremuari dagokionez, arro horrek azaleraren % 13 baino ez du hartzen, eta bat egiten du Altzibar auzoan dagoen Karrika errekaren tarterik urbanoenarekin eta horren ondoko industrigunearekin. Oiartzun ibaiarekin bat egiten duen tokitik Altamiralarre-Arraskuelarre lerro banatzaileraino hedatzen da.



ARRO BISUALEN EZAUGARRIAK (2005)

		022-Altzibar	417-Oiartzun
Azalera	*Ha*	880	1.340
Garaiera	*Gutxienekoa*	50	20
	Ertaina	333	128
	Gehienekoa	762	412
Etxebizitzak		38	2.255
Biztanleak		133	7.897
Egunerokotasuna		Egunerokoa	Egunerokoa
Osagaiak eta erabilerak (%)	*Hirikoa*	0,2	9,9
	Landakoa	15,1	51,0
	Basokoa	55,7	14,4
	Uretakoa	0,0	1,1
	Beste batzuk	29,1	23,7
	Naturalistikoa	62,9	0,0
Kokapen geografikoa		Atlantikoa	Atlantikoa
Errepideak (km)	*Eskualdekoa*	0	0,8
Linea elektrikoak	*380 kV*	2,1	1,5
	220 kV	0,6	7,8
	132 kV	0	6,3
Planaren eremuko azalera	*Ha*	85,3	13,2
	%	87	13

2.6 AZTERKETA BISUALA

Azterketa bisualaren bidez, paisaiaren ikusgarritasuna zehazten da; hots, behaketa gune nagusietatik eta ibilbide eszenikoetatik ikusgarrienak diren zonaldeak zehaztu daitezke. Kasu honetan, Paisaiarako ekintza-planaren eremuan asaldatzeko aukera handiagoa zein zonaldek duten eta, ondorioz, zein zonalde babestu edota birsortu behar diren gehiago zehazteko balio du azterketa horrek.

Funtsean, bi alderditan oinarritzen da azterketa:

- Egitura eta esposizio bisuala: paisaiaren egitura, maldak, orientazioak eta erliebea aztertzen dira.
- Behaketa guneak eta ibilbideak: herritarrek paisaia aukera handiagoz hautemateko zonaldeak eta bideak zehazten dira.

2.6.1 Egitura eta esposizio bisuala

Paisaian gertatzen diren harreman bisualak baldintzatzen ditu lurraldearen fisionomiak. Horregatik, ikerketa eremuaren ikusgarritasuna zehazteko, maldak eta orientazioak aztertzen dira lehenik, erliebezko mapa batean islatuz horiek. GIS tresna baten bidez egin da analisi hori, lurrazalaren eredu digitaletik (MDT) abiatuta. Horren gainean egin dira erliebezko mapa edukitzeko kalkuluak. Irudiko puntu edo pixel bakoitzaren maldei eta orientazioei buruzko informazioa jasotzen du mapa horrek, eta pixel bakoitza nondik ikus daitekeen zehaztea ahalbidetzen du horrek.



2.6.2 Behaketa guneak eta ibilbideak

Paisaia leku ugaritatik atzeman daiteke, baina gune eta ibilbide jakin batzuek jende gehiago hartzen dute. Beraz, jende gehiagok behatzen du lurraldea gune horietatik. Gune eta ibilbide horiek zehazteko, *2.3.7. Bide publikoak, ibilbideak eta jende asko dabilen eremuak* atalean identifikatutako ohiko ibilbideetan eta aisialdiko ibilbideetan oinarritzen gara. Horietatik, jende gehien hartzen dutenak hautatu dira, bai tokiko biztanleei dagokienez, bai bisitariei dagokienez, eta hauxe da emaitza:

- Arditurri bide berdea edo bidegorria: Gipuzkoan jende asko hartzen duten bide berdeetako bat da, tokiko biztanleek ere asko erabiltzen dutena.
- GI-3631 errepidea: Parke Naturalera iristeko bidea. Bertatik, Karrikako bailararen ikuspegi zabalak beha daitezke. Asteburuetan, jende asko hartzen du.

Ikusgarritasun azterketa egiteko, behaketa gune zehatzak hautatu behar dira. Arditurri bide berderako, gune bakarra hautatu da, ibilbide horrek puntu zehatz batean zeharkatzen baitu ikerketa eremua. Eremu horren barruan zatirik handiena duen gunea hautatu da.

G-3631 errepideak, berriz, luzetara zeharkatzen du eremua, eta mendebaldetik mugatzen du planaren eremua; beraz, hainbat gunetatik ikus daiteke. Ibilbide horretan, 8 behaketa gune hautatu dira.



2.6.3 Ikusgarritasuna

Azterketa bisualaren laburpen gisara, ikusgarritasunaren kartografia bana egin da hautatutako ibilbideetarako, eta, horietan, zonalde ikusgarrienak eta ikus ezin daitezkeenak adierazi dira. Hauskortasun bisualaren mailaren arabera adierazi da emaitza; izan ere, zonalde ikusgarrienetan dago paisaia asaldatzeko aukera handiagoa. GI-3631 errepideari dagokionez, hauskortasun oso handiko, handiko, ertaineko, txikiko eta oso txikiko zonaldeak islatzen dira mapan, zonalde bakoitza ikus daitekeen gune kopuruaren araberakoa baita hori. Alabaina, bide berdeari dagokion mapan, zonalde ikusgarriak eta ikus ezin daitezkeenak jasotzen dira, behaketa gune bakarretik abiatu baita analisia.

Bidegorrirako hautatu den gunetik, hauek dira zonalde ikusgarrienak: Oiartzun ibaiaren terrazak, Altzibar auzoan nekazaritza erabilerarako dauden lursailak, Altamiralarre eta Arraskuelarre muinoetako iparraldeko mendi hegalak eta Karrika auzoko mendi bizkar basotsuak.



Bidegorriko behaketa puntutik beha daitekeen ikuspegia.

GI-3631 errepidetik, hauek dira zonaldeko ikusgarrienak: Altamiralarre eta Arraskuelarre muinoetako hegoaldeko mendi hegalak, Karrika auzoko landazabala, Galbariomendi muinoa eta Karrikako mendi bizkar basotsuak.



Karrikako landazabalaren, Arraskuelarreko hegoaldeko mendi hegalaren eta Galbaiomendiren ikuspegi orokorra, eta, atzekaldean, Aiako Harriaren gailurreria granitikoa.

2.6.4 Hauskortasun bisual handiagoa duten eremuak

Azterketa horren emaitza gisa, Paisaiaren Ekintza Planaren eremurako hauskortasun bisual handiagoa duten eremuak identifikatu dira:

- Altamiralarre eta Arraskuelarre muinoak (iparraldeko zein hegoaldeko mendi hegalak).
- Karrika auzoko landazabala.
- Karrikako mendi bizkar basotsuak.



3. PAISAIAREN BALIABIDEEN IDENTIFIKAZIOA ETA AZTERKETA

3. PAISAIAREN BALIABIDEEN IDENTIFIKAZIOA ETA AZTERKETA

Paisaia baten elementu bereziak dira paisaiaren baliabideak, eta paisaia horren banakotasuna zehazten dute. Balio bisuala, ekologikoa, kulturala edota historikoa izaten dute. Horiek identifikatzeko, informazio zehatza hartzen da kontuan: batetik, babes mailaren bat duten lekuei eta elementuei buruzko diagnostikoak ematen duen informazioa; bestetik, bakanak diren edo arreta berezia merezi duten zonaldeak edo elementuak ezartzen dituen lurralde analisiaren lan teknikoaren emaitza; eta, azkenik, herritarrek baloratzen dituzten alderdiak ezagutzea ahalbidetzen duen parte hartzeko prozesuan jasotako ekarpenak.

Elementuak lau kategoriatan multzokatu dira:

- Interes naturaleko paisaiaren baliabideak
- Interes historiko-kulturaleko eta arkitektonikoko paisaiaren baliabideak
- Interes bisualeko paisaiaren baliabideak
- Paisaiara iristeko baliabideak eta azpiegitura berdea

3.1 INTERES NATURALEKO PAISAIAREN BALIABIDEAK

Ondo kontserbatutako landarediarekin eta habitatekin zerikusia duten natura baliabideek ematen diote paisaiari kalitatea. Horrela, bada, ibai ibilguekin, baso naturalekin eta larreekin lotutako landaredia nabarmentzen da. Gainera, ur geruza bera eta ibaietako habitat multzoa (ondo kontserbatutako ibai ubideak eta ibaiertzak), paisaiaren ikuspuntutik begiratuta interes handiko elementuak izateaz gain, mehatxatutako fauna espezieen habitata ere badira. Ibaiertzeko landaredia nahiz segabelardiak batasunaren intereseko habitat dira, eta gaur arte iraun duten antzinako basoen aztarna dira kontserbatzen diren harizti batzuk. Bestalde, ikerketa eremuko natura ingurunearekin zerikusia duten paisaia baliabideak osatzen dituzten hainbat elementu nabarmendu daitezke, horien artean, interes geologikoa dutenak.



PB.1 Ibaiertz naturaletako landaredia

Karrika errekako ibaiertzeko tarte batzuek ondo kontserbatutako landaredia daukate; funtsean, ibaiko habitatarekin lotutako landaredia da (haltzadia-lizardia), baina haritzak, astigarrak, eta bestekao espezieak ere badaude. Altamiralarre eta Arraskuelarre muinoen arteko tartea nabarmentzen da, baita Artasoko goiko uretako tarte batzuk eta Oiantzabal ingurua ere, ezkerraldea batez ere, ondoko baso naturalarekin lotzen baita ibaiertzeko landaredia. Batasunaren intereseko habitata eratzen du haltzadiak (91EO* kodea - Haltzadiak eta lizardiak), EAEn oso urria baita, eta mehatxatuta baitago.

PB.2 Ibaiko habitata, ur geruza eta ur jauziak

Ertz eta ubide naturalak (bideratu gabeak), ur geruza garbia, ur lasterrak, putzuak eta ur jauziak dauzkaten erreka zatiak. Putzuetan eta ur geldietan hainbat arrain ikus daitezke (amuarraina, adibidez), eta hegazti batzuk (ur zozoa eta martin arrntzalea, esaterako) ur horietan elikatzen dira. Hobekien kontserbatutako tarteek mehatxatutako espezieak (muturluze piriniarra, bisoi europarra edo ibaiertzeko saguzarra, adibidez) eta intereseko flora (*Soldanella villosa* edo *Saxifraga clusii*) eduki ditzakete. Cadarsoko goiko uretan, Karrika auzoko hiri zatian eta hormen edo harri lubeten bidez bideratutako unean uneko zonaldeetan izan ezik, ohantze naturalagoa, ertz naturalak edo naturalizatuak, ur jauziak eta ur geruza garbia erakusten ditu ibai-ibilguak. Parke Naturalaren inguruan eta Altamiralarre eta Arraskuelarre muinoen artean daude kalitate handieneko tarteak. Horietan, ubide eta ertz naturalak daude, bai eta putzuak, jauziak eta ur lasterrak eratzen dituen ohantze harritsua ere. Ibilgu nagusira jariatzen diren errekastoetan ere, ondo kontserbatutako ibaiko habitata duten tarteak aurki daitezke.

PB.3 Harizti azidofiloa eta baso mistoa

Quercus robur haritza nagusitzen den baso eraketak, Altamiralarre eta Galbaiomendi muinoak estaltzen dituzten intereseko beste espezie batzuekin batera (gaztainondoa eta gorostia, besteak beste), eta Karrikako baso izendatutakoak, zeinak 40tik gora taxon dituen, egitura konplexutasun handia eta birsortzeko gaitasun handia erakusten dituzte. Puntu batzuetan, errekaren ertzeraino iristen da hariztia, non ur bazterreko espezieak (hala nola, lizarra eta haltza) dauden. Babestutako faunaren espezieen habitata da, eta, besteak beste, hauek aurki ditzakegu bertan: esculapioren sugea, basakatua eta hainbat saguzar espezie. Haritz altu batzuk nabarmentzen dira, Artikutzako tren zaharraren trazaduran ikus daitezke-eta; baita gaztainondo handi batzuk ere.

PB.4 Segabelardiak

Baserri tradizionalari lotutako landare formazio horiek funtsezko osagaiak dira Paisaiarako ekintza-planaren eremuan gailentzen den landazabalean. Interes bisual eta kulturala edukitzeaz gain, hainbat saguzar espezierentzako habitata da. Horien artean, ferra saguzar mediterraneoa (galzorian dagoen espeziea) eta belatz handia gisako hegaztiak nabarmentzen dira. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapen tradizionalei eustearen mende dago, zuzenean, habitat horien kontserbazioa. Horietan, aldizka mozten da belarra (urtero bi edo bost aldiz), eta, normalean, gramineoak loratu direnean hasten da mozteko garaia. Bestetik, neguan ongarritu egiten dira.

PB.5 Interes ekologikoko zonaldeak

- Oiartzun ibaiaren terrazak: interes zientifiko-didaktikoa duen eraketa geomorfologikoa. Bertan, lau terraza kontserbatzen dira, hainbat altueratan. Altzibar auzoaren zati bat terraza horien gainean garatu da, eta Eusko Jaurlaritzaren Interes Geologikoko Tokien Inbentarioan daude sartuta horiek.

- Galbariomediko koralezko arrezifea: 120 milioi urte baino gehiago dituen koralezko arrezife baten hondarrek eratzen dute muino hori. Bertan, gainera, koralen, moluskuen eta karedun algen hondar fosilak ikus daitezke.

- Ofita hobiak: Karrikako harrobiaren inguruan daude arroka bolkaniko horiek, eta arrakalen bidez sortu ziren, duela 200 milioi bat urte. Ofita batzuetan, epidotak ikus daitezke, kristal berde txikiak.

Galbariomendiko koralezko arrezifea

3.2 INTERES HISTORIKO-KULTURALEKO ETA ARKITEKTONIKOKO PAISAIAREN BALIABIDEAK

Industriaurreko jarduerek eta arkitektura tradizionalak ondare historiko-kultural eta arkitektoniko aberatsa utzi dute eremuan. Elementu batzuk (errotak edo dorretxeak, adibidez) katalogatuta eta babestuta daude. Hala ere, hain ikusgarriak ez diren beste elementu batzuk (burdinolaren hondarrak edo antzinako meatze trenbidearen trazadura) aurkitzeko eta baliozkotzeko daude oraindik.



PB.6 Artikutzako trenbidea-Ofita zamatzeko tokia

Artikutzako trenak Artikutzako eta Karrikako bailaretako meategiak, arroka ustiapenak eta baso ustiapenak komunikatzen zituen, Errenteriako Compañía del Norte geltokiarekin. Lehenengo tartea 1898an abiarazi zen, eta Errenteriarekin lotzen zuen Zorrola. Trenari eusten zioten jardueren ustiapena eten egin zenez, handik bi hamarkadara utzi zuen jarduna. Paisaiarako ekintza-planaren eremuan bertan, gune horretatik hurbil dauden elementuak daude; hala nola, Oiartzun ibaiaren gaineko zubia, Altzibarrekoa (gaur oinezkoentzat da), eta horren trazadura markatzen duen lur berdinketa. Gero, Altzibarretik Karrikarantz abiatzen da trazadura hori, errekaren goiko ubiderantz, ubidetik hurbil beti. Artaso elkarteko goiko uretan, Masburu zubiraino, trazadurak jarraitu egiten du, nahiz eta zati gehienean ezin daitekeen bertan ibili. Handik aurrera, berriro erabil daiteke.



Trenbideari lotuta, harrobian zamatzeko tokiak harrizko hormak dauzka, bai eta uhateak eta tunela ere, errekaren gainean. Egun, landarediz estalita dago, eta biltegiratze industrialeko instalazioek ezkutatuta; hala ere, baliozkotu beharreko elementua da, bai duen izaera historikoagatik, bai Karrika errekaren ondoan dagoelako, bai trenbidearen trazaduragatik.

PB.7 Aranburuko, Bidasoroko eta Arraskueko dorretxeak

Jatorriz, XVI. mendekoak dira oinetxe horiek, eta bailaran zehar daude kokatuta, erdialdean. Bada, hirurek zituzten aprobetxamenduak errekan (burdinola lehenengoak eta errotak beste biek). Eraikinak baserri bihurtuta daude, eta neurri handi edo txikiagoan kontserbatzen dute dorretxearen aztarna. Babes mota ezberdinetan daude sartuta. Kokapenarengatik eta egoerarengatik, Bidasoro nabarmentzen da; izan ere, oso ondo ikus daiteke errekaren hondoko ibilbidetik.

Aranburu baserria

Bidasoro dorretxea

Arraskue baserria

PB.8 Aranburuolako burdinolaren hondarrak

Karrika errekaren ondoan eta oinezkoen bidearen bi alboetan, burdinolaren presaren, ubidearen eta gelen hondarrekin bat egiten duten harrizko hormen hondarrak daude. 1549koa da burdinolari egiten zaion lehen aipamena, eta 1860an eten zuen jarduna. Presaren paramendua nabarmentzen da. Kalitate bisual eta natural handiko inguru berezian dago, eta errekaren laster zalapartatsuak ezaugarritzen du, ibaiertzeko landarediaren erdian.

PB.9 Ugarteko, Bidasoroko eta Arraskueko errotak

Horietako lehena Oiartzun ibaian dago, XV. mendeko jatorrizko multzoaren barruan. Hasiera batean, burdinola eta titularraren egoitza izan zen. Gipuzkoako etxe zaharrena da. Arditurri bide berdearen eta Oiartzun ibaiaren artean dago eraikuntzen multzoa. Eraikinez gain, ubidearen antepara nabarmentzen da. Neurri handiak dauzka (700 m^2), eta ur ispilua eratzen du.

Bidasoroko errota Karrika errekan dago, eta bere presaren eta eraikinen zati bat kontserbatzen du. Bai presa, bai eraikina aldatuta daude. Arraskuerrota erreka beraren gainean dago, eta egikera ederra duen eraikin bat dauka, duela gutxi birmoldatu dena. Bestetik, estolda eta antepara ere badauzka, urez beteta. Etxebizitza partikularra bada ere, errotaren makineria dago barrualdean (hiru errotarri pare eta hiru burute). Bidasorok errota aktibo izateari utzi zion 1900ean, Ugartek 1965ean, eta Arraskue aktibo dago oraindik, erabilera partikularrerako.

Ugarteko errota

Bidasoro errota

Arraskuerrota

PB.10 Ugarteolako zubia

Oiartzun ibaiaren gainean eta izen bereko multzotik hurbil, zeinarekin lotuta zegoen, itxura kurbatuarengatik nabarmentzen da Ugarteko zubia. 11,10 metroko arkua ikus daiteke, eta 3,80 metroko altuera du. Zubiaren forma ibaiaren uretean islaten da. Eraikuntzari dagokionez, arkuteriak egikera ona du, eta jatorrizko eraketa atzeman daiteke oraindik.

PB.11 Gartzieneko, Artasoko, Retegiko eta Oiantzabalko karobiak

Karea fabrikatzeko landa eraikuntzak ziren horiek. Euskal Herrian, XVIII. mendekoak dira, baina XX. mendeko 30. hamarkadara arte erabili izan dira. Proiektuaren eremuan bost adibide dauzkagu, Karrika errekaren ondoan bostak. Barrualdearen, arkuaren eta goiko ahoaren egoera ezin hobearengatik, Gartzienekoa nabarmentzen da (egun abereak babesteko erabiltzen da), kontrahorma boteretsu eta arkuaren gaineko bi bloke handiekin. Artasokoa probalekuaren eta pilotalekuaren ondoan dago, eta ongi ikus daitezkeen elementuak dauzka (arkua, adibidez), Retegikoak bezalaxe. Altamiralarreko mendi hegaletan dago azken hori. Oiantzabal ondoan daudenek ez dituzte hondar hain ikusgarriak.

PB.12 Altzibarko gurutzadurak

Altzibarko erdigunean, zuhaitzez hornitutako bi plaza txikitan sartuta, bideak gurutzatzen zituzten bi gurutzadura kontserbatzen dira. Altzibar Bekoa izenekoa Ugarteolako zubiaren ondoan dago, eta Altzibar Goikoa izenekoa Mikelete kaleko triangelu formako plaza txikian. Kristo gurutziltzatuaren irudia irudikatzen dute, eta fuste zilindrikoen gainean daude jarrita. Irudiek narriadura maila nabarmena dute. Donejakue Bideari lotutako intereseko ondasunen artean sartu ziren biak; azkenean, ordea, "kultura ondasun" kalifikazioa kendu zioten, aldatu egin baitzuten bideari esleitutako trazadura Oiartzungo udalerritik.

PB.13 Iragorri hilerria

Artikutzako errepidearen ondoan dago Oroimenaren Basoa-Iragorriko hilerria, tamaina handiko haritzak gailentzen diren toki basotsu baten barruko larrean. Gerra Zibileko ehorzketak daude bertan, eta horma hobi metalikoak jarri ziren 13 gorpu aurkitu ziren tokietan. Bestetik, horien argazkiak erakutsi ziren, taula batzuetan. Bertara sar daiteke, eta Kattin Txiki elkarteak eta Oiartzungo Udalak prestatu dute.

PB.14 Arraskularreko harri lehorrezko murruak

Lerrokatutako harrizko hormen hondarrak Arraskuelarren. Mendi horretako antzinako bidezidorretatik ikus daitezke hondar horiek. Titulartasun publikoko partzelaren mugekin bat egiten dutenez, partzela hori mugatzeko balio izan dutela dirudi. Hala ere, duen tipologia dela-eta (lursaileko harri landu gabea), abere eremuetarako ere erabili izan ahal da (abereentzako itxiturak).

PB.15 Eraikin berezia Altzibarren

Portuene etxearen eta Karrika errekaren zubiaren artean, 100 m^2-ko harrizko eraikin txiki batek zutik jarraitzen du; lau isurialdeko teilatua dauka, egun ez da erabiltzen, eta areagotuz doan narriadura egoeran dago. Trenbideari lotutako eraikin laguntzailea izan zitekeen, duen tipologiarengatik eta ate lerragarrian trenbidearen elementuak (errailak) erabiltzegatik.

3.3 INTERES BISUALEKO PAISAIAREN BALIABIDEAK

2.6. atalean (86. orrialdean) egindako azterketa bisualean oinarrituta zehaztu dira interes bisualeko zonaldeak. Herritarrek gehien ikus ditzaketen hiru elementu gailentzen dira: Arraskuelarre eta Altamiralarre muinoak, Karrikako mendi-bizkar basotsuak eta Karrika auzoko atlantiar landazabalaren mosaikoa.



PB.16 Arraskuelarre eta Altamiralarre muinoak

Geruza basotsu trinko batez estalitako bi tontor horiek oso ikusgarriak dira herriguneetatik eta ibilbide eta behaketa gune nagusietatik.

Arraskuelarre baso eta abere erabilerarako mendia izan da historikoki, aurreko mendeko erdialdean airetik hartu ziren argazkietan ikus daitekeen bezala. Bertan, ez dago zuhaitz landaredirik, aurretik zegoen pinudia moztu baitzuten. Iparraldeko mendi hegalak, jabetza pribatukoa eta Altzibarretik ikus daitekeena, haritz amerikarraren landaketa dauka. Hegoaldeko mendi hegala titulartasun publikoko mendian dago sartuta, eta hainbat espezietako landaketa mistoa dago bertan; horien artean, haritz amerikarra eta pinua dira nagusi, eta gaztainondo dezente dago. Mendi hegal horretan, gainera, gaztainondo eta haritz pedunkulatu handiak daude.

Altamiralarre, berriz, harizti azidofilo trinko batek estaltzen du, aurreko mendeko erdialdean airetik ateratako argazkietan ere antzeman daitekeena. Egun, are trinkoagoa eta zabalagoa da.

PB.17 Karrikako landazabal atlantikoa

Larreen, zuhaiztien eta baserri tradizionalen mosaikoak osatzen du Karrikako bailarako estanparik bereizgarriena, bai eta euskal landa paisaiaren irudi eredugarria osatu ere. Aiako Harriko gailur harritsuek osatzen dute Oiartzun udalerriko argazki adierazgarrienetako bat. GI-3631 errepidetik ikus daiteke multzo hori. Parke Naturalera sartzeko bidea da, eta jende asko hurbiltzen da bertara asteburuetan eta jaiegunetan. Baserriari lotutako ohiko ustiapenak (abeltzaintza eta nekazaritza, eskala txikian) mantentzearekin dauka zerikusia landazabalaren kontserbazioak, bai eta egiturazko gainerako elementuei eustearekin ere; hala nola, hesiak, landa itxiturak, hormatxoak, zuhaiztiak eta abar. Bada, pixkanaka nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera tradizionalak uzten ari direnez, desagertzeko arriskua dago paisaia hori.

PB.18 Karrikako mendi-bizkar basotsuak

Karrika auzoaren gaineko mendi-hegaletako zuhaiztiak funtsezko osagaia dira bailara ezaugarritzen duen paisaian, eta trantsizio zerrenda eratzen dute landa eremuaren eta Aiako Harria Parke Naturalaren baso eremuaren artean. Gehienbat, espezie hostoerorkorrek osatzen dituzte zuhaizti horiek, eta tonalitate aldaketak eskaintzen dituzte urtaro aldaketekin batera. Ondorioz, urtean zehar aldatu egiten den paisaia sortzen dute.

3.4 PAISAIARA IRISTEKO BALIABIDEAK ETA AZPIEGITURA BERDERA

Paisaiarako ekintza-planaren eremuko paisaiara eta intereseko guneetara iristeko baliabideak, funtsean, lurraldean dagoen bide sarea eta ibilbideak dira. Dagokion araudiarekin bermatzen da toki horietan behar diren mantentze-lanak egitea. Hala ere, badira beste elementu batzuk ere, zubiak edo erabilera publikoko zonaldeak, Karrikako bailararen inguruaz gozatzea ahalbidetzen dutenak.



PB.19 Artikutzako antzinako trenbidearen trazadura

Ondare elementua da, erabilera publikorako ere balio handia duena. Bestalde, garrantzitsua da Karrikako bailara bisitatzeko eta Aiako Harria Parke Naturalera iristeko ere. Trazadura horretatik igarotzen da, zati batean, PR-GI 1007-"Artikutzako trenbide zaharraren" ibilbide txikia. 14 kilometroko ibilbidea da; Karrikan hasten da, eta Exkasen (Artikutzan) amaitu. Bestetik, jada egindako eta proiektutako bidegorri tarteetatik ere igarotzen da. Hala ere, jatorrizko trazaduraren zati batean ezin daiteke ibili, hainbat arrazoi tarteko.

Artikutzako antzinako trenaren trazaduraren tarte ezberdinak

PB.20 Bide publikoak eta ibilbide homologatuak

Paisaiarako ekintza-planaren eremuan dagoen bide publikoen sareak baserriak eta hiri eremuak lotzen ditu, eta hainbat zonalde zein paisaia baliabidetara iristea ahalbidetzen du. Oiartzungo Udalak bide publikoen inguruko ordenantza onartu zuen, eta, horrekin, bermatu egiten da bide horien jabari eta erabilera publikoa. Bestetik, bide horiek garbitzea agintzen zaie ondoko lursailetako jabeei. Sarearen egiturari esker, luzetara eta Karrika errekarekin paralelo zeharkatu daiteke planaren eremua, eta zeharka konektatzen da bailarako mendi hegaletarantz igotzen diren askotariko adarrekin. Horrela, intereseko zonaldeetara irits daiteke; besteak beste, Karrika errekara, Arraskuelarre mendira, Karrikako basora edo ondarearen hainbat elementutara. Bestalde, PR-GI- 1007 "Artikutzako trenbide zaharra" ibilbideak Artikutzarekin lotzen du Karrika auzoa. Inguru horretako ibilbide homologatuei buruzko informazioa ematen du Karrika auzoan dagoen taula batek (kontserbazio egoera nahiko eskasean dagoen arren).

Bide publikoak ibaiertzean eta Arraskuelarre mendian

bilbide homologatuak eta informazio-panela Karrikan

PB.21 Erabilera publikoko ekipamenduak

Duen eraketa bitxiarengatik (egurrezkoa da eta arku ikutuarekin), eta oinezkoentzat eta bizikletentzat bakarrik denez, Karrikara eramaten duen errepidearen adarretik ibilbide nagusira iristea ahalbidetzen du Bidasoro errotaren ondoko pasabideak. Beste alde batetik, egungo erabilera eta aukerak direla-eta, baliabide batzuk nabarmentzen dira. Hiri-espazio libreen sistemaren barruan, Bidasororen aurrean,

2.604 m^2-ko zonaldea dugu, egun errekak inguratzen duen larrea, eta, Altzibarren, Mikelete eta Klarene kalean zuhaitzez hornituta dauden plaza txikiak dauzkagu (plaza horietan daude gurutzadurak).

Oinezkoentzako pasabidea eta berdegunea Karrikan

Altzibarko plaza txikia eta gurutzadurak

PB.22 Arrapala arrain faunarentzat Olalden

Ur lasterren tartea eratuz, Altzibar industrigunearen ondoan, Errotaberri errotako presa txiki zaharra iragazkortzea ahalbidetzen du, arrainak igo daitezen. Oinezkoen bidearen alboan dagoen tokitik, arroka blokeen artean jauzi egiten duen ur geruza ikus daiteke, eta horren soinua entzun.

4. PAISAIAREN GATAZKEN IDENTIFIKAZIOA ETA AZTERKETA

4. PAISAIAREN GATAZKEN IDENTIFIKAZIOA ETA AZTERKETA

Baliabideekin alderatuz, paisaiaren kalitatea murrizten duten eta paisaiaren izaera nabarmen aldatzen duten elementuak dira paisaiaren gatazkak. Kausa naturalek edo antropikoek eragin ditzakete lurraldeko aldaketa edo inpaktu horiek. Hala ere, giza jarduerek eragindakoak gailentzen dira hemen.

Landa-lanean eta parte hartzeko prozesuko ekarpenetan identifikatu dira inpaktu edo elementu narriatzaile horiek, eta bost kategorietan multzokatu dira:

- Eraikuntzengatiko eragin negatiboa.
- Azpiegiturak egoteagatik sortutako narriadura.
- Ibaiko eta basoko habitata narriatzeagatiko inpaktuak.
- Ondare arkitektonikoan narriatutako elementuak.
- Etenak paisaiara iristeko bideetan.

4.1 ERAIKUNTZENGATIKO ERAGIN NEGATIBOA

Altzibar auzoan dauden industriguneek eragiten dute Planaren eremuko paisaiaren gatazka agerikoenetakoa, bertako instalazioen eta erakinen zein ondoko urbanizazioaren narriadurarengatik. Karrika errekaren ondoz ondoko bi terrazatan daude eraikin horiek. Horren eraginez, ikuste eta ingurumen inpaktu handia sortzen da ibaiko habitataren, ondarearen eta erabilera publikoko elementuen gainean.



PG.1 Eraikin industrialak eta La Pitusa-Errotaberri ingurua

Carbónica Guipuzcoanaren pabilioi zaharrek, Errotaberri baserriak eta horren inguruak (obretarako etxolak eta materialak, material pilaketak) zuzenean eragiten dute ibaiertzean, eta, gainera, ingurura zabaltzen den narriadura irudia sortzen dute. Gainera, eraikuntzarako elementuak pilatzen dira GI-3661 errepidearen ertzean. Bestalde, Errotaberriko iturburua instalazioen barruan dago, iristezina da, eta hodiak dauzka errekaraino. HAPOan, 10.889 m^2 dituen eremu horren (ALT-3, Altzibar Hegoaldearen) hirigintza garapena egitea aurreikusten da, bizitegi eraikinak (56 etxebizitza) eta biribilgune bat jarriz eta Karrika errekaren ertzak dituen 120 metroak berrantolatuz. Horretarako, paisaia babesteko eta bertan integratzeko neurriak ezarriko dira, eta eraikinak errekatik 12 metrora egongo dira, gutxienez. Xehetasunen ikerlan baten mende egongo da berrantolaketa.

La Pitusaren ingurunea

Errotaberri

PG.2 Altzibar industriguneko Karrika errekaren eremu mugakidea

Jada garatuta dagoen 7.572 m^2-ko industriguneak kalitate estetiko txikiko ibaiertza dauka (baranda, zoladura), ageriko mantentze eta garbiketa lanik jasotzen ez duena, eta abandonatutako ibilgailuak dituena (bi furgoneta eta kamioi kutxa bat). Eremu horretan ere, etxeko hondakinak uzteko zonaldea dago. Bertan, etxolaren kanpoaldean, mota orotako hondakinak uzten dira. Eremu hori asko ikusten da ibaiaren ibilbidetik eta bideetatik.

PG.3 Recuperaciones Industriales Cadarsoren eraikinak eta ingurua

Karrika errekaren eskuinaldean 220 metrotan zehar ibaiertzeraino iritsita (baita errekaren gainean ere, estalitako tarte batean), eraikinak, material biltegiak (grafitoa gordetzekoak), toberak, estalguneak eta oholesiak daude. Errekan eta oinezkoen ibilbidean eragiten dute horiek (grafito hondarraren hondakinak daude lurrean), eta, era berean, oso ikusgarriak dira, bai errepidetik, bai, oro har, inguru guztitik.

PG.4 Viveros Mayozen eraikinak

Multzo beraren barruan, angulen haztegia dago, errekaren eta oinezkoen bidearen artean. Kanpoaldeko itxura narriatua nabarmentzen da, baina, batez ere, eragin bisuala da agerikoa, errekaren ertza hartzen baitu. Errepidetik ere ikus daiteke.

4.2 AZPIEGITURAK EGOTEAGATIK SORTUTAKO NARRIADURA

Eremuan azpiegitura handirik ez badago ere, hainbat linea elektriko daude, Karrika bailarako landa paisaiaren harmonia hausten dutenak. Are agerikoagoa da inpaktu hori linearen mantentze-lanek zuhaitz landarediaren gainean duten eraginarengatik. Gainera, Karrikako harrobian egiten den erabilerak eta itxiturak murriztu egiten dute gainerako baso eremuak duen paisaiaren kalitatea.



PG.5 Linea elektrikoak

Hiru linea elektrikok zeharkatzen dute eremua, eta horietako bi oso tentsio altukoak dira. Hegoaldetik, mugaz gaindiko konexiorako linea igarotzen da, eta, Arraskuelarre eta Altamiralarre mendien artetik, Pasaia-Lezoko zentral termikoak erabiltzen zuen linea igarotzen da. Euskarri-dorreak eta lineen azpian landaredia kenduta duten korridoreak oso ikusgarriak dira. Beste alde batetik, bailararen hondotik Karrikaraino doan linea bat dago, auzo horri zerbitzu ematen diona. Horren eragina puntualagoa da, baina bizia, errekaren zonalde baliotsuenean; izan ere, ibaiertzean dauzka euskarriak, eta ibaiertzeko landaredia kentzea edo kimatzea dakar horrek. Segurtasun kaleak zabaldu egin dira, eta, beraz, baita moztutako zonaldeak ere. Bada, horren ondorioz, ikusgarriagoak dira trazadurak.

Linea elektrikoek, horien instalazioen aztarna bisualaz gain, zortasun korridoreen bidez dute eragin handia paisaian, landaredia mozten baita korridoreen inguruan; zuhaiztietan, batez ere[4].

[4] Otsailaren 15eko 223/2008 Errege Dekretua eta askotariko arau eta araudiak, pixkanaka, zortasun eta zabalera handiagoak ezartzen ari dira segurtasun zerrendei dagokienean. Bestetik, gero eta errekerimendu gehiago ezartzen dituzte, landaredia garatzeari dagokionean.

Tentsio oso altuko eta tentsio ertaineko linea elektrikoak Paisaiaren Ekintza Planaren eremuan.

PG.6 Antzinako ofita harrobia

Paisaiaren gaineko inpaktua, batez ere, bertako itxiturak eragiten du, C-3661 errepidearen ertzean bertan. Bestetik, eten egin da gertatzen ari zen birsorkuntza naturala, garabiak eta eraikuntzarako materialak gordetzeko biltegi erabilera eman baitzaio. Egun, jarduera hori desagertuta dago. Bestalde, bertean aurkitzen zen iturria hondatuta eta ubiderik gabe geratu zen; izan ere, kanpotik irits zitekeen bertara, eta errepidetik zetozen pertsonek erabiltzen zuten.

Harrobiaren kanpoaldeko eta barrualdeko ikuspegietan, landaredia berreskuratzen ari dela ikus daiteke.

4.3 IBAIKO ETA BASOKO HABITATAREN DEGRADAZIOAK SORTUTAKO INPAKTUAK

Ibaiko habitatean paisaiaren gatazkak eragiten dituzten inpaktu nagusiak hauek dira: bideratzeak, ibaiertzak okupatzea, ertzetako landaredi naturala narriatzea eta espezie exotiko inbaditzaileak agertzea.

Baso eremuetan, basoa erabiltzeko eta kudeatzeko orduan egon daitezkeen aldaketek dute eragiteko aukera handiena, eta horiek eragin diezaiokete gehien paisaiari; baso eremu ikusgarrienetan, batez ere.



PG.7 Ibaiertzak okupatzea

Altzibarko instalazio industrial zaharkituek (Altzibar Hegoalde eremua), Cadarso pabilioi industrialak eta Karrikako hainbat eraikinek ibaiertzaren zati batzuk okupatzen dituzte. Ertzak guztiz desnaturalizatuta ageri dira, landaredirik gabe; eraikinek jabari publiko hidraulikoa hartzen dute, eta ez dute uzten ibaiaren ibilgura iristea.

Ibaiertz okupatuak

PG.8 Bideratzeak, harri lubetak eta ubide estalkiak

Errekaren hainbat tartetan, hiri eta industria eremuetan batez ere, ibaiaren ibilgua bideratuta dago, ibaiertzak urbanizatzea ahalbidetzeko; bai hormen bidez, bai harri lubeten bidez. Gainera, ubidea estalita dago tarte batean, Karrikako harrobian zamatzeko tokian. Hor, tunel batetik igarotzen da erreka.

Bideratutako tarteak Altzibarren eta Karrikan

Bideratutako tartea, tunel azpian

PG.9 Landaredirik ez duten, narriatutako landaredia duten edo espezie exotikoak dituzten ibaiertzak

Errekaren tarte batzuetan, ibaiertzek ez daukate landaredirik, alboko lursailak asko erabili direlako, edo azpiegiturak daudelako. Gune batzuetan, landaredia naturala (ibaiko habitatari lotutako espezieak; hala nola, haltzak, lizarrak, zumeak...) ordezkatu dute espezie exotikoek (platanoak, adibidez), edo, are gehiago, espezie inbaditzaileek (sasiakaziak edo banbuak). Zonalde urbanizatuetan daude tarte horiek, baina baita Karrika auzoko goiko uretan ere. Gainera, lursail batzuk utzi egin dira, eta espezie exotikoak eta erruderalak hedatzea ekarri du horrek. Gune batzuetan, landaketak egin dira ibaiertzeko landaredia berreskuratze aldera; esaterako, haltzak landatu dira.

Landaredia narriatua duten, landaredirik ez duten edo espezie exotikoak dauzkaten hainbat tarte.

PG.10 Baso landaketen ustiapenaren ondorioz gerta daitekeen inpaktua

Altamiralarre eta Arraskuelarre muinoetan daude baso landaketa gehienak, baita Karrikako mendi bizkarretako unada batzuetan ere. Haritz amerikarra (*Quercus rubra*) da espezie nagusia, horixe baita Arraskuelarre eta Karrikako landaketa pribatuetan ageri den espezie bakarra. Arraskuelarren erabilera publikoko mendiari dagokion sektorean, Oiartzungo Udalaren jabetzakoa hori, landaketa mistoa dago. Haritz amerikarra dago, baina baita haritz eta gaztainondo handi ugari ere. Era berean, kudeatu gabeko pinudi baten hondarrak daude, non birsorkuntza naturala hauteman daitekeen.

Haritz amerikarraren landaketek ageriko paisaian inpakturik eragiten ez badute ere, ustiapen pribatuetan erabilera edo espeziea aldatzeko arriskua dago (pinuaren edo beste espezie batzuen landaketa intentsiboak ager daitezke), eta, batez ere, baso ustiapeneko jarduera jakin batzuek (baso soilketek edo arraseko mozketek, esaterako) inpaktua eragiteko arriskua dago. EPMaren kasuan, eta landaredi naturala berreskuratzen ari den arren, paisaiaren kalitatea murrizten du pinudiak.

Haritz amerikarraren landaketak eta sasitza eta pinudia Arraskuelarren

Pinudia Arraskuelarren

PG.11 Ur kutsadura ubidera isuriak jariatzeagatik

Unean uneko isuriak daude. Saneamendu sarearen gabezietan izaten dute jatorria, bai eta Karrika auzoan konektatuta ez dauden eraikin batzuetan ere. Auzora iristeko bidea zabaltzeko obra aurreikusi da, eta sarea hobetzea ahalbidetuko du horrek.

4.4 ONDARE ARKITEKTONIKOAN NARRIATUTAKO ELEMENTUAK

Eraikitako ondarearen zati bat abandonu egoeran dago; hortaz, berez baliabideak sortzen dituzten arren, eta ez gatazkak, berreskuratu eta baliozkotu egin beharko lirateke.



PG.12 Martinmotzene, Larraldapa eta Errotaberri baserrietako eraikin eta inguru narriatuak

Karrika errekaren eta GI-3661 errepidearen artean dauden eraikinek narriadura maila handia daukate kanpoaldean. Martinmotzene, jenderik gabe dago eta ateak eta leihoak hormatutaditu. Errotaberri, jenderik gabe baita ere, materialak biltegiratzen diren orube batean. Larraldapa, narriatutako eraikina, eta lehengo larreak eta sagastiak, ibaiertzeraino iristen zirenak, beste landaredi mota batek kolonizati ditu (hein batean, espezie exotikoak daude).

Martinmotzene eta Larraldapa

Borde fluvial de Larraldapa y Errotaberri

PG.13 Altzibarko bidegurutzeak

Paisaiaren baliabidea ere baden arren, kontserbazio egoerak balio negatiboa eransten die (gehiago edo gutxiago narriatutako irudiak). Gaur egun, ez daude katalogatuta; hala ere, Donejakue Bidean babestu beharreko elementuen zerrendan egon ziren bi gurutzadurak. Azkenik, hortik kanpo geratu ziren, beste trazadura bat ezarri baitzuten bide horretarako.

4.5 ETENAK PAISAIARA IRISTEKO BIDEETAN

Lursailen jabetza pribatuak (gehiengoa ikerketa eremuan) eta erabilera industrialen eta erabilera publikoaren arteko bateraezintasun arazoek etenak eragiten dituzte ingurura iristeko bideetan; hala nola, bide publikoetan eta antzinako meatze trenaren trazaduran.



PG.14 Etenak eta gatazkak Artikutzako meatze trenbide zaharraren trazaduran

Egun, zati bakar batean zehar ibil daiteke Artikutzako tren zaharraren jatorrizko trazadura; izan ere, hainbat eten daude ibilbidean, eta galarazi edo zaildu egiten dute bertatik ibiltzea. Lehena, Cadarso instalazio industriala da. Ibilbidea jarraitzeko, nahitaez zeharkatu behar da hori, eta makineria eta granito biltegien artetik igaro behar da. Arraskue errotan dago bigarrena; bertan, trazadura itxita dago, eta Bidasoroerrotako pasabidetik desbideratzen da ibilbidea. Karrika auzoan, PR-GI-1007 ibilbide homologatua errekaren ezkerraldetik igarotzen den arren, jatorrizko trazadura eskuinaldetik igarotzen da. Moztuta dago, lursail pribatuak zeharkatu behar baitira.

Artikutzako trenaren trazadurak Cadarso zeharkatzen du

Etenak trazaduran, hainbat gunetan

PG.15 Etenak bide publikoetan

Bide publikoen sareak ere etenak dauzka hainbat gunetan. Karrikako bidegorriaren ibilbidekoak dira nabarmenenak; izan ere, etenda dago Arraskueko errotaren inguruan, eta Altzibar eta Karrika auzoak lotzea galarazten du horrek. Bestetik, Errotaurre etxadian dago beste etena, bidegorriaren amaieran. Gainera, hainbat eten daude Gartziene eta Lekungarai inguruko bideetan. Karrikako basora joatea galarazten dute, baita basoa eta natura parkea lotzea ere. Bestetik, Karrikako bidearen eta Sorondo bidearen arteko lotura moztuta dago abereentzako pabilioiaren inguruan.

Moztutako guneak Karrikako bidegorrian

Moztutako bide publikoak

5. PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEEN MUGAKETA

5. PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEEN MUGAKETA

90/2014 Dekretuan zehazten denaren arabera, honako hau dira paisaia unitateak: "paisaiaren eremu koherenteak, babesteko, kudeatzeko edo paisaia antolatzeko araudi espezifikoa jaso dezaketenak, osorik edo zati batean". Definizio horri jarraituz, eta paisaiarako ekintza-planaren errealitatera eta eskalara egokituz, Paisaia Kudeatzeko Unitateak (PKU) mugatu dira. Unitate horiek, gainera, kontuan hartzen dituzte ekintza planaren kudeaketa eta bideragarritasuna.

PKUak zehazteko aintzat hartu dira paisaiaren egitura formalaren karakterizazioa (geologia, erliebea, landaredia...), bilakaera eta aurreikus daitezkeen aldaketak eta lurzoruaren erabileren tipologia (hirikoa, industriala, landakoa).

Emaitza gisara, paisaia kudeatzeko hiru unitate mugatu dira:

- Altzibar PKU
- Altamiralarre-Arraskuelarre PKU
- Karrika PKU



5.1 ALTZIBAR – PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEA

Unitateari berezitasuna ematen dioten elementuak

Hiri eremua da, zonalde baxuan dagoena, non Karrika errekak eta Oiartzun ibaiak bat egiten duten. Errekaren beheko ibilgua hartzen du. Erdigunean bertan, bizitegi guneak daude; bestetik, hein batean zaharkituta dauden gune industrialak daude, eta baserri zonaldeak mendi hegaletan. Ageriko bizitegi-industria-landa trantsizioa ikus daiteke oso ibilbide txikian, eta erreka da ardatz konektorea. Urbanizatutako eremua den arren, okupatu gabeko ibaiertzak eta ibaiertz guneak dauzka, Oiartzun ibaiaren elkargunean eta ibaiertzean batez ere. Bertan, harreman ona dago ibaiarekin.

Identifikatu diren paisaia baliabideak

- Oiartzun ibaiko terrazak (Interes Geologikoko Eremuak)
- Ugarteolako zubia
- Ugarteko errota
- Aranburu baserria
- Altzibarko gurutzadurak
- Altzibarko eraikin berezia
- Plazak (erabilera publikoko ekipamenduak)
- Arrapala arrain faunarentzat
- Artikutzako antzinako trenbidearen trazadura
- Bide publikoak eta ibilbideak




5.1 ALTZIBAR – PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEA

Dauden eta aurreikus daitezkeen gatazka nagusiak

- Landaredirik ez duten edo landaredi narriatua (espezie inbaditzaileak eta abar) duten ibaiertzak
- Ibaiertzak okupatuta
- Baserrietako eraikinak eta ingurua narriatuta (Errotaberri, Martinmotzene)
- Industriguneetako eraikinak eta ingurua narriatuta (Altzibar industrigunea, La Pitusa-Errotaberri, Cadarso, Viveros Mayoz)
- Etenak Artikutzako antzinako trenaren trazaduran

Gertatutako bilakaera eta etorkizuneko aldaketak

Izaera bereziki landatarra duen eta bidegurutze den eremu horretan, nabarmen hasi da bizitegi erabilera, eta hala izaten jarraituko du garapen berrien plangintzan; modu arinago batean, hala ere, aurreko aldietan gertatukoari dagokionez. Ibaiertzeko lursail lauetan egin da okupazioa; alabaina, okupatu den azken zonaldean (Olalden), zonalde libreek eta bideratze motek harreman hobea dute ibaiarekin. Industrigune batzuek (aspaldikoak dira batzuk) eraikin berriak dituzte, baina bere horretan diraute zaharkitutako eraikinek. Eraikin horietako batzuk bizitegi erabilerarako moldatzea aurreikusi da (La Pitusa-Errotaberri), eta definitu gabe daude beste batzuk (Cadarso). Hala ere, egungo erabilera desagertu egingo da.

Ez da argitu zein izango den Oiartzun ibaiaren ibaiertzeko lursailen etorkizun urbanistikoa Altzibarren. Unitate honen etorkizunean, garrantzitsua izango da ibaitik hurbil dauden eta larreak dauzkaten terrazak desagertzea. Industriguneei dagokienez, paisaiaren etorkizuna ona izango dela aurreikus daiteke, baina ez da zehaztu Karrika errekarekiko harremana.

5.2 ALTAMIRALARRE-ARRASKUELARRE – PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEA

Unitateari berezitasuna ematen dioten elementuak	Altamiralarre-Arraskuelarreko hesi menditsuak markatzen du unitatearen lorratza. Hesi horretatik, Karrika erreka igarotzen da, hesi harritsu hori ebakitzen duen haitzarte laburra eratuz. Hostozabalen baso masen eta ibaiertzeko kalitateko habitaten aurrean, erauzketa tokiak eta industriaurreko hondarrak daude, eta meatze trenaren antzinako trazadura dute ardatz.	
Identifikatu diren paisaia baliabideak	• Ibaiko habitata • Ibaiertzeko landaredia naturala ondo kontserbatuta • Harizti azidofiloa eta baso mistoa • Aranburuolako burdinolaren hondarrak • Artikutzako trenbidearen antzinako trazadura • Karrikako harrobia (interes geologikoko eremua) • Arraskuelarre eta Altamiralarre muinoak	

5.2 ALTAMIRALARRE-ARRASKUELARRE – PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEA

Dauden eta aurreikus daitezkeen gatazka nagusiak

- Baso landaketen ustiapenaren ondorioz gerta daitezkeen inpaktuak
- Karrikako harrobia
- Baserrietako eraikinak eta ingurua narriatuta (Larraldapa)
- Linea elektrikoak (tentsio altukoak eta tentsio ertainekoak)



Gertatutako bilakaera eta etorkizuneko aldaketak

Baso erabilera, landaketak eta ustiapenean dagoen harrobia tartekatzen direnez, naturaltasun handiagoko egoerara igaro da, abandonuagatik batez ere. Alabaina, naturaltasun hori ez dago ziurtatuta, bai titulartasun pribatuarengatik, bai babes mailarengatik. Zehazki, bi sektore garrantzitsuk alda dezakete pixka bat egungo irudia: harrobi zaharrak eta Arraskuelarreko mendi hegal arbolatsuak. Lehenak eragin bisual handiko erabilerak eduki ditu (hala nola, eraikuntzarako makineria gorde da bertan), eta bigarrena jabetza pribatukoa da eta landaketak dauzka. Eremuko zonalde batean, erabilera publikoko mendian, landaketa bat egin zen, eta, dirudienez, kontrolik gabe ari da hazten. Bada, paisaia horrek ez du hobera egingo, jarduera egokirik egiten ez bada. Errekaren ardatzak paisaia hobetzeko aukera handiak dauzka, bai landarediari dagokionez, bai ondarearen elementuei dagokienez. Hala ere, errekaren inguruan garatzen den bidearen arabera, erabilera publikoak kalitatean eragin dezake.

5.3 KARRIKA – PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEA

Unitateari berezitasuna ematen dioten elementuak

"Bailara" kontzeptuaren elementu bereizgarri guztiak dauzka; landa-izaera dauka, eta landazabala da nagusi. Eszenaren hondoak, Aiako Harriko gailurreria granitikoa, mendi bizkar basotsuak eta larreak baitauzka, hain inguru gizatiartuan urria den irudia ematen dio bailarari. Erreka bihurtzen da ardatz; haitzartearen ostean, erliebe atseginak dituen gune zabalera irekitzen da. Unitatearen goiko aldean, malda handiak, mendi-hegal arbolatuak eta gero eta eraikin gutxiago dituen eremu batera sartzen da erreka, Parke Naturalarekin muga egin arte. Parke Naturala da errekaren goiko ibilgua. Karrikako landa gunea nabarmen handitu bada ere, oraindik jatorrizko izaerari eusten dio hein handi batean. Alabaina, xehetasunetara joz, irudi horrek asaldura nabarmenak dauzka, okupazio antropikoaren ondorioz. Besteak beste, linea elektrikoak daude, haltzak desagertu egin dira eta landaredia exotikoa dago errekaren ertzetan.



Identifikatu diren paisaia baliabideak

- Ibaiko habitata eta ibaiertzeko landaredia ondo kontserbatuta
- Hariztiak, baso mistoa eta larreak
- Galbariomendi muinoa (interes geologikoko eremua)
- Landazabala eta mendi bizkar basotsuak (interes bisualeko elementuak)
- Arraskueko errota eta etxea
- Bidasoroko dorretxea
- Artikutzako trenbidea
- Karobiak
- Iragorriko hilerria
- Bide publikoak
- PR-GI-1007 ibilbidea

5.3 KARRIKA – PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEA

Dauden eta aurreikus daitezkeen gatazka nagusiak

- Landaredirik ez duten edo landaredi narriatua duten tarteak ibaiertzean
- Baso landaketen ustiapenaren ondorioz gerta daitekeen inpaktua
- Bideratzeak, harri lubetak eta ubide estalkiak
- Linea elektrikoak (tentsio altukoak eta tentsio ertainekoak)
- Etenak bide publikoetan eta Artikutzako tren zaharraren trazaduran

Gertatutako bilakaera eta etorkizuneko aldaketak

Malda leunei, nolabaiteko isolamenduari eta abeltzaintzako erabilerak mantentzeari esker, bailara horrek (beste askok bezalaxe) aurreko garaietan zuen irudi ia bukolikoari eutsi ahal izan dio neurri handi batean. Udalerriko beste zonalde batzuetan asko igarri den hiri hazkuntza nahiko murritza izan da hemen, eta eraikinek bolumen txikiko tipologia dute; beraz, nolabaiteko integrazioa lortu da.

Indarrean dagoen hirigintza plangintzak garapen berririk aurreikusten ez badu ere, hiri hazkundeak gora egiteak eta abeltzaintza uzteak ekar ditzakete arrisku nagusiak etorkizunari begira, eta horrek kalte egingo die bailara hau ezaugarritzen duten larreei.

6. PAISAIAREN BALORAZIOA

6. PAISAIAREN BALORAZIOA

Paisaiaren balorazioaren bitartez, azterketa-eremuko balio gehieneko alderdiak zehaztu daitezke, irizpide teknikoa eta biztanleriaren balioztapena uztartuz. Era berean, identifikatu daitezke eremuan dauden ekintzen beharrak. Azken finean, ekintza-planean lantzeko estrategia egokiak eta paisaiaren kalitateko helburuak ezartzeko oinarria da.

6.1 PAISAIAREN KALITATEA ZEHAZTEA

Paisaiaren izaera gehien zehazten duten alderdietan oinarrituz definitzen da paisaiaren kalitatea, eta lantaldeak egin du, honako irizpide hauek jarraituz:

a) Kontserbaziorako balioa

Azterketa eramualren hegoaldeko sektorea Aiako Harriko Parke Naturalaren babes-eremu periferikoan dago kokatuta, eta parkearen beraren mugekidea da, Natura 2000 Sareko Aiako Harria Kontzerbazio Eremu Bereziarekin bat datorrena. Cadarsoko eremutik ibaian gorako zonaldea Aiako Harria – Jaizkibel korridore ekologikoaren indargetze-eremuan dago txertatua, oro har, Karrikako hirigunea salbu. Gainera, indarrean dagoen hiri-planeamenduak Parke Naturala handitu dadin eskatzen du, hain zuzen ere, paisaiarako ekintza-planak hartzen duen eremuak barneratzeko.

Karrika errekako zenbait tarte ko “Egoera onean dagoen landaretza” gisa azaltzen dira EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Sektore Lurralde Planean. Bertan, gainera, haltzadiak (91E0*) aurkitzen dira, hain zuzen ere, Habitat Zuzentarauaren eta Natura eta Biodibertsitate Ondarearen Legearen (9/2007 Legea) arabera europako intereserako lehentasunezko habitatak. Aipagarria da, bestalde, Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean jasota dagoen izokin atlantikoaren (*Salmo salar*) presentzia areagotzeko abian jarri diren ekintzak (birpopulaketak, jarraipena, oztopoak iragaztea, erabiltzen ez diren ur-bilketak ezabatzea). Gainera, Karrika erreka bere osotasunean, eta Oiartzun ibaiarekiko lotura barne, muturluze pirineoarrarentzat eta bisoi europarrarentzat Interes Bereziko Eremua dela, espezie bakoitzaren kudeaketa-planaren arabera ((2004-05-15 Foru Agindua; 2004-05-12 Foru Agindua

Sega-belardiak (Komunitatearen Intereserako Habitata - 6510) eta harizti eta baso mistoak mantendu beharreko landaredi gisa dira aipagarriak, eta fauna kopuru handiaren habitata den landazabala osatzen dute, bereziki ferra-saguzar mediterraneoarena (*Rhinolopus euryale*).

Ondare arkitektonikoari dagokionez, eremuak bost ustezko arkeologia gune hartzen ditu, EAEn monumentu-multzo edo monumentu gisa aitortzeko hiru ondare higiezinekin, eta Udalak babesteko proposatutako hiru ondare higiezinekin batera. Babes-irudi horiek zenbait elementurekin bat datoz: baserri zaharrak, antzinako dorretxeak, errotak eta industria garai aurreko instalazioak. Landa izaera antzeman daiteke karobiak gisako eraikuntzetan, horietako batzuk, ondo gorde dira, gainera. Era berean, eraikuntza zibil esanguratsuak ere badaude (zubiak).

b) Adierazgarritasuna eta berezkotasuna

Karrika erreka ia salbuespena da erabat hiritartu eta identitatea ia erabat galdu duen lurralde batean, bereziki "landa izaera" eta paisaia tradizionalaren izaera. Duela 70 urteko argazkiak gaur egungo egoerarekin alderatuz gero, beste lurralde batzuetan galdutako izaera mantentzen dela ikus daiteke landazabalari eta baserriari dagokionean, behintzat eraikitako ondareari dagokionean, nagusi baitira paisaian. Bailara honetako landazabala erabilera tradizionalak mantentzearen emaitza da, eta kasu honetan, nahiko zabala den harana da Aiako Harriak eszenografikoki osatutakoa gainera. Desagertzeko arriskuan den paisaia kulturalaren ordezkaria da. Lurralde egokienen urbanizazioa eta laborantza-erabilerak alde batera uztea areagotzen ari diren faktoreak izanik, are garrantzitsuagoa da etorkizunari begira hartzen duen balioa. Landazabalaz gain, ibai-ibilbideak nabarmentzekoak dira kalitate bisualaren eta ekologikoaren aldetik ere.

c) Paisaia integralaren osotasuna eta funtzioa

Haranak elementuen aniztasuna eta koherentzia erakusten du: ibaia, ibaiertzak, terrazak, hegalak, eta azkenik, tontorretako gailurrak. Era berean, eremu urbanizatutik basora, nekazal- eta landa-eremutik pasatuz; degradaziotik ederrera igarotzeko. Aniztasun eta banaketa handia osagai guztietan, bailara bezala identifikatzen den konglomeratu honentzat.

Ondarearen eta naturaren ardatzak fisikoki bat datoz: Karrika erreka eta Artikutzako meatze-tren zaharra. Ardatz honek hainbat joera ukitzen baditu altitudearen aldetik, luzetara hiria, hiri alboko eremu periurbanoa, askotan degradatuta dagoena, landa-eremua, eta, azkenik, mendiaren arteko lotura egiten du. Horrela, sekuentzia osoa bertan dago.

d) Gunearen kalitatea

Errekako eta landazabaleko paisaiak, inguruarekiko eta, agian, Gipuzkoarekiko, salbuespen ezaugarriak dituzte. Ur gardena, ur-jauziak eta sakonuneak, landaredia eta ondare arrasto ikusgarriak dituzten errekaren tarte zainduenek paisaia enblematiko eta oso erakargarria osatzen dute. Karrikan landazabalarekin lotutako irudi bukolikoak, Aiako Harria hondo eszeniko gisa lagun duela, Oiartzun haraneko eta Gipuzkoa mendebaldeko irudi nabarienetako bat osatzen du.

6.2 BIZTANLEEK EMANDAKO BALIOA

Atal honetan jasotzen da bilera eta elkarrizketetan egindako iruzkinen laburpena, Paisaia Kudeatzeko Unitate bakoitzeko. Era berean, bizilagunen iritziak eta jasotako dokumentuak ere sartu dira.

a) "Altzibar" Paisaia Kudeatzeko Unitatea

- Paisaiaren intereseko elementuak

  - Karrika errekako azken zubiaren ondoan dagoen Altzibarko eraikinak arkitekturaren aldetik badu interesa. Baliteke trenbideari lotua zegoela, eta agian, bertan kokatua zegoen lanabes-tailerreko (aizkorak) tresnak izan ditzake oraindik.
  - La Pitusa eraikineko aurrealde nagusiak, nolabaiteko erakargarritasuna badu.
  - Altzibarko irudi zahar batzuetan ikus daitezke gurutzaduretako bat, meatze trena eta Oiartzun ibaiko eremua.
  - Oiartzun ibaia gurutzatzen duen trenbide-zubia Artikutzako meatze-trena baino berriagoa omen da: harrobitik Gabierrotara zihoan garraio zerbitzurako eraiki zen, eta ondoren, meatzaritzarako erabili zen.

- Paisaiaren gatazkak

  - Cadarso ingurua, eta sortzen duen hesi-efektua, dira paisaiaren gatazka nagusiak, bereziki haren izaera degradatuagatik, Altzibar eta Karrika auzoen arteko oinezkoen bidearen lotua mozten duelako eta jarduera industrialak inguruan eragiten duelako.

- Beharrak eta proposamenak

  - Hainbat iritzi Cadarsoko pabiloien eta eraikinen etorkizunari buruz: guztiz ezabatzea; Cadarsoko eraikin nagusia mantentzea, baliorik izan dezakeelako; edota, Cadarsoko pabiloia eraistea, nahiz eta beste eraikin batek ordezkatu.
  - Cadarsoko eraikin guztiak eraistea eta eremu osoko ingurugiroa berreskuratzea.
  - Haztegiko pabiloia desegitearen edo apaintzearen inguruko iritziak.
  - Cadarso ingurua Karrikako bailararen baliabideen, bideen, ondarearen eta naturaren informazio zabaltzeko eta aisialdirako gune bilakatu daiteke.
  - Gaur egungo kokalekuarekin konparatuz (Gaetxe: herriaren erdigunean kokatua), ez dirudi Cadarsoko pabiloia oso toki egokian dagoenik udal biltegia instalatzeko.
  - Errekaren ertzean harri-lubeta berriak eratu daitezen saihestu.
  - Trenbide zaharreko elementu eta irudi batzuk erreproduzitu ahalko lirateke, edota trenbide zaharraren maketak egin, erakusteko helburuarekin.

b) "Altamiralarre-Arraskuelarre" Paisaia Kudeatzeko Unitatea

- Paisaiaren intereseko elementuak

  - Aranburu eta Arraskue baserrien arteko bide zaharra, gaur egun erabiltzen ez dena.
  - Karrikako harrobi zaharreko zamatokia, zamatze lanetako ateen arrastoak ikusgarri dituela.

- Paisaiaren gatazkak

  - Larraldapa baserria: eraikinaren eta bertako lurren degradazioa saihesteko zailtasunak daude, jabegoan definitzeko arazoak baitatude.
  - Harrobiaren arriskuak: errepidera harriak erori dira eta istripuak eragin ditu.
  - Olalde inguruan ubidean landaredia pilatzen da eta horrek uholdeak eragin ditzake.

- Altzibarko Industrialdeko birziklatze-eremuko egoera kaskarra eta zikintasuna. Gainera, gaizki erabiltzen da eta kanpoaldean hondakinak pilatzen dira.

- Beharrak eta proposamenak

  - Aranburuolako presagaineko hormaren ikusgarritasuna errazteko materialak kentzea, eta Arraskuelarrerako mendi-bide alboko bidearen beste aldeko horma aztertzea. Aranburuolako burdinolako egitura zehazteko lagin arkeologikoak garatzea. Landarediaren zati bat kentzea eta ubidera erortzen diren harriak jasotzea. Burdinolak egiten zuen lana irudikatuko duen interpretazio-panela ezartzea.
  - GI-3036 errepidearen eta zamalanetarako gunetik pasatzen den ubidearen arteko bidea berreskuratzea.
  - Zamatzeko tokiko hormetako landaredia garbitzea.
  - Zamatzeko tokiaren ikusgarritasuna gutxitzen duten bide ertzetako altzifrezko hesiak kentzea.
  - Meatze tren zaharrak izan ahalko zituenak bezalako bagonetak lortzen saiatzea eta zamatzeko tokian kokatzea.
  - Trenbideko ibilbidea bertara lotutako elementuen bidez seinaleztatzea; adibidez, errailen bidez.
  - Harrobia erabiltzeko (edozein modutara dela ere) hormaren segurtasuna eta egonkortasuna ziurtatu beharko lirateke, harriak eta haitzak erortzea saihesteko.
  - Piknikerako, jolaserako, edo ostalaritzarako erabil liteke Karrikako harrobi zaharra. Erabilera hori errazteko, beharrezkoa izan daiteke Udalak harrobiaren jabegoa eskuratzea.
  - Arraskuelarreko pinuen osasuna berrikustea, gaixotasunak izan ditzakete eta (fusarium).
  - Olalde alboko eremu berdea piknik-parke gisa hornitzea, mahaiak, parrillak eta ariketak egiteko makinak jarriz.

c) "Karrika" Paisaia Kudeatzeko Unitatea

- Paisaiaren intereseko elementuak

  - Bidasoro errotako ubidea gaur egun ez dago hasieran baino ikusgarri (presagaina), ibaiaren ondoko eremuan lurperatua izan da eta.
  - Masburu inguruan karobi hondarrak.
  - Artasoko zubi zaharra berriki eraitsia izan da eta hondarrak gorde litezke.
  - Meatze-tren zaharraren bidea, Artasoko goi-ibilgailuan ikusgarri dago.
  - Meatze trenaren bidearen jabea Donostiako Udala da; Oiartzungo Udalak Zorrolarainoko erabilera eskubidea eskatu eta lortu zuen.
  - Udan Artasoko goi-ibilguan kokatutako presa txikian gazteek bainua hartzen dute.

- Paisaiaren gatazkak

  - Bidasoro errotari atxikitutako eraikinak, ubidearen ertzean daudenak, urbanistikoki bermatuak daude, duela gutxi eskrituratuak izan baitira.
  - Ur-hondakinen saneamenduarekin arazoak daude: saneamendu-sarera konektatu gabeko eraikinak, loturak, etab. Horrek guztiak errekaren ur-kalitateari eragiten dio.
  - Nekazaritza-erabilera aldatu edo uzteagatik, landazabalaren galera arriskua.
  - Trenbideko zenbait eremu hartuak edo hesien bidez moztuak izan dira.
  - Ubidean zenbait ur zikinen isuri daude.
  - Karrika eta Altzibar auzoen artean ez dago oinezkoentzako biderik, beraz, errepidea erabiltzen da. Konponbideak eskatu dira, baina GFAri dagozkio, eta ez zaie inoiz heldu.
  - Herrigunearen ondoan kokatutako abeltzaintzarako pabiloiaren tamaina eta itxura: paisaian eragin negatiboa du.
  - Bidasoro errotako zubia hondatua dago eta irristagarria da.
  - Auzoan orokorrean mugikortasun arazoak nabariak dira: errepidea, bidegorria, garraio publikoa.

- Beharrak eta proposamenak

  - Bidasoro errotako zubiaren egurra konpontzea, hondatua baitago. Bertan utzitako laneko materialak ere kendu behar dira.
  - Artasotik ibaian gora doan meatze-trenaren bidea mantentzea, nahiz eta paseorako ez ahalbidetu.
  - Artaso elkartearen ondoko bideari konponbidea bilatzea, teilapea ezabatu gabe eta bertako pasabidea markatuz.
  - Trenbideko trazadura oztopatzen duten itxiturak ezabatu, alboko jabeekin konponbideak adostuz.
  - Karrikarainoko oinezkoen eta bizikleten bidea ahalbidetzea posible da, zabalera mugatzen bada eta helburua auzoaren zerbitzurako bideratzen bada (Arditurrikoa bezalako bidegorria sortu beharrean). Bide-zorua erosoa ere izan daiteke, nahi bada asfaltu moduko tratamenduaren bidez, baldin eta ez badu zabalera asko hartzen.
  - Bide bat gaitzea, bereziki Karrika auzoko bizilagunentzako oinezko bidea, auzokideek askotan egindako eskaera da. Igarotze errazekoa izan behar du, baita mugikortasun gutxituko pertsonentzat ere, eta argiztatua, Arraskuerrotaraino iritsiko dena.
  - Oinezkoen eta bizikleten bidea prestatu Altzibar eta Zorrola artean, igarotze erosoa duena, baina asfaltatu gabe.
  - Ubide osoan zehar ibaiertzeko landaredia hobetzea, jabeekin hitzarmenak lortuz, eta gauzatzea Udalaren esku utziz.
  - Makutsokoa bezalako ekintza garatzea, Karrikako landazabalaren nekazaritza erabilera mantentzeko, lurren alokairuaren bidez.
  - Urmendiko zubia erreferentziazkoa izan daiteke zubi berrientzako. Bertan, taula eta burdinezko euskarriak falta dira, baina ostikoak mantentzen dira.
  - Errekaren ondoko parke berrian, egurrezko jolas eta higikariak izango dituen alemaniar haur-parkea jartzeko erabakia hartu da, auzokoekin egindako bileretan.
  - Bidasoro alboko informazio panelak, nahiz eta ondatua dagoen, bisitarientzako informazio gisa balio du, eta konpondu egin beharko litzateke.
  - Gaur egun pertsona ugari ibiltzen dira bizkletan ibiltzen, oinez, korrika, etab. Parke Naturalerako bidean. Egoera honi aurre egiteko, erabilerak ordenatu eta horren inguruko informazio eman beharko litzateke.

6.3 PAISAIAREN BALIOA

Diagnosian, paisaiaren kalitatean eta biztanleek emandako balioan oinarrituz, paisaiaren balorazioari buruzko ondorioak lortu dira. 1etaik 3ra doan balorazio-tartea (balio baxu, ertain eta altuari dagozkiena) emango da, bai Paisaia Kudeatzeko Unitateei bai paisaiaren baliabide bakoitzari

PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEAK (KPU)	PAISAIAREN BALIOA
Altzibar KPU	★
Altamiralarre-Arraskuelarre KPU	★★
Karrika KPU	★★★

PAISAIAREN BALIABIDEAK	PAISAIAREN BALIOA
Ibaiertzeko landaredi naturala	★★
Ibaiko habitata, ur-xafla eta ur-jauziak	★★★
Harizti azidofiloa eta baso mistoa	★★
Sega-belardiak	★★★
Interes geologikoa duten eremuak	★
Artikutzako trenbidea – Ofita zamaketarako tokia	★★★
Dorretxeak	★
Aranburuola burdinolaren hondarrak	★★
Errotak	★★★
Ugarteolako zubia	★★★
Karobiak	★
Altzibarko gurutzadurak	★
Iragorriko hilerria	★
Harri lehorreko hormak	★
Altzibarko eraikin berezia	★★
Altamiralarre eta Arraskuelarre muinoak	★★
Karrikako landazabal atlantikoa	★★★
Karrikako mendi-bizkar basotsuak	★
Artikutzako trenbide zaharraren bidea	★★★
Bide publikoak eta pasabide homologatuak	★★
Erabilera publikoko ekipamenduak	★★
Olalden arrainentzako arrapala	★

PKUei dagokienez, balorazio altuena Karrikako unitateak lortu du, paisaia tradizionalaren kalitatea eta izaera mantentzen duten baliabideak baititu. Bigarren mailan, eta baliabideak eta gatazkak elkartuz, Altamiralarre-Arraskuelarreko unitateaa dago: ikusgarriak diren gainazal basotsuak eta kalitate natural handikoak (basoak, erreka,…) baititu. Altzibar PKUak du paisaiaren kalitatearen balorazio baxuena, balio estetiko gutxi eta paisaiaren inguruko gatazka asko pilatzen baitira. Baliabideak, gainera, oso puntualak dira.

Baliabideei dagokienez, landazabal atlantikoari lotutakoak dira aipagarrienak, baita ibai-ibilbideak eta meatze-trenbide zaharra ere, lurralde honen elementu bereizgarriak baitira. Bigarren maila batean, arkitektura- eta natura-ondareko beste elementu batzuk ere sartzen dira.

7. PAISAIAREN KALITATE-HELBURUAK

7. PAISAIAREN KALITATEA-HELBURUAK

PKUak lortu nahi duen irudi globalarekin eta jardunbidearekin bat datoz paisaiaren kalitate-helburuak. Alde batetik, helburu orokorrak ezarri dira, ikerketa-eremu osoa hartzen dutenak. Beste aldetik, unitate bakoitzeko helburuak ezarri dira, paisaiaren balioari eta hautemandako baliabideei eta gatazkei dagozkienak.

7.1 HELBURU OROKORRAK

PKH1 Paisaia harmoniatsua, babestua, izaera zaindukoa eta Altzibar, Karrika eta Oiartzungo udalerriko izaeraren parte gisa hartuko dena.

PKH2 Erabilerak elkartuko dituen eremua, eta aldaketetara egokituko dena, degradatutako elementuak eraldatuz, eta eremu guztiaren balioa areagotzen lagunduko duten gune bihurtuz.

OCP3 Ondare natural eta kulturaleko osagaiak nabarmenduko dituen lurraldea, paisaia bereizgarri eta orekatuan integratuz.

7.2 PAISAIA KUDEATZEKO UNITATEKO HELBURUAK

PKU.1 –ALTZIBAR

PKUH1.1 Oiartzun ibaiertzetan okupatu gabeko ibai terrazak mantentzea eta auzo honetako toponimiak gogoratzen duen haltzadia berreskuratzea.

PKUH1.2 Karrika errekako bazterrak berreskuratzea eta konpontzea, planifikatutako garapen urbanistikoetako aukerak optimizatuz eta gaur egun degradatuak dauden eraikuntza-guneak berreskuratzeko aukerak baliatuz.

PKUH1.3 Ondare elementuak nabarmentzea eta balioan jartzea (zubiak, errotak, gurutzadurak, eraikuntza esanguratsuak).

PKUH1.4 Hondakinen, pilatutako materialen, utzikeriaren eta erabilera desegokien eraginez degradatutako eremuen egoera orokorra eta irudia hobetzea.

PKUH1.5 Inguruaren natura- eta ondare-balioekin bat datozen erabilerak ezartzea Cadarsoko sektorean.

PKU.2– ALTAMIRALARRE-ARRASKUELARRE

PKUH2.1 Ibai-habitataren zaintza bermatzea kalitate gehieneko eremuetan, eta ibaiko landarediaren garapena bultzatzea, estaldura areagotzeko, edo espezie aloktonoak ordezkatzeko.

PKUH2.2 Arraskuelarreko eta Altamiralarreko muinoetan landarediaren estaldura mantentzea, oraingo irudia eraldatu dezaketen esplotazio moduak edo erabilera aldaketak saihestuz.

PKUH2.3 Karrikako harrobiko birsorkuntza naturala erraztea, prozesua oztopatuko duten erabilerak saihestuz eta, behar izanez gero, jarduera bateragarriak ezarriz.

PKUH2.4 Ondare industrialaren hondar historikoak ikusgarri egin eta balioztatu, bereziki, harrobiko zamaketarako tokia eta Aranburuolako burdinola.

PKUH2.5 Unitatea gurutzatzen duen eta orain erabiltzen ez den linea elektrikoaren eragina ezabatzea.

PKU.3 – KARRIKA

PKUH3.1 Karrika errekako habitataren kalitatea hobetzea, haltzadia eta ibaiko landaredia berreskuratuz, ertzetako eta ibilguko eremu andeatuak onera ekarriz, eta kalte eta okupazio berriak saihestuz.

PKUH3.2 Landazabal atlantikoa bailararen izaeraren paisaia kultural gisa mantentzea, abeltzaintzarako erabilera mantenduz eta hirigintzaren garapena mugatuz.

PKUH3.3 Hariztiak mantentzea, espezie enblematiko gisa, eta, orokorrean, baso mistoa mantentzea, eta kopurua areagotzea, beste zuhaitz espezie batzuk ordezkatuz.

PKUH3.4 Landa-eremko arkitektura ondareko elementuak (karobiak, errotak, baserriak) balioan jartzea, mantentzea eta konpontzea.

PKUH3.5 Linea elektrikoek eta gainerako azpiegitura linealek sortutako paisaiaren gaineko eragina gutxitzea (errepideak eta bideak).

8. EKINTZA PLANA

8. EKINTZA PLANA

Diagnosia, paisaiaren balorazioa eta helburuak kontuan hartuz, 10 ekintza eta haien garapena aurkezten dira orain. Horietako batzuk kokapen zehatzei, egoera bereziei eta beharrei erantzuten diete; beste batzuk, eremu osoa hartzen dute, egiturazko elementuei edo hiru unitateetan daudenei eragiten dietelako.



1. Ibaiko paisaia berreskuratzea	6. Ondarearen elementuak balioztatzea
2. Linea elektrikoen eragina gutxitzea	7. Cadarson ekipamendu kolektiboa konfiguratzea
3. Hondakinak, eraikuntzaren hondarrak eta lanetako materialak kentzea	8. Harrobiko ingurumena eta paisaia hobetzea
4. Zuhaitzen estaldura mantentzea eta hobetzea	9. Landazabaleko paisaia mantentzea
5. Oinezkoen eta bizikleten lotura	10. Ibaiaren inguruko puntu esanguratsuetan egonaldi-eremuak

1. EKINTZA. IBAIKO PAISAIA BERRESKURATZEA	PKU
	• *Altzibar* • *Altamiralarre-Arraskuelarre* • *Karrika*

JUSTIFIKAZIOA

Karrika errekaren eta Oiartzun ibaiaren ibilguak eta ur-xaflak duten kalitate altua kontrastean dago landareen estalduraren eta ertzetan dauden espezieen urritasunarekin. Egoera hori areagotu egiten dute inguruan dauden errepideek, eraikuntzek, errekaren bideratzeek, zelaiak ibaiertzeraino erabiltzeak, eta ornamentazio-landareak egoteak, batez ere platanoak (egoera naturalean edo kimuatuak). "*Altzibar*" toponimiak adierazten duen bezala, haltza da eremu horretako espezie bereizgarria eta orain, ahal adina berreskuratzea da helburua.

Oiartzungo HAPOk ibai-bazter bakoitzean 10 metroko tartea zehazten du gainazaleko uren babes eremu gisa; bertan, ibaiko landaredien inguruko ekintzak mugatuak daude, zuhaitzak botatzea debekatzen da eta ez dauden eremuetan garatu daitezen bultzatzen da.

SNUaren antolaketa kategoriak

Gainazaleko urak babestea

Banbu espezie inbaditzailea (*Phyllostachys sp.*) eta platanoa (Phyllostachys sp.) zenbait gunetan agertu izanak ibaiaren landarediaren degradazioa nabarmentzen du. Zehazki, hiru banbu-multzo nahiko esanguratsu hauteman dira hiru kokapen zehatzetan (Larraldapa eta Martinmotzene baserrietako lurretan, eta Karrikako tarte batean), eta eremuen egoera degradatuari lotuta doazela uste da. Izan ere, abeltzaintzarako erabili izan ohi dira eremu horiek, eta gaur egun utzita daude edo oso erabilera murriztua dute.

Ibaiko habitata degradatzen duen beste elementu bat tarteka sortzen den kutsadura da, Karrikako saneamenduan sortzen diren akatsek eragindakoa.

Harremana duten baliabideak / gatazkak	Laguntzen dituen helburuak
• Paisaiaren baliabideak: PB.1; PB.2 • Paisaiaren gatazkak: PG.7; PG.9; PG.11; PG.12	• Helburu orokorrak: PKH.1; PKH.3 • PKUko helburuak: PKUH1.1; PKUH2.1; PKUH3.1

KOKAPENA



GARAPENA

Helburu nagusi gisa, ibaiertzeko landarediaren gutxieneko zerrenda bat lortu nahi da, nagusiki haltzek osatuko dutena eta ertz banatan egongo dena. Horretarako, baldintza egokiak dituzten lursailetan ekingo da, eta ahalik eta erarik egokienean.

a) **Haltzak landatzea.** Orientabide gisa, eta leku zehatzen arabera, 2x2 markoan altuera txikiko (gehienez metro 1) haltzak landatzea proposatzen da, zilindroekin babestuz. Jabari Publiko Hidraulikoko eremuan (ibilguaren barruan, ur-bazterretan, uraren maiala baxuenaren eta ur-goraldi arrunten arteko tartean) edo, kasu honetan, jabego pribatua duten ibaiertzetan (bide-zor eremuan, ibilgutik hasi eta 5 metroko zabaleran) egingo dira. Gutxi gorabeher, 900 bat metroko tartean landaketak egin daitezkela balioetsi da; horietan, ibaiertzean ez dago landaredirik edo orlako dentsitatea areagotzeko aukera dago. Izan ere, gainerakoetan jadanik landaredi egokia dago edo dituzten egoera berezien eraginez, ez da posible landatzea (bideratzeak, eraikuntzak, etab.). Zenbaitetan, beharrezkoa izango da aurrez sasiak edo zuhaixka apaingarriak kentzea (arbustua).



b) **Platanoak mailaka kentzea.** Platanoa existitzen diren tarteetan (500 bat metro kalkulatu dira), landaketa tarteka eginga, eta haltza garatzen doazen heinean, platanoak kenduko dira. Kimatu eta moztuko dira, ebakitakoak kenduz. Motzondoan herbizida botako zaio, eta, ondoren geotextila jarriko da, berriro haz ez dadin.

Platano ilarak Karrika errekaren ertzetan

c) Landaredia exotikoa edota inbaditzailea kentzea:

- Banbua dagoen tarteetan, lehenik kendu egin beharko dira. Azalera txikiko hiru orbain (700, 200 eta 100 m^2) dira baina, altuera handikoak direnez, tratamendu kimikoak fumigazio bidez ezartzea zaila egiten da. Ibaiertzean kokatuta egoteak ez du prozeduraren alde egiten eta gainera ez da erabat eraginkorra. Horregatik, eta orbanek duten dimentsioa dela-eta, komenigarria dirudi landare guztiak kentzea, errizoma barne, bide mekanikoen bidez (makina hondeatzaile txikia erabiliz) edo eskuz (hondeatzeko esku-tresnak erabiliz). Era guztitara, ezabaketa osoa ziurtatzeko, errizoma osoa eta aireko zatia ezabatzea beharrezkoa da. Hondakinak hondakindegira eraman beharko dira.

Banbu orbanak Karrika errekaren zenbait tartetan

- Beste tarte batzuetan garapen desberdineko zenbait sasiakazia daude eta ibaiko berezkoa den landarediaren lekua hartzen dute. Horiei dagokienez, ezabatu egin beharko dira (lehortuz edo metodo kimikoen bidez) eta ondoren, beharrezkoa izanez gero, espezie autoktonoekin ordezkatu.

Sasiakazia Karrika errekaren ibaiertzetan

- *Cortaderia selloana* ere aurkitu da zenbait puntutan, eta ezabatu egin behar da zabaldu ez dadin.

Cortaderia selloana aleak Karrika errekan

d) **Altzibar Hegoaldeko eremurako HAPOk aurreikusitako paisaiaren eta ingurumenaren eskakizunak egoki ezartzea.** HAPOren arabera, La Pitusa-Errotaberri eremuko garapen-tresnek 120 metroko tartean Karrikako errekaren ezker bazterra hobetu behar dutela aipatzen da. Horretarako, paisaiaren integraziorako eta babeserako neurriak eta fauna espezieen kudeaketarako planak errespetatu beharko dira. Gidalerro horiek garapen-planeamenduan islatu behar dira, beraz, onartu egin behar dira aurreikusitako helburuak bete daitezen. Era berean, Errotaberriko iturburua berreskuratzeko zehazten dena zorrotz jarraitzen dela ziurtatu beharko da; horretarako, iturbururako hainbat aukera eskainiko dituen gune berdea ezarriz (urmael, iturri tradizionala, etab.), betiere ura bertan kontsumitzea ahalbidetuz.

Ibaiertza Altzibar Hegoaldean

e) **Karrikako saneamendua hobetzea eta konpontzea.** Filtrazioak saihesteko, hodi biltzailerako aurreikusitako lanak egitea, eta une honetan ubidera botatzen diren hondakinak bertara bideratzea. Gainera, zenbait baserritatik ubidera iristen diren hondakinak ere kontrolatu behar dira.

Epemuga / ezarpena	Epe ertain / luzea; e) proposamena salbu, zeina epe laburrerakoa baita.
Lehentasuna	Altua
Bideragarritasuna	Ibilgutik kanpoko ekintzetan (zor-eremua) eta nagusiki, lursail pribatuetan jardutean, jabetzaren baimena behar da. Ibilguko (ibaiertzetan) jardueretan ez da beharrezkoa, nahiz eta aurreko kasuan bezala, beharrezkoak diren Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Uraren Euskal Agentziaren (URA) baimenak. Proposatzen diren jarduerak URAk gauzatu ohi ditu, eta Oiartzungo Udalaren laguntzarekin, hemen proposatuak gauzatu beharko lituzkeela uste da
Parte hartzen duten	• Oiartzungo Udala

eragileak	• Gipuzkoako Foru Aldundia • URA Agentzia • Lursailen jabeak
Adierazleak	• Landatutako haltzadien metroak lerro zuzenean • Landatutako landare-kopurua • Ezabatutako landaredia inbaditzaile azalera (m^2)

2. EKINTZA. LINEA ELEKTRIKOEN ERAGINA ARINTZEA	**PKU** • *Altamiralarre-Arraskuelarre* • *Karrika*

JUSTIFIKAZIOA

Tentsio altuko bi lineek eragin bisual handia dute hondo eszenikoan, eta batez ere dorreek, kableek eta segurtasun kaleek eragindakoak dira, planaren eremutik iragate hutsak eragiten duen eraginaz gain. Bestalde, nabarmenak dira errekaren ondotik igarotzen den tentsio ertaineko linearen poste eta euskarri-dorreak, eta horrek eragiten du, besteak beste, errekaren tarte baliagarrian eta sentikorrean landaredia kendu behar izatea.

Harremana duten baliabideak / gatazkak	**Laguntzen dituen helburuak**
• Paisaiaren baliabideak: PB.1; PB.3; PB.16; PB.17;PB.18 • Paisaiaren gatazkak: PG.5; PG.9	• Helburu orokorrak: PKH.1 • PKUko helburuak: PKUH2.1; PKUH2.5; PKUH3.2; PKUH3.5.

KOKAPENA



GARAPENA

a) **Larraldapan tentsio ertaineko linea elektrikoaren postea lekualdatzeko eskaera.** Postea errekaren ibilbidearen ondoan dago kokatua, horregatik, beharrezkoa da tarte horretako eskuin bazterreko landaredia kentzea edota kimatzea. Izan ere, tarte hori da ibaiertzeko landarediaren tarterik esanguratsuenetakoa eta ezker bazterrean garatu dadin saihesten du. Beraz, postea metro batzuk muinorantz lekualdatzea proposatzen da.

Ibaiertzeko landarediaren egoera eta tentsio ertaineko linea elektrikoa

2017ko apirilean berriz kimatu dira zuhaitzak (haltzak, lizarrak, etab.), eta horrek agerian utzi du linea elektrikoaren mantentzeak paisaian eta ingurugiroan duen eragina.

Kimatutako haltzak eta haritzak 2017ko apirilean

b) **Linea elektrikoen mantentze lanetako baimenetan, Oiartzungo Udalak landaredia babesteko irizpideak ezartzea.** Linea elektrikoen segurtasun-kaleak mantentzeko kimatze eta ebakitze lanen ondorioz, eta Oiartzungo Udalari dagokionean, eskaerak berrikusteko gomendioa egiten da, ekintzek landaredia ahalik eta gutxien erasan dezaten. Horregatik, EDP[5]-k garatutako zuhaitzen ebakitze, kimatze eta tentsio altuko eta baxuko aireko lineen zerbitzu baldintzen zehaztapen teknikoak ezarritakoa erabil daiteke erreferentzia gisa.

c) **Erabilpenik gabeko Pasaiako zentral termikoaren linea kentzeko eskaera.** 2012ko azaroaz geroztik, linea zerbitzutik kanpo dago, zerbitzua ematen zion instalazioa itxi delako. Oiartzungo HAPOk erabiltzen ez diren linea guztiak kentzen joatearen alde egiten du. Horretarako, enpresa jabeari egin zion linea kentzeko eskaera, eta honek erantzun zuen, instalazioaren iraungipen data erabileraren amaiera ondoko 7 urtea betetzean gertatzen dela. Paisaiarak ekintza-planak Udalari proposatzen dio eskaera honekin eta beharrezko tramitazio guztiekin jarrai dezan, 2019 amaierarako linea hori ezabatzeko helburuz.

d) **Mugaz gaindiko konexiorako linea elektrikoa zaharkitzeagatik kentzeko eskaera.** Linea horrek planaren eremua zeharkatzen du, Aiako Harriko Parke Naturalaren eta KBEaren ondotik pasatu eta bertan barneratzen da. 2025etik aurrera, linea hori aldatu ahal izango da *Bizkaiko Golkoa Proiektua* deitzen den Akitaniarekiko interkonexio-linea berriaren bidez. Interes europar komuna duen proiektua (PIC 2.7 proiektua) da, eta Espainiako Sare Elektrikoak (REE) bultzatua da. Itsaspeko tartea (260 km-koa) Gatikan (Bizkaia) hasten du eta 2 x 1.000 MW etengabeko lotura ahalbidetuko du. REEk adierazitakoaren arabera, une honetako lineak 70ko hamarkadakoak dira, eta, hortaz, zaharkituak daude. Izan ere, Kataluniatik Frantziarekin egindako interkonexio berriaren ondoren, linea zaharkituak kentzeari ekin zaio. Horregatik,

[5] http://www.hcenergia.com/recursos/doc/Colaboradores/Proveedores/Electricidad/Ingenieria/133150901_4112013115236.pdf

Paisaiarako ekintza-planetik abiatuz, Oiartzungo Udalak interkonexio berriaren tramitazio prozeduraren eskaera honi ekin diezaion gomendatzen da. Izan ere, lotura berriez gain, jadanik badauden lineak mantentzea gerta liteke eta.	
Epemuga / ezarpena	Luzea
Lehentasuna	Tartekoa
Bideragarritasuna	Kanpoko erakundeei egindako eskaerak direnez, ekintzak Oiartzungo Udalari dagozkio, nahiz eta azken emaitzak gaian eskudun diren erakunde eta organismoei dagokien.
Parte hartzen duten eragileak	• Oiartzungo Udala • Espainiako Sare Elektrikoa • Iberdrola Gipuzkoako Foru Aldundia
Adierazleak	Kendutako / aldatutako lineen metro zuzenak

3. EKINTZA. HONDAKINAK, ERAIKUNTZA HONDARRAK ETA IBAIAREN IBILBIDEKO EREMU HONDATUETAKO LANETAKO MATERIALAK KENTZEA	PKU • *Altzibar* • *Altamiralarre-Arraskuelarre* • *Karrika*

JUSTIFIKAZIOA

Karrika errekako ibai-ardatzaren endekapenean hainbat arrazoi dira aipagarriak. Horien artean, utzikeriak, garbitasun ezak eta mantentze faltak, eta materialen pilaketak paisaiaren kalitatea erasaten dute, eta eremuaren izaera osora zabaltzen da degradazio-egoera hori. Oinarrian, kudeaketa eta utzikeria gabeziak konpontzea da helburua, alboko eremuetara erraz zabaltzen baitira. Zenbait kasutan, behin arazo horiek konponduta, balio paisajistiko altua duten eremu bilaktu daitezke.

Harremana duten baliabideak / gatazkak	Laguntzen dituen helburuak
• Paisaiaren baliabideak: PB.1; PB.20 • Paisaiaren gatazkak: PG.1; PG.2; PG.7; PG.12	• Helburu orokorrak: PKH.1, PKH.2 • PKUko helburuak: PKUH1.4; PKUH3.1

KOKAPENA



GARAPENA

a) **Errotaberri ingurua txukuntzea eta espaloia berritzea:** jabego pribatuko kokaleku horretan, non urbanizazio proiektua aurreikusita dagoen, pilatzen dira ibaiertzetik nahiz errepidetik hauteman daitezkeen degradazio-elementuak. Egokiena endekatutako elementuak kentzea eta eremuaren garbiketa orokorra egitea litzateke, baita barruan dagoen eraikuntza tradizionalaren ikusgarritasuna ahalbidetzea ere. Beste maila apalago batean, elementu horiek eta eremu guztia ondoko aparkaleku eta errepidetik ez ikusteko, jabetzarik itxitura ilun egoki bat jar dezan ere badago (inguruan ahalik eta gehien integratuz). Eremu berean, ekintza horrek tarte

horretan eteten den espaloi zatia eraikitzea ahalbidetuko luke, oinezkoentzako bide bakarra baita.



Errotaberri inguruko lanen instalaziorako biltegia eta moztutako espaloia

b) **La Pitusa ondoko New Jersey hesiak kentzea:** errepidetik ikus daitekeen degradazio faktorea izateaz gain, ibilgailu eta txirrindulariekiko arrisku faktore ere bada, zati batzuetan bide publikoen eremua hartzen baitu (errepidearen mugatik hiru metrora), eta babes eremuaren baitan kokatzen baita. Horiek kentzea eta pilatzeko eremu egoki batera eramatea gomendagarria da; zer esanik ez, ahal bada, ikusgarriak ez diren eremu batera.

La Pitusako eremua eta New Jersey hesiak

c) **Altzibar Industrigunea eremua txukuntzea:**

- Abandonatutako ibilgailuak, objektuak, pneumatikoak, paletak eta poligonoko ibaiertzean

pilatutako hondakinak garbitzea.

- Andeatutako hiri-altzariak konpontzea eta ordezkatzea (farolak).
- Hiriko hondakinak uzteko puntuaren arazoa konpontzea. Maiz hondakinak pilatzen dira inguruan, eta ibilgailuen joan-etorriaren eraginez, eremua hondatua dago. Erabilera okerra saihesteko, leku egokiago eta agerikoago batera lekualdatzeko aukera ere badago.

Altzibar Industrigunea eremuaren eta hondakinak gehitzeko puntuaren degradazio egoera

d) **Bidasoro errota ondoko Karrikako zubia konpontzea eta mantentzea:** zubiaren egurrezko gainazala konpontzea eta lantzea, gutxinaka gertatu den degradazioa sahiesteko eta erabilpena bermatzeko. Gainera, pasagunearen ondoan utzita geratu den aurrefabrikatutako hormigoizko pieza kentzea proposatzen da.



Karrikako oinezkoen pasagunearen degradazio egoeraren xehetasunak

e) **Petrieneko (Karrika) zubi ondoko eraikuntzen hondakinak kentzea:** erreka ondoko erabilerarik gabeko eraikuntzen hondakinak eraistea eta kentzea. Eraikuntzak beste kokaleku batean dagoen pabiloi handiago batek ordezkatu ditu.

Petrieneko zubi ondoko eraikuntzak

f) **Oiantzabal ondoko ibaiertzean jaulkitako materialak kentzea:** bidearen eta ubideren ertzean lanetako materialak daude pilatuta, baita nekazaritza erabilerarako depositu mugikor bat ere. Horiek kentzea eta egoki kudeatzea proposatzen da.



Oiantzabal inguruko ibaiertzean jaulkitako materialak

Epemuga / ezarpena	Tartekoa
Lehentasuna	Altua
Bideragarritasuna	Orokorrean, mantentzeko ekintza errazak eta puntualak dira, eta batzuetan Udalaren ohiko lanen barne hartu daitezke, eta beste batzuetan, eremu pribatuari dagokio, nahiz eta Udalak eska ditzakeen ekintzak izan daitezkeen.
Parte hartzen duten eragileak	• Oiartzungo Udalari dagokio c) eta d) proposamenak abian jartzea. • a), b), e) eta f) proposamenak, berriz, lurren jabeei dagozkie, nahiz eta Oiartzungo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (Errepideak) eskatzeko aginpedunak diren. Errotaberri espaloiaren kasuan, antzeko beste batzuetan bezala, ekintza Udalari egokitu ahal dakioke.
Adierazleak	Ekintza bakoitzari ekitea

4. EKINTZA. ALTAMIRALARRE-ARRASKUELARREKO ZUHAITZ-ESTALDURA HOBETZEA ETA MANTENTZEA	PKU • *Altamiralarre-Arraskuelarre*

JUSTIFIKAZIOA

Bi mendi-tontor hauek oso ikusgarriak dira paisaian, eta, gaur egun, duten nagusiki espezie kadizifoliozko zuhaitz-estaldura dela eta, kalitatezko itxura dute. Aireko argazki historikoen seriean ikus daiteke denboran zehar jasandako aldaketak, basoaren ustiapenaren ondorioz, eta eragin bisual handia dutela antzematen da. Zuhaitzen estaldura hautemangarria eta iraunkorra egonkortzea da helburua, dagokionean baimendutako basoaren ustiapenarekin bateragarri eginez.

Altamiralarreko (eskuinean) eta Altamiralarreko (ezkerrean) aireko ikuspegia

Harremana duten baliabideak / gatazkak	Laguntzen dituen helburuak
• Paisaiaren baliabideak: PB.3; PB.16 • Paisaiaren gatazkak: PG.10	• Helburu orokorrak: PKH.1, PKH.3 • PKUko helburuak: PKUH2.2

KOKAPENA



GARAPENA

a) **Arraskularreko Erailera Publikoko Kausua Mendian barneratutako lursailetan baso naturala berreskuratzera bideratutako kudeaketa ezartzea:** Gipuzkoako Foru Aldundiari landaredia potentzialaren, garapen selektiboa ahalbidetuko duen udal jabetzako 7 hektareetan eskumenak ezar ditzan eskatu; bereziki haritza eta habitateko jatorrizko beste zenbait espezie zuhaixkara landuz.

Arraskuelarreko Erabilera Publikoko Mendia

b) **Babes Berezia eta Mendi Berreskurapena kategorietan dauden jabego pribatuko eremuak hobetzea eta zaintzea:** bereziki Altamiralarren eta Arraskularreko tamaina txikiko zenbait gunetan. Lursail horietan, udal-planeamenduak proposatzen du kontserbatzeko eta berreskuratzeko helburua duten erabilerak bultzatzea. Praktikan jartzeko, ekimena basoen kudeaketan eskumena duen administrazioari iragatea proposatzen da, bera baita basoen aprobetxamenduen eskariak jasotzen dituena.

c) **Mendi Basoa izendapena duten lursailetan basoa ustiatzeko baimenak eskatzean, paisaia zaintzeko irizpideak ezartzea:** Arraskularreko mendiaren zati nagusia eta Altamiralarreko sektore bat hartzen ditu mota horretako izendapenak. Horietan, udal hirigintza plangintzak baso-erabilera ahalbidetzen du titularitate pribatuko lurren kasuan. Paisaiaren aldeko baldintzak ezartzea proposatzen da, Gipuzkoako Mendien Foru Arauak esan bezala, baso-eremu itxura izateko nahikoa zuhaitz dentsitate bermatze aldera. Baldintzak araudian bildutako aukeren artean integratzen dira eta eskakizunak gaindituz gero, orekatu ahal izango dira.



Epemuga / ezarpena	Laburra
Lehentasuna	Tartekoa
Bideragarritasuna	Udalaren erabakia izanik, ekintza bideragarria da, nahiz eta ezarpena GFAren eskumena izan; gainera, Udalak ere jarraipena egin dezake.
Parte hartzen duten eragileak	• Oiartzungo Udala (eskaera) • GFA (ezarpena)
Adierazleak	Kalitate paisajistiko duen zuhaitz-azalera egonkorra

5. EKINTZA. OINEZKOENTZAKO ETA TXIRRINDULARIENTZAKO LOTURA ALTZIBAR ETA KARRIKA AUZOEN ARTEAN	PKU • *Altzibar* • *Altamiralarre-Arraskuelarre* • *Karrika*

JUSTIFIKAZIOA

Une honetan ez dago Karrikako auzoa eta Oiartzungo beste kokalekuak lotzen dituen oinezkoen ibilbiderik, beraz mugitzeko beharrezkoa da Artikutzako errepidea (espaloi eta bazterbiderik gabea) edo Recuperaciones Cadarsoko industria instalazioa gurutzatzean duen tren zaharraren bidea (pasatzea debekatua dago) erabiltzea. Arazoa berdina da Altzibartik hasiz gero, noski. Gainera, kontuan izan behar da Ibilbide Txikiko (PR-GI-1007) bidea erabiltzen duten pertsonek bide hori egin ohi dutela, Aiako Harriko Parke Naturalerako sarreretako bat delako.

Une honetan herritarrek oinez joateko erabiltzen duten Artikutzako Errepidea

Ondorioz, errepide bazterretik ibiltzen da jendea eta ibilgailu pribatuaren erabilera bultzatzen du horrek. Indarrean dagoen hirigintza planaren arabera, Artikutzako trenbide zaharraren ibilbidea aprobetxatuz, Altzibarren hasten den oinezkoen eta txirrindularien ibilbidea izango dela aipatzen da. Azpiegitura horrek, gainera, ingurune horretan dauden intereseko landare-formazioak errespetatu beharko ditu.

Aurretik, 2004an, Oiartzungo Udalak "Oiartzunen Altzibar-Artikutza bidegorriko lehen fasearen proiektua" eskatu zion Injelan S.L. enpresari, eta Altzibar-Artaso tarterako onartu zen, nahiz eta ez zen abian jarri. Hala ere, hirigintza proiektuekin bat datozen tarteetan, bidea egokitzen hasi dira (Olalde eta Karikako tarte batean, hain zuzen ere).

Egoera hori kontuan hartuz, gomendagarria da epe laburrean komunikazio beharrei erantzungo dien proposamen batean pentsatzea. Proposamen hori, gainera bideragarria izan beharko da eta ingurunean egoki integratuko beharko da, beti ere ingurune horretaz modu arduratsuan gozatzeko aukera emanez. Bestalde, bizilagunen artean kezka antzeman da, erabilera intentsiboa izango duen bide batek izan ditzakeen ereginei dagokionean (Arditurriko bidegorrian gertatzen denaren antzekoa, hain zuzen).

Harremana duten baliabideak / gatazkak	Laguntzen dituen helburuak
• Paisaiaren baliabideak: PB.1; PB.6; PB.8; PB.9; PB.19; PB.20 • Paisaiaren gatazkak: PG.9; PG.14	• Helburu orokorrak:PKH.3 • PKUko helburuak: PKUH2.1; PKUH1.4; PKUH3.1; PKUH3.5

KOKAPENA



GARAPENA

Oinezkoentzako lotura eraginkor eta inguruarekiko jasangarria izateko nahikoa ezaugarri izango duen bidea prestatzea proposamena egiten da, eta era berean, une honetako Arditurriko bidegorriak ez bezala, paisaian eta ibaiaren ingurunean integratua egongo dena, zeharkatzen duen ondareko balioez gozatzeko aukera ematen duena. Xede nagusia Altzibar eta Karrika auzoen arteko lotura ahalbidetzea izango da, eta, horregatik, bidea Errotaurreraino prestatzea proposatzen da. Puntu horretatik iristen da ezkerraldeko ertzean dagoen bide asfaltatura eta, handik, gainontzeko bide-sarera.

Hori burutzeko, diseinuaren honako orientazio hauek ezarri dira:

- 2004ko "Oiartzunen Altzibar-Artikutza bidegorriko lehen fasearen proiektua"-k 2 eta 2,5 metroko zabalera izango zuen bidea hartzen zuen, eta plataforma zabalagoa zen lekuetan, bidea ere zabalagoa izateko aukera zegoen. Eremu horren erabilgarritasuna ez da nahikoa bide homologatua izateko, horretarako gutxienez 3 metroko zabalera gomendatzen baita. Erreferentzia gisa, Arditurriko bidegorriak, gutxi gorabehera, 3 metroko zabalera du.
- Proiektuan proposatutako zorua zagor eta lurrezko arekez osatua dago. Aglomeratuak edo antzekoak erabiltzen badira, artifizializatzea areagotuko litzatekeela uste da, baita desegokitzat jotzen diren aisia eta kirolaren eraginez bisiten maiztasuna eta abiadura handitzea ere. Hala ere, Karrikako oinezkoen komunikazio beharrek bide irisgarri eta erosoa gomendatzen dute; horregatik, zoruak egonkorra izan behar du. Interes kontraesankorrak daudenez, bat etortzeko, badirudi gomendagarriena dela zabalera murriztua duen (2 metro) zoru egonkorreko bidea prestatzea (aglomeratua, integrazio hobeko hormigoi inprimatua, granitozko jabrea bezalako material konpaktuak).
- Proiektuak 30 metrotik behin farola bat ezartzea proposatzen, edo ingurura hobeto egokitzen den beste argiteri mota bat. Horretarako, ordea, azterketa zehatzagoa egin beharko litzateke, puntu bakoitzeko ikusgarritasunaren beharrak definitzeko.

Gaur egungo egoera kontuan hartuta, hau da, Recuperaciones Cadarsoko instalazioak dihardutela eta jadanik tarte batzuetan bidea badagoela, epe laburrean bidea egokitzeko aukera dagoela antzematen da, beti ere auzoen arteko konexio beharrei erantzungo diena (funtzionaltasuna) eta azken diseinuarekin

aldarateko aukera emango duena. Cadarsotik pasatzen den tartean egin beharreko ekintza eremu zehatz horretarako egingo den planteamendura lotu behar da derrigorrez.

Hortaz, honakoa proposatzen da:

a) **Oinezkoak eta txirrindulariak aldi berean igarotzea ahalbidetzea Olalde-Altzibarko Industrigunea zubiko tartean (108 metroko luzera).** Une honetan, soilik txirrindulariek erabiltzea baimentzen duen ikurra dago. Praktikan, tarte hori oinezkoek eta txirrindulariek erabiltzen dute, beraz dagoen seinalea kendu daiteke eta egokiago bat jarri. Zabalerak 2,40 metro ditu eta gutxi gorabehera 30 zentimetro marrak alboetan.

Partekatutako erabilerako tartearen kokapena eta itxura

b) **Hazitegiaren eta Bidasoro Errotaren artean (400 metroko luzera), putzuz betetako puntuak egokitzea.** Egun dagoen zoruak baldintza egokiak ditu tarte horretan; izan ere, bertan idi-demaren entrenamendurako erabiltzen omen da, kamioi-gurpil batekin, eta horrek bide-zoruaren egoera onean mantentzea laguntzen du. Badira zenbait salbuespenezko puntu zehatz. Horietan, plataforma berriz bete eta drainatze lanak egin beharko dira.



Egokitu beharreko tartearen kokapena eta ikuspegia

c) **Zoruaren egokitzea eta plataforma puntu zehatz batean konptonzea, Bidasoro Errotaren eta Arraskuerrotaren artean (243 metroko luzera).** Une honetan zorua egoera txarrean dago, irregularra da eta putzuz betetako eremuak daude. Hortaz, beharrezkoa da gainazala kentzea eta zagor edo antzeko materialarekin betetzea eta egonkortzea. Gainera, proiektuan adierazi bezala, drainatzeak eta arekak jarri behar dira. Bestalde, nahiz eta proiektuan ez den zehazten, beharrezkoa da Bidasoro Errotaren pareko harri-lubetako puntu zehatz bat konpontzea, zati batean plataforma hondoratua baitago.



Konponketa beharrak dituen tartearen kokapena eta zehaztasuna

d) **Arraskuerrotako isurbidearen kanal gaineko pasabidea eraikitzea.** Proiektuan, 2 metroko zabalera eta 8 metroko luzera duen egurrezko pasagunea aurreikusten da, eta hori burutzeko 7.840 euroko aurrekontua (kokatzen den hormigoizko sabotak sartu gabe) proposatzen du (2004. urtean). Beste aukera bat izan daiteka Artikutzako trenbide zaharra gogorarazten duen metalezko pasabidea egitea, helburu hori beteko duen diseinu egokia izango duena, beti ere kostua areagotu beharrik gabe.

Pasagunearen kokapena

Epemuga / ezarpena	Laburra
Lehentasuna	Altua
Bideragarritasuna	Aurketu den proposamen sinplifikatuak teknika eta kudeaketa bideragarritasuna badituela uste da, eta Udalari dagokio abiaraztea. Ekintza puntualak izatean, kostua jadanik badagoena baino dezente baxuagoa da. Gainera, proposamen honek etorkizunean hobekuntzak egiteko aukera uzten du.
Parte hartzen duten eragileak	Oiartzungo Udala
Adierazleak	Gaitutako bidearen metro linealak

6. EKINTZAK. ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALEKO ELEMENTUAK BALIONA JARTZEA	PKU • *Altzibar* • *Altamiralarre-Arraskuelarre* • *Karrika*

JUSTIFIKAZIOA

Planaren eremuan zehar banatuta, ondare kulturaleko hainbat elementu hauteman daitezke, nahiz eta zenbaitetan ez diren ikusten errazak, edo balio handikoak izanagatik ere, ez dira horrela hartzen. Orokorrean, elementu horien beharrak honako hauek dira: lekuan bertan identifikatzea, irisgarritasun egokia bermatzea, beharrezko zaintza eta mantentzea, eta ondarearen interpretazio eta sentsibilizazio gisa dituen aukerak aprobetxatzea. Helburua ez da esplotazioa bera, baizik eta elementuak mantentzea, eta bertako memoria historikoa berreskuratzea eta aitortzea. Helburu horiei ere heltzen zaie beste ekintza batzuetan zehazten eta integratzen diren ondarearen gaineko proposamenetan.

Harremana duten baliabideak / gatazkak	Laguntzen dituen helburuak
• Paisaiaren baliabideak: PB.6; PB.7; PB.8; PB.9; PB.10; PB.11; PB.12; PB.13; PB.15; PB.19; PB.20 • Paisaiaren gatazkak: PG.13	• Helburu orokorrak: PKH.1; PKH.3 • PKUko helburuak: PKUH1.3; PKUH2.4; PKUH3.4

KOKAPENA



GARAPENA

a) **Harrobiaren kargalekua eta haren ingurua berreskuratzea:** ikusgarritasuna eta itxura hobetzeko asmoz, kargalekuaren hormak eta barnealdean landarediaren garbiketa eta kimatze selektiboa egitea proposatzen da. Bestalde, berriagoak diren eraikitako elementuak (bidearekiko eta errekarekiko dauden itxiturak eta hormak, tailapeak), hesiak kendu, eta errepiderako sarbidea eraiki beharko litzateke. Gainera, zorua konpontze, eta interpretazioarako elementuak ezartzea (esaterako, trenbidearen irudia duen murala, bereziki bagonetak itxuratuz) ere proposatzen da. Lursaila jabetza pribatuakoa da, eta bide publikoaren ondoan kokatzen da, parte batean

errekaren bide-zorraren menpe dagoena.

Kargalekuaren kokapena eta zehaztasunak

b) **Altzibarren eraikin berezia berreraikitzea eta informazio puntu gisa erabiltzea:** Karrika errekaren ertzean kokatuta dago, azkeneko zubiaren eta trenbide zaharraren bidearen ondoan. Herrigunean kokatzen da, eta jendea ibiltzenden eremuan dagoenez, aproposa da interpretazioa gune gisa erabiltzeko, hain zuzen trenbideari, Oiartzun eta Karrika ibaiei, markatutako bideei, landa eremuari eta Aiako Harria Parke Naturalari buruzko informazioa emateko. 100 metro karratuko solairu bat, harri-hormak ditu eta trenbide zaharraren errailak diruditena erabiltzen dituen ate mugikorrak osatutako fronte bereizgarria du. Une honetan, egoera degradatuan dago eta erortzeko arriskua aurreikus daiteke. Gainera, garapen urbanistikoa izango duen jabego pribatuko eremu bateko gune marjinalean kokatzen da. Eraikinaren estaldura eta egitura berreskuratzea proposatzen da, eta barnealdea mural informatiboak, planoak eta inprimatutako informazioa banatzeko erakusmahaiak ezartzea. Langilerik gabe ere funtzionatu dezake, irekiera eta itxiera doitzenbada. Instalazioak saihestuko luke lurraldean informazio-euskarriak sakabanatzea, horrek eragiten duen gehiegizko artifizializatzea ekidinez.

Altzibarren eraikuntza berezia kokatzea eta itxura

c) **Ondarearen elementuak identifikatzea, seinaleztatzea eta iristea:**

- Honako elementu hauetan interpretazio euskarriak (azalpen panelak, irudiak eta berregiteak) ezartzea:
  - Harrobiko zamalekua.
  - Aranburuolako burdinola.
  - Artikutzako tren zaharra.

- Eremuan atzemandako elementu bakoitzean seinale bereizgarri bat ezartzea, dagokion izena, garaia eta elementu mota adieraziz, norabide formatua (gezia) elementuaren izkinetan edo ibiltzeko eremutik elementurako sarbidean (distantzia zehaztuz) jarrita. Honako elementuetan jartzea proposatzen da (zerrenda hau ez da zehatza)
  - Ugarteola multzoa (zubia, burdinola, errota)
  - Altzibarko eraikin berezia
  - Olaldeko (Altzibar) zubiko hondarrak
  - Bidasoro errota
  - Arraskue errota
  - Artasoko karobia
  - Bidasoroko zubiko hondarrak (izkinetan ezartzen badira)
  - Bidasoro dorretxea
  - Gartzieneko karobia
  - Retegiko karobia
  - Iragorriko hilerria (jadanik identifikatua)

Seinaleak eta panelak bide publikoen izkinetan ezarriko dira, bertatik elementuak ikusi baitaitezke.



d) **Karrikako bailararen ondarearen bisorea:** planean identifikatutako ondarearen elementuak planoan kokatzea eta Oiartzungo Udaleko web orrian sartzea. Elementu bakoitzaren irudiak eta balioen azalpen sintetikoa bilduko dituen fitxategia izango litzateke, edonork kontsultatzeko modukoa. Tresna erraza denez, nahi izanez gero edukia areagotu daiteke edo udalerri osora zabaldu. Wikipediaren modura funtzionatuko luke, boluntarioen ekarpenen bidez osatzeko aukera izanik. Edukiek beste informazio euskarri batzuetarako oinarri gisa balio dezakete.

Epemuga / ezarpena	Tartekoa
Lehentasuna	Altua: a) eta b) (eraikina eror dadin saihestea) Baxua: gainerakoak
Bideragarritasuna	Zuzenean Udalari dagokio c) eta d) proposamenak ezartzea. a) eta b) proposamenen kasuan, une honetan jabetza pribatukoak diren lurren eta eraikuntzen erabilera beharrezkoa da, eta horretarako beharrezkoak diren inbertsioak egin beharko dira.
Parte hartzen duten eragileak	• Oiartzungo Udala • Lurren jabetza (zehaztutako kasuetan)
Adierazleak	• Seinaleztatutako / informazioa duten elementu kopurua • Ekintzak abiatzea

7. EKINTZA. CADARSOREN INGURUKO POTENTZIALTASUNAK APROBETXATUKO DITUEN EKIPAMENDU KOLEKTIBOA EGITURATZEA

PKU

- *Altzibar*

JUSTIFIKAZIOA

Degradazio egoerak berreskuratze ekintza zehatzak eskatzen ditu. Recuperaciones Cadarsoko jardueraren amaierak egoera berria dakarkio eremuari. Nahiz eta andeatutako eremua den, gaitasun handia du Paisaiarako ekintza-planarekiko edukiei dagokoinez: Altzibarko gunetik eta ibairen ibilbidean bertan kokatzen da, eta bertatik igarotzen da Artikutzako tren zaharra (oinezkoentzako eta txirrindularientzako ardatz izateko helburua duen ibilbidea). Trenaz gain, eremuak hainbat hondakin historiko garrantzitsu ditu (harrobiko zamalekua) eta Paisaiaren ekintza-planaren eremuaren eta Karrikako bailararen sarreran dago. Dagoeneko urbanizatutako ingurua izanik, eta berritze esanguratsua behar duen arren, erabilera publiko osagarria hartzea eta inguruko eta udalerriko beharrak asetzea ahalbidetu dezake.

Berritu beharreko elementuen artean, ubidearen ertza berreskuratzeak beharrezkoa dirudi. Une honetan hainbat metroko altuerako hormigoizko horma batek osatzen du eta mantentzea ez da bateragarria dagoen kokalekuarekin. Bestalde, jadanik badagoen pabiloia berrerabiltzeak zaila dirudi; izan ere, errekarengan dituen eraginaz gain, dagoen egoerak eta beste erabilera batzuetara egokitzeko zailtasunak ez dute lana errazten.

Instalazioek hartutako ibaiertzaren ikuspegia

Pabilioia eta instalazioak gurutzatzen dituen bide publikoa

2017ko apirilean, zenbait eraikuntza eta industria instalazioko elementu desegiten hasi dira.

2017ko apirileko instalazioen egoera

Hala eta guztiz ere, inguruko egoera urbanistikoa zalantzazkoa da, eta ondorioz, baita erabilerarako aukerak ere. Indarrean dagoen HAPOn, batetik, eremua Zoru Urbanizaezineko Okupazio antropiko gisa izendatzen da, Karrikako ubidearekin lotzen den 10 metroko zerrenda salbu, zeina Gainazaleko Uren Babes gisa jotzen den. Bestetik, eta egitura urbanoaren kalifikazio zehatzaren barnean (Elizalde-Altzibar-Iturriotz X-1.1 planoa), bi pabiloiak (Cadarso eta hazitegia), bidea eta tobera gunea "Ekipamendu kolektiboa, eraikuntza eta eraiki gabeko eremua" gisa kalifikatu dira; aparkalekua antolaketa horren kanpo geratu da (une honetan zakuen biltegi gisa funtzionatzen du).

LUEaren antolaketa kategoriak	Kalifikazio zehatza. Egitura urbanoa
Okupazio antropikoa LUEn	Ekipamendu kolektiboa (eraikuntza)
Gainazaleko urak babestea	Ekipamendu kolektiboa (eraiki gabeko eremua)

Bestalde, Oiartzungo Udalak eta Recuperaciones Cadarsok ezarritako hitzarmenean, udalaren menpe geratzen da 3.926 m^2-ko eremua. Bertan Cadarsoko pabiloia dago, baita eranskinak, handitzeak, aparkalekua eta eraikinaren aurreko biltegi eremua ere, nahiz lurren zabalerak eta toberak hartzen dituzten mugako 461 m^2-ko eta 127 m^2-ko bi lursail ere.

Lursail horien ezaugarriak Gipuzkoako katastroan aztertu ondoren, Cadarsoko pabiloiak eta aurrez aipatutako elementuak hartzen dituen 3.993 m^2-ko landa-lursaila antzeman daiteke, baita hazitegiko pabiloia ere. Horren barruan, bakoitza bere pabiloiari eta beraz jabetzari dagozkion bi lursail urbano hartzen ditu. Lursailaren kanpoan, hitzarmenean kokapen banatuan hartzen ziren toberak eta elementuak daude.



Gipuzkoako katastroko zehaztasuna Cadarsoko lursailaren inguruan

Hitzarmenean ez dira jasotzen harrobiko zamaleku zaharrean zeuden Recuperaciones Cadarsoko instalazioak (gune estalia eta grafito biltegitik gertuko gunea). Katastroari dagokionez, eta zamalekua salbu, gainerako eremuak (tobera eremua, zubirainoko zerrenda gisa jarraitzen duena, biltegiko eremu estalia, eta ubidearen beste ertza, Martinmotzene baserritik gertuko belardiko zati handi bat) datu eta identifikaziorik gabeko lursail bateko zatia dira.

Harremana duten baliabideak / gatazkak	Laguntzen dituen helburuak
• Paisaiaren baliabideak: PB.2; PB.19; PB.20 • Paisaiaren gatazkak: PG.3; PG.4; PG.7; PG.8; PG.9; PG.12; PG.14	• Helburu orokorrak: PKH.2 • PKUko helburuak: PKUH1.2; PKUH1.5

KOKAPENA



GARAPENA

a) Lurren titularitatearen eta plangintzaren arabera, erabili ahal diren lursailak zehaztea. Ekintzak burutzea eta horien tamaina, hein handi batean, zoruaren beraren, erabilera onargarrien, lurraren sailaren eta lurrak hartzearen aukeraren menpe daude. Alderdi horiek ezagutzeko, beharrezkoa litzateke honakoak argitzea:

- Ekipamendu Kolektiboko eremua izanik, eta nahiz eta zati bat udalaren titularitateko partaide den, hazitegiek hartutako zatia titularitate pribatukoa da, beraz, lehenik, titularitatea Udaletxera pasatu beharko litzateke ezarri beharreko legedia urbanistikoan zehaztutako jabetza moduen bidez, sistema orokorren menpeko lurrak baitira.

- Ordenazio kategoriei dagokoinez, Gainazaleko Uren Babes gisa sektorean zehar 10 metroko zerrenda sartzeak eragiten dutena zehaztu beharko litzateke, eremua guztiz eraldatua egon arren, kalifikazio horrek erabilera eraldaketan eragina izan baitezake.

- Hitzarmenean sartu gabeko lurretan, Cadarsok erabilitako instalazioei buruzko plangintza (eremu estalia eta zamalanetarako eremuaren ondoko biltegia).

Eremu estalia eta zamalekuaren ondoko biltegia

- Katastroan Identifikatu eta daturik gabeko lursailean sartutako ubideko bi ertzetako lurren titularitatea ebatzi.



- Hitzarmenean sartu gabeko lurrak erabiltzeko bideragarritasuna.

- Lurraren kalitatetik eratorritako inplikazioa, etorkizuneko erabileretarako, hain zuzen. Jarduera etetean, Cadarsoko instalazioen lurren eta Aranburu baserriko mugetako lurren kalitatea ebaluatuko da. Emaitzen arabera definituko da Cadarsoko lurrei eman dakizkiekeen erabileren bideragarritasuna, berreskuratzearen kostua etorkizuneko erabileraren arabera aldatu baitaiteke.

b) **Ibaiko parkea Ekipamendu komunitariorako eremu berde gisa.** Antzeman daitezken potentzialtasunei eta dauden beharrei erreparatuz, eremua erabilera publikorako eremu berde bilakatzea proposatzen da, ibai-parke modura dituen gaitasunak aprobetxatuz eta erabilera komunitariorako ekipamenduak txertatuz. Helburua da gatazka den eremu bat paisaiaren baliabide bihurtzea; ez bakarrik ingurumenaren edo estetikaren aldetik, baita zerbitzu publikoa eskainiko duen eremu gisa. Zenbati ezaugarrik egiten dute eremu hau egonladiarako eta aisialdirako gune aproposa izatea: Altzibarko auzoarekiko gertutasunak, hain zuzen, Karrika haranerako sarbide puntua dena, oinezkoen eta txirrindularien bideak zeharkatua izatea, ondo konektatua egotea, eta ibaira gerturatzeko aukera emateak. Izanere, nahiz eta harritzekoa dirudien, Oiartzun ibaian oso zaila da uretara hurbiltzeko punturen bat bilatzea, oso eremu gizatiartua baita.

Eremua hornitzeko, landa-izaera duten bankuak, mahaiak edo jolasak gisako elementuak jarriko lirateke, guztia dimentsio txikikoa, gunea masifikatzea eta hondatzea saihesteko. Guneak Olaldetik datorren oinezkoen eta txirrindularien bidea hartuko luke, zeina Artikutzako trenbidetik igarotzen den eta balioztatu behar den harrobiko zamaleku zaharraren ondoan dagoen. Karrika haranerako eta Parke Naturalerako sarbidean egonik, inguru osoan bisita daitezkeen elementuen eta ibilbideen inguruko informazioa zabaltzeko leku aproposa da: bideak, monumentu megalitikoak, etab. Horrela, Altzibarko gune berdeekin eta Karrikarekin elkartzen den bidea eratuko litzateke.

Era berean, eremuak autokarabana gunea har lezake. Horrek, jakina, eremuaren izaera apur bat aldatu beharko litzateke, nahiz eta txikia izan (6 leku, gutxi gorabehera). Horrelako instalazioen beharra jada HAPOn jasota dago, baina ez da kokapen zehatza identifikatu. Hori bai, jarduera ekonomikoetarako guneetatik gertuko eremu urbanizatuetan kokatu beharko liratekeela dio, eta zisternak husteko zerbitzu-sareetarako loturak behar lituzketela zehazten da. Beraz, proposatutako guenak betetzen ditu bi baldintza horiek.

Kontuan izan behar da, proposamen honen dimentsioa aldatu egin daitekela, behin esku hartu daitezkeen sailen determinazio ebazten denean. Hasiera batean, Recuperaciones Cadarsorekiko hitzarmeneko 4.000 m^2-ak eskuragarri izango dira 2017tik aurrera, eta jabegoa udalarena izango da. Eremuaren gainean jardutea posible da, baina komenigarria da aukera hori inguruko gainerako sailetara ere zabaltzea.

<u>Hitzarmenean sartutako lurren</u> artean, honakoak hartuko dituen <u>obra-proiektua</u> garatzea proposatzen da:

- Eraikinak eraistea eta kentzea, makinak, pabiloia eta erantsitakoak barne.
- Errekaren bideratze-horma kentzea eta bazter naturalizatuaren bidez ordezkatzea, bio-ingeniaritzako sistemek lagunduta.
- Eraikinak kendu ondoren, dagoen plataforma osoa, edo zati bat, erabiltzeko aukera ikertu, edota tarte bat induskatzea eta ondoren betetzea, emaitza anitzak emateko (aparkaleku-zorua, eremu berderako lur begetala, etab.).
- Eremutik pasatzen den oinezkoen eta txirrindularien bidea ahalbidetzea.
- Eremu berdean ekipamenduak gaitzea, eta nahi bada, autokarabana eremua.

<u>Proposamenean sartutako beste sail</u> batzuei eman beharreko tratamendua haiek eskuratzeko bideragarritasunaren araberakoa litzateke. Zehazki, gune estaliaren eta zamaleku zaharraren ondoko eremuan, ezinbestekoa dirudi berreskuratzea eta azaleraren tratamendua egitea.

Hazitegiko eraikinari dagokionez, ezin bada eraitsi eta Cadarsorako proposatutako ekintza gauzatu, eta urbanisitkoki bateragarria bada bertan mantentzea, eraikinaren kanpoaldea txukundu beharko

litzateke derrigorrez, atxikitutako eraikinak eraitsi eta estaltzen duen ibaiertzeko landaredia indartu.

Haztegien eraikinaren ikuspegia errekatik begiratuz

Epemuga / ezarpena	Laburra
Lehentasuna	Altua
Bideragarritasuna	Jarduera kendu eta Udalak lurren jabetza lortu ondoren, inguruan ekin beharrak atzeraezina dirudi. Egoera hau, ziurrenik, beteko da 2017ko erdialdea baino lehenago. Erabilera-aukerak zehaztea udal zerbitzuei dagokie, eta proiektua idazteak ez dakar bideragarritasunarekiko zailtasunik. Alderdi konplexuenak hitzarmenean sartutako eremua eraisteko eta berregituratzeko lanen kostuei dagozkienak dira. Gainera, ekintzak zabalduz gero, lanen kostuez gain, lurren jabetza lortzearenak ere sartuko lirateke. Erabilera industrialeko gunea izanik, lurren kutsadurari dagokionez erabilera berrietara bilakatzerakoan sortu daitezkeen kostuen aldaketak kontuan izan beharko lirateke, eta gertatuz gero, eragin ditzakeen baldintzekiko aldea. Ingurumena berreskuratzeaz ari garenez, beste erakunde batzuen (URA, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia) laguntza eskatu beharko litzateke, beste udalerri batzuetan antzerako kasuetan izandako esku-hartzea baliatuz. Ibaiaren inguruko ingurumen balioa kontuan izan behar da (mehatxatutako fauna-espezieen eremua baita). Bestalde, Eusko Jaurlaritzak kutsatutako lurzoruak berreskuratzeko diru-laguntza zehatzak eskaintzen ditu.
Parte hartzen duten eragileak	• Oiartzungo Udala • URA • Eusko Jaurlaritza • Gipuzkoako Foru Aldundia
Adierazleak	Proposamenak gauzatzea.

8. EKINTZA. KARRIKAKO HARROBIKO INGURUMENA ETA PAISAIA HOBETZEA	PKU • *Altamiralarre-Arraskuelarre*

JUSTIFIKAZIOA

Une honetan, titularitate pribatuko harrobi zaharrak paisaiaren gatazka eragiten du, bereziki errepidearekin muga egiten duen hormaren ikusgarritasunak eta plataformaren erabilpenak eraginda; izan ere, nahiz eta une honetan ez den erabiltzen, tarteka garabien eta eraikuntzarako makinen biltegi gisa baliatu izan da. Harrobia inguruko paisaian nagusi den Altamiralarre mendiaren magalean dago eta udalaren plangintzari jarraiki, Babes Bereziko eremuek inguratzen dute.



LUEaren antolaketa kategoriak

Ingurumen-hobekuntza

Babes Berezia

Harrobiaren aireko ikuspegia (Iturria: GFA)

Esplotazioan gorabeherak izan direnez, jarduerarik egon ez den uneetan nabaria izan den berreskuratze naturala azaleratu da, ofita arrokazko hormetan, nahiz oinarrian ezarritako plataformetan. Prozesu naturalak oztopatzeak eta berreskuratze lanik ez egoteak eragozten du udal-plangintzan ezarritako helburua, hots, Ingurumen-hobekuntza, gauzatzea.

Harrobiaren aireko ikuspegia 2001ean (ezkerrean) eta gaur egun (eskuinean)

Horri dagokionez, HAPOk eremu hauetarako zehazten du ingurumenaren leheneratze lanak egitea beharrezkoa dela, kalitatea areagotzeko helburuz, eta ekosistemaren berreskuratze eta hobetze lanak ahalik eta azkarren egin behar direla, baliabidea gal ez dadin. Proposatzen den ekintza honek HAPOren helburuak era bideragarrian aurreratu nahi ditu, epe labur eta luzerako ekimenak gauzatuz, paisaiaren gatazkaren baldintzak zehazten dituzten faktore nagusien eragina gutxituz, eta berreskuratze osoa gauzatzeko bidea hasiz.

KOKAPENA



GARAPENA

a) **Paisaiaren baldintzak ezartzea egon litezkeen baimen eskaereei.** Erabiltzeko baimenak edo tolerantziak, era mugagabean zein prekarioan, eremuaren ingurumena epe luzera hobetzea oztopatu edo saihestu dezaketen eraginak sor ditzake paisaiarengan. Horregatik, gomendagarria dirudi erabilera eskaera orori erantzunez, udalak instalazioak jadanik sortzen duen paisaiaren eragina kontuan izatea (nagusiki horma, barnealdean egindako betelana, errepide alboko iturria eraistea), baita ezarri beharreko erabilerak sor ditzakeen eraginak ere, batez ere une honetan gertatzen ari den berreskuratze naturalaren prozesuan atzera egitea ekar dezakelako.

Harrobiaren ikuspegia errepidetik eta barnealdetik

b) **Ingurumenaren berreskurapena abian jartzea, araudi urbanistiko zehatza definituz edota zoruaren jabetze publikoa gauzatuz.** Udal-plangintzako helburuak bermatzeko, zuzenean horretara bideratuko duen araudia sortzea beharrezkoa da, erabilerak ingurumenaren berreskuratzea ekarriko duten edo oztopatuko ez duten gisan mugatuz. Baimendu dezakeen tresna HAPOn adierazten da: Karrika errekako ingurunerako Plan Berezia. Beste aukera bat da, Plan Berezia garatu edo ez, zoruaren jabetze publikoa gauzatzea; horrela, Udalak eremuaren berreskurapenari ekin liezaioke eta gertatuko balitz, erabilera osagarriak proposatuko lituzke.

Hasiera batean, zenbait asialdirako edo kirol erabilera, ibilgailuen aparkalekua, edo baita biltegiak eta eraikin ez-andeatzaileak bateragarriak izan daitezke; betiere berreskuratzea bideratutako eta kokapenaren paisaiarekiko egokiak diren eremuak dituela.	
Epemuga / ezarpena	Epe laburra a) proposamenerako eta epe luzea b) proposamenerako
Lehentasuna	Tartekoa
Bideragarritasuna	Aipatutako proposamenak ezartzeko, udalaren erabakia beharrezkoa da. a) proposamenak ez du kosturik eta b) proposamenak, egiteko moduaren arabera, lurraz jabetzeko eta ondoren egin beharreko hobekuntza lanetarako inbertsioa behar lezake, udalerriarentzako eremu erabilgarria sor dezakeen arren.
Parte hartzen duten eragileak	• Oiartzungo Udala • Lursailen jabeak
Adierazleak	Proposamenak gauzatzea

9. EKINTZA. KARRIKAKO LANDAZABALEKO PAISAIA MANTENTZEA	PKU • *Karrika*

JUSTIFIKAZIOA

Zelaiek, basoek, sasiek eta eraikuntza tradizionalek osatzen duten mosaikoa landazabaleko paisaia osatzen dute, eta Karrika haraneko izaeraren zeinuak dira. Horren zaintza zuenean gaur egungo erabileren mantentzeari dagokio, baita dagoeneko paisaian eraginak sortu dituzten beste zenbait erabilera (hirigintzaren areagotzea, azpiegiturak, etab.) mugatzeari ere.

Karrikako landazabaleko aireko ikuspegia (iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia)

Plangintza urbanistikoak Karrikako behe eremuetako heskai eta zelaiak Nekazaritza erabilera etrategiko gisa izendatzen ditu (Nekazaritza-abeltzaintza kategoriaren barruan), Nekazaritza eta Basozaintzako LPSarekin bat datorrena, eta haien mantentzea eta gordetzea lehenesten da.

Lur horiek, LPSan aipatutakoarien arabera, gizarte intereseko ondare gisa jotzen dira eta udalek babestutako zoru izaera aitortuko zaie. Plangintzak berak hartzen du landazabala Paisaiaren Intereseko Eremutzat (Baldintza gainjarria); horregatik, Oiartzungo lurraldearen bereizgarri diren paisaia hauen babesa ziurtatzeko helburuz, eraikuntza-ekintzen eta itxituren tipologien inguruko araudia ezartzea proposatzen da.



LEUaren antolaketa kategoriak
- Aldaketako Landako paisaia
- Nekazaritza Erabilera Estrategikoa
- Urbanoa eta Urbanizagarria

HAPOk indarrean iraun bitartean, hirigintzaren areagotzea mugatua dagoela badirudi ere, sektoreko araudiari nahiz indarrean dagoen udal plangintzari jarraiki, ezin da baztertu epe luzen hazkunde berriak sortzea existitzen diren nukleotatik abiatuta. Bestalde, landazabaleko paisaia gordetzeak, hein handi batean, zelaien mantentzearekin eta tradiziozko nekazaritza eta abeltzaintza erabilerekin du zerikusia; eta hori, geroz eta gutxiago egiten da. Azkenik, nahiz eta indarrean dagoen plangintzak paisaiaren babesaren alde egiten duen, ez dira gauzatzeko irizpideak eta helburuak zehazten.

Harremana duten baliabideak / gatazkak	Laguntzen dituen helburuak
• Paisaiaren baliabideak: PB.4; PB.17 • Paisaiaren gatazkak:	• Helburu orokorrak: PKH.1 • PKUko helburuak: PKUH3.2

KOKAPENA



GARAPENA

a) **HAPOk zehaztutako Paisaiaren Intereseko Eremuetan, Udalak paisaiaren tratamendurako irizpideen ezarpen eraginkorra egitea.** Nahiz eta plangintza urbanistikoan ez den formulazioa zehaztu, nekazaritza erabilerei dagokienean, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak[6] definitutako paisaiaren irizpideak hartzea proposatzen da (instalazioen paisaiaren integrazioa, heskaiak mantentzea, harrizko hormak, isolatutako zuhaitzak, negutegiak, landabideak, etab.). Irizpideak kontuan izango dira baimenak esleitzeko eta lur horietan Udalaren edo beste eragile (publiko zein pribatu) batzuen ekintzak garatzeko.

b) **Tradiziozko abeltzaintza jarduera bultzatzea zelaiak mantentzeko.** Lurraldearen osotasunean (udalerria, eskualdea) existitzen diren bertako produktuak promozionatzeko (merkatuak, eraldaketa,…) eta nekazaritza lanak errazteko (makinengatiko diru-laguntzak, ordezkapenetarako langileak,..) neurriez gain, jabeek eskatu ditzakete Gipuzkoarako zehaztutako Landa Garapenerako Programetan ezarritako laguntzak. Tresna zuzenagoa izan daiteke abeltzaintza erabilerarako lurrak alokatzea, behin esplotazioa uzten denean, eta,

6 http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/pts_agroforestal/es_def/adjuntos/D_Anexos.pdf

horrela, ahalbidetuko litzateke dauden esplotazioak handitzea edo abeltzain berriak sartzea. Erreferentzia bezala, Oiartzungo Udalak abian jarri duen Lurbizi proiektua dago (Makutson), non Udala lursailen alokairua ordaintzen ari den, eta hainbat empresa edota kolektiboei ematen dien haiek ustiatu ditzaten. Aurretik ere antzeko proiektua gauzatu zuen udalak (agroaldea). Hemen aztergai dugun kasuan, paisaia mantentzeko erabilera egokiena abeltzaintzarena litzateke. Eskualdean badira adibideak, Gaintxurizketan (Lezo), Gipuzkoako Foru Aldundiko lurretan, hain zuzen ere.

c) **Eremu urbanoa indarrean dagoen udal plangintzako mugetan mantentzea.** Nahiz eta orain arte Karrikako garapen urbanoa berezko paisaian barneratu ahal izan den, egindako eraikuntza berriek jatorrizko nukleo txikia desitxuratu dute, nahiz eta eraikuntzaren tipologia eta dentsitatea baxuak izan diren. Indarrean dagoen HAPOk ez du garapen berririk aurreikusten, baina etorkizunean egon litezkeen lurzoru urbanoaren balizko zabaltzeak Karrikako bailara izan denaren eta denaren aldaketa eragin dezake, eta hori itzulezina izan daiteke. Plana eusten duten paisaiaren eta ondarearen irizpideak kontuan izanik, gomendagarria litzateke HAPOaren berrikuspenetan lurzoru urbanoa ez areagotzea, eta, gainera, babes neurri zehatzen bat hartzea.

Epemuga / ezarpena	Luzea
Lehentasuna	Tartekoa
Bideragarritasuna	Udalaren erabakiaren menpeko ekintzak dira eta orokorrean ez dute kostu ekonomikorik eragingo, plangintza eta kudeaketa irizpideak baizik.
Parte hartzen duten eragileak	• Oiartzungo Udala Behemendi (lehen sektoreari laguntza)
Adierazleak	Mantendutako zelaiaren azalera

10. EKINTZA. IBAIAREN INGURUKO PUNTU ESANGURATSUETAN EGONALDI-EREMUAK SORTZEA	**PKU** • *Altzibar* • *Altamiralarre-Arraskuelarre* • *Karrika*

JUSTIFIKAZIOA

Nahiz eta Oiartzungo ibai-sarea zabala den eta erabilera publikorako bideak badauden, ia ez dago ibaira gerturatzeko eta gozatzeko sarbiderik. Proiektuko eremuan, hiru puntu identifikatu dira leku lasaietan egonaldi-eremu txikiak sortzeko, eta, bide batez, kokatzen diren eremuekin bateragarriak dire edota eremuak berreskuratzeko aukera ematen dute. Gainera, eremuei interes handiagoa ematen dieten ondare kultural eta naturaleko baliabideak dituzte, eta ekimenak horiek hobetzeko helburua ere badu.

Harremana duten baliabideak / gatazkak	Laguntzen dituen helburuak
• Paisaiaren baliabideak: PB.8; PB.10; PB.12; PB.21 • Paisaiaren gatazkak: PG.13	• Helburu orokorrak: PKH.3 • PKUko helburuak: PKUH1.3, PKUH1.4; PKUA2.4; PKUH3.1

KOKAPENA



GARAPENA

a) **Altzibarko Ugarteolako zubia eta plaza berritzea:** zorua eta bankuak konpontzea edota ordezkatzea, barandaren hondarrak kentzea, ibaiko hondakinak jasotzea, hormen garbiketa, bidegurutzea konpontzea eta seinaleztatzea, ibairako oinezkoen bide bat gaitzea, Ugarteolako zubiko landaredia garbitzea eta bertako harlanduzko-horma estaltzen duen hautsezko geruza kentzea.

Ugarteko zubi ondoko plazaren kokapena eta zehaztasunak

b) **Aranburuolako burdinolako hondarrak ikusgarri egitea eta egonaldirako elementuak prestatzea:** saneamendua egin zenean pilatutako materialak kentzea, presa zaharraren uharkaren zati bat betetzen dutenak, hain zuzen ere; ibaian gora dagoen hormaren ondoko betelana induskatzea, horma ikus dadin, eta presaren hondarrak sendotzea, eror ez daitezen; landarediaren garbiketa selektiboa; harrizko edo egurrezko bi banku rustiko ezartzea.

Aranburuolako burdinolako hondakinak pilan diren eremuaren kokalekua eta zehaztasuna

c) **Karrikan, Ibaiarekiko harreman gunea Bidasoro ondoan:** plangintza urbanistikoaren arabera, Bidasoroko ubideko ezker ertzeko 2.604 metroak Sistema Orokortzat jotzen dira, hau da, gune berde gisa jotzen dira. hortaz, proposatzen da lursaileko berezitasunak ubideko balio naturalak integratuko dituen eremu berdea, errekarako sarbidea, ibaiko landarediaren landaketa partziala eta landa-izaerako jolasak eta altzariak (haurren parke alemaniarren gisakoa) ezartzea. Horrela, erabilera publikoa bateragarri egin nahi da bioanistasunaren, paisaiaren eta ondarearen balioekin (Artaso ondoan desegindako zubi zaharreko harrien bidez instalazio bat eraikitzeko aukera ere badago).

Karrikako errekarn ondo parkearen kokalekua eta zehaztasuna

Erreferentziazko haurren parke alemaniarra (San Markon, Errenterian, kokatutakoa)

Epemuga / ezarpena	Laburra
Lehentasuna	a): Altua b), c): Ertaina
Bideragarritasuna	a) eta c) proposamenak Oiartzungo Udalari dagozkio eta hasiera batean, beharrezko mantentzearen barnean txertatutako edo aurreikusitako ekintzak dira. b) proposamena gauzatzeko, jabearen baimena beharrezkoa da, lurra jabetza pribatukoa baita, nahiz eta erabilerarik gabeko gunea den eta hondakinak saneamendua jartzearen ondorioz pilatu diren.
Parte hartzen duten eragileak	• Oiartzungo Udala • URA (baimenak, beharrezkoak direnean)
Adierazleak	• Ekintza bakoitzari ekitea



9. ERANSKINAK

9. ERANSKINAK

1. ERANSKINA. Kartografia

- 1. Planoa. Kokapena
- 2. Planoa. Erliebea
- 3. Planoa. Landaredia eta habitatak
- 4. Planoa. Fauna
- 5. Planoa. Lurzoru Ez Urbanizagarriaren Kategoriak (HAPO)
- 6. Planoa. Plangintza eta baldintzak
- 7. Planoa. Paisaiaren baliabideak (1)
- 8. Planoa. Paisaiaren baliabideak (2)
- 9.Planoa. Paisaiaren gatazkak (1)
- 10.Planoa. Paisaiaren gatazkak (2)
- 11. Planoa. Paisaia Kudeatzeko Unitateak

2. ERANSKINA. Paisaiaren Ekintza Planaren eremuko argazki-bilduma